

Lurraldeak ekonomia solidarioaren bitartez eraldatuz

Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Lurraldeak ekonomia solidariorik eraldatzea

Tokiko politika publikoak
bultzatzeko tresnak





Argitalpen hau "Ekonomia Sozial eta Solidario baterako Tokiko Politika Publikoak" proiektuaren barruan kokatzen da. Zenbait jardueraren bitartez (ikerketa, prestakuntza, herritarrak sentikortzea, hedapena eta erakundeekiko elkarrizketa), Ekonomia Sozial eta Solidarioko printzipioetan eta praktiketan oinarritutako politika publikoak identifikatu nahi dira, bai eta lurraldeen eraldaketaren zerbitzurako tresnak garatu ere, ekitate-, iraunkortasun- eta solidaritate-irizpideetan oinarrituta.

Finantzatzen dute:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Lurraldeak ekonomia solidarioaren bitartez eraldatuz.
Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak

Egilea: Zaloa Pérez Hernandorena

Ekarpenak: Carlos Askunze Elizaga, Marian Díez López, Luis Guridi, Juan Carlos P. de Mendiguren eta Alicia Suso Mendaza



Venezuela Plaza 1, 2. Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

2. edizioa

ISBN: 978-84-945538-6-8

Lege zenbakia: BI-1511-2016

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Itulpena: Labayru Fundazioa

Inprimaketa: Gráficas Ingugom



Aitorpena-Ez komertziala-3.0 lizentzia beraren pean partekatzea

Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Askatasun osoz koptatu, banatu eta publikoki jakinaraz daiteke, baldin eta egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialeta- rako erabiltzen ez bada. Hori aldatu, eraldatu edo eratorritako obrarik sortzen bada, lizentzia honen pean soilik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa.


Lizentzia osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Ekonomia eraldatzeko bertako politika publikoak Zaloa Pérez Hernandorena eta Carlos Askunze Elizaga	7
Sarrera	11
Tokiko garapen eredu berri baterantz Marian Díez López	13
Ekonomia sozial eta solidarioa, eta tokiko giza garapena Luis Guridi eta Juan Carlos P. de Mendiguren	15
Parte hartzeko modu berriak, politika berri baterako Alicia Suso Mendaza	17
Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak	19
Erabiltzeko jarraibideak	20
1. Guztion ongiaren zerbitzurako kudeaketa instituzionala	21
1.1. Erosketa publiko arduratsua	22
1.2. Parte hartuzko aurrekontu publikoak	26
1.3. Auditoretza Soziala	29
1.4. Lurraren kudeaketa iraunkorra eta ez-espekulatiboa	32
1.5. Gizartearen edo ingurumenaren mesederako jardueretarako pizgarriak	36
1.6. Jarduera sozialak eta komunitarioak egiteko guneak lagatzea	40
1.7. Erantzukizun publikoko zerbitzuak eredu berritzaileetatik kudeatzea	43

1.8. Administrazioen arteko elkarlaneko kontsumoa	48
1.9. Laneratze-enpresa bat eratzen parte hartzea	51
1.10. Ekonomia Sozial eta Solidarioa bultzatzeko plan estrategikoak	54
1.11. Udalaz gaindiko edo sektoreko sare eraldatzaileak	58
2. Garapen alternatibo baterako ekonomia berri bat	61
2.1. Finantzaketa etikoa eta alternatiboa duten zirkuituak	62
2.2. Desmonetizatutako ekonomia eta lankidetzako ekonomia	66
2.3. Merkatu soziala	70
2.4. Merkaturatze zirkuitu laburrak	73
2.5. Ekintzailtza Ekonomia Sozial eta Solidarioan	77
2.6. Toki-garapeneko planetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak	82
2.7. Ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan sentikortzeko kanpainak	86
3. Bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko estrategiak	89
3.1. Berdintasun-planetatik bizitzaren iraunkortasunerako planetara	90
3.2. Zaintzak, lurralde-garapeneko strategiaren erdigunean	93
3.3. Hiri iraunkoragoetarako trantsizioak	96
3.4. Denboraren erabilera berriak	100
3.5. Elikadura-burujabetza	104
3.6. Nekazaritzako elikagaien strategiak iraunkortasun- eta justizia-irizpideetatik	109
3.7. Energiaren etika: energia-eredu berri baten alde	112

Aurkezpena



Ekonomia eraldatzeko tokiko politika publikoak

Zalao Pérez Hernandorena eta Carlos Askunze Elizaga

REAS Euskadi

Hauxe da gure erronka: aldaketako gobernuekin batera edo instantzia aliatuetan eraginez politika ekonomiko berria eta politika publikoa eraikitzea; hain zuzen, sektorea eta ekonomia sozial eta solidarioko esperientziak indartzeko gai den eta logika hori sektore publikoaren funtzionamendurako har dezakeen politika. Eta ziurtatzea eredu aldaketa bat, sistema berri baterako bilakaera¹.

Ekonomia Sozial eta Solidarioak (ESS) ekimen sozioekonomikoen aukera aberatsa eta askotarikoa eskaintzen du. Merkatu kapitalisten lehiarekin logikarekin alderatuz gero, bestelako logika batekin funtzionatzen dute ekimenok: elkarrekikotasunean, altruismoan, elkartasunean eta lankidetzan oinarritutako jardunbideak berreskuratzen dituzte, eta pertsonak eta bizitzaren iraunkortasuna irabazi-asmoen gainetik jartzen.

Gaur egun nagusi den garapen ereduak, irabaziak handiagotzeko asmoz, eraginkortasun ekonomikoaren printzipioari jarraitzen dio eta merkatuetan jartzen du arreta; espekulazioan eta eredu hazkundezale eta kontsumistan oinarritutako garapen-eredu horri aurre eginez, ESSk tokiko giza garapeneko eredu alternatibo baten alde egiten du. Hala, giza aukerak eta gaitasunak handitzea du helburu, pertsonen eta haien ingurunean jartzen du arreta, eta ekitatea eta justizia ditu gidari.

Aintzat hartu behar da zeri egiten dion erreferentzia Ekonomia Solidario (edo Ekonomia Sozial eta Solidario) terminoak: ikuspegi teorikoen multzo heterogeneo bati, hainbat mugimendu sozioekonomiko eta errealtate instituzionali, eta askotariko enpresa- eta elkarte-ekimeni. Errealtate horiek, gainera, geografiari begira oso desberdinak diren antolatzeko moduak eta instituzionalizazio mailak hartu ohi dituzte. Alabaina, errealtate anitz horrek –eta etengabe ari da hazten–, arian-arian, kidetza-sentimendu gero eta handiagoa sortzen du; hain zuzen, mugimendu baten, korronte baten edo ekonomiak eta prozesu ekonomikoek gure gizarteetan eta munduan zer zeregin duten ulertzeko ordezeko modu baten parte izatearen sentimendua².

Gaur egun, ekonomiaren ziklo osoan dago ESS, askotariko ekimenen bidez: sorkuntzan (kultura, herri-ondasunak, agroekologia, hezkuntza eraldatzailea...), ekoizpenean (enpresa kooperatiboan, gizarteratze-enpresen, irabazi-as-

-
- 1 Magdalena Leónnek FIESSen (International Forum on the Social and Solidarity Economy) hasierako ekitaldian esandako hitzak, Montrealen, 2011ko urrian.
 - 2 PEREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos, ETXEZARRETA, Enekoitz eta Luis GURIDI (2009): *Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate*. Papeles de Economía Solidaria 1. zenb., REAS Euskadi, Bilbo.

morik gabeko erakundeen eta abarren bidez), merkaturatzean eta kontsumoan (merkatu sozialak, azokak, kontsumo-kooperatibak, erosketak publiko arduratsuak, bidezko merkataritza, denbora-bankuak, trukea, elkarlaneko kontsumoa...) eta finantzetan eta soberakinen banaketan (finantza alternatiboak, banku etikoa, *crowdfundinga*, aseguru etikoak, moneta sozialak...)³.

Ekimen horiek tokiko garapen mota jakin batekin lotzen dira; zehazki, lurraldean esku hartzeko estrategia gisa definitutakoarekin, zeinak tokiko ahalmena sortzea eta hiritarrentzat baldintzak eta aukerak gehitzea baitu helburu. Horretarako, giza garapena bultzatzen du, aukera-berdintasunaren, iraunkortasunaren, parte-hartzearen eta ahalduentzearen printzipioetatik abiatuta, eta giza eskubideak, sozialak eta herritarrenak bermatzen ditu. Ikuspegi alternatibo honek gizarte bakoitzetik pentsatzea eta ekitea proposatzen du, pertsonetan –banaka zein kolektiboki hartuta– oinarritutako garapen eredia erreferentzia duten proiektu kolektiboak sortzeko.

ESSk lotura estua du hala ulertutako tokiko garapena-ekin, lurraldean errotuta baitago eta komunitatea baita bere proposamenaren objektu eta subjektu. Baliabide endogenoak erabiltzen ditu eta autozentratua da: tokiko baliabideak lehenesten ditu tokiko beharrak asetzeko eta osoko ikuspegi batetik bultzatzen ditu lurraldeen gaitasunak eta garapena; hau da, errenta sortuz, loturak eta gizarte-kohesioa eratuz, jakintza sortuz, ahalduentze prozesuak sustatuz...

Bere proposamenak bultzatuz, bere ekimenen eragina eta garrantzia –politikoa eta ekonomikoa– handitu nahi ditu ESS mugimenduak. Horretarako, besteak beste, hiru estrategia osagarri ekar ditzakegu hizpidera:

—● Ekimen sozioekonomiko autogestionatuak garatzea, lanean, militantzian, kontsumoan edo herritarren babesean oinarrituak.

—● Ikerketa, salaketa eta sentikortze-lana, baita beste mugimendu sozialekin bat egitea ere, kapitalismoari aurka egiteko eta egituren eraldaketa bultzatzeko.

—● ESSren printzipioetatik abiatuta aldatzeko politika publikoak sustatzea.

Hiru alor horietatik lurraldeen eraldaketa eta ekimen sozioekonomiko alternatiboen sustapena bultzatzen dugu, eta horrenbestez tokiko giza garapen berria ere sustatzen; hala, ezin diogu utzi hiru alor horietan aldi berean esku hartzeari.

Gure proposamen eraldatzaileak garatzeko aukera daukagu tokiko politika publikoen sustapenean. Kontuan izan behar da udalerrian bizi eta lan egiten dugula gehienek, bertan gertatzen direla gertutasun harremanak, eta herritarrei bertan ematen zaizkiela ondasun eta zerbitzu ugari, askotariko eta garrantzitsuak. Beraz, hein handi batean, tokiko mailan garatzen diren politiken menpe dago herritarren ongizatea, banakoa zein kolektiboa.

Halaber, demokratizazioa alor hurbilenean hasten da, tokiko espazioaren parte hartuzko kudeaketa kolektiboaren eta sustapenean, hain zuzen. Espazio hori, gainera, eraldaketa-prozesu handiagoetarako abiapuntutzat hartu behar da. Horregatik da garrantzitsua beste lurralde-espazio handiagoekin lotura izatea.

Beraz, munizipalismo eraldatzaileak eskaintzen dituen aukeretatik abiatuta, tokiko instantzia publikoek hainbat

3 ASKUNZE ELIZAGA, Carlos (2013): “Más allá del capitalismo: alternativas desde la Economía Solidaria”, *Documentación Social*, 168. zenb.

eginkizun izan ditzakete ESSren sustapenean: egoerak sortzea, ESSko ekimenak errazago gauzatzeko edo finantzatzeko modua ematea, haren produktu eta zerbitzuez hornitzea, herritar guztiak ESSren onurei buruz sentikortzea edota zuzenean hura garatzen parte hartzea⁴.

Ikuspegi horretatik, lurraldearen eraldaketan lagundu dezaketen dozenaka proposamen politiko eta tokiko jarduera publiko aurkitu ditu REAS Euskadik. Hiru atal handitan sar daitezke, eta horietan banatu dugu argitalpen hau:

1. Guztion ongiaren zerbitzurako kudeaketa instituzionala.

Erakundearen kudeaketan ESSren balioak eta printzipioak jarraitzen dituzten praktikak identifikatzen ditugu. Nolabait, instituzioak ESSren agente aktibo bihur daitezke, tresna jakin batzuen bidez: auditoretza, parte-hartuzko aurrekontuak, erosketa publiko arduratsua, espazio eta zerbitzuen kudeaketa...

2. Garapen alternatibo baterako ekonomia berri bat.

Zalantzarik gabe, eta aipatu den moduan, ESSk tokiko garapen-eredu berri bat bultzatu nahi du; hain zuzen, giza garapeneko eredu iraunkorra eta bidezkoa. Ikuspegi horretatik eta tokiko instituzioek arlo horretan dituzten eskumenetatik abiatuta, ESSko estrategia-planen sustapenarekin lotutako hainbat praktika proposatzen ditugu: ekintzailatza, finantzaketa zirkuituak, genero ikuspegia tokiko garapenean, merkataritzan eta kontsumoan txertatzea...

3. Bizitzaren iraunkortasuna sustatzen duten estrategiak.


Azkenik, atal bat eskaintzen diogu bizitzaren iraunkortasuna sustatuko duten estrategia orokorrak bultzatzeari. Egia esan, bizitzaren iraunkortasuna eta harekin lotutako prozesu guztiak (ugalketakoak, zaintzakoak, ingurune-koak, kulturalak...) publikotzat ulertzen dugun politika ororen erdigunean egon beharko lukete eta, nola ez, baita ekonomia sozialago eta solidarioago baten eraketan ere⁵. Hala eta guztiz ere, paradigma horren garrantzia aintzat hartzen duten hainbat proposamen estrategiko azpimarratu nahi izan ditugu. Zaintzak bizitza sozial, politiko eta ekonomikoaren erdigunean jartzearekin, elikadura-burujabetzarekin, trantsizioko lurraldeekin eta abarrekin lotutako estrategiez ari gara.

Geure proposamen eta ekimenekin (guztira 25, eta 70 bat adibide zehatz) asmo jakin bat dugu –beste mugimendu sozial, ekonomiko eta politiko batzuekin batera–; zehazki, gure lurraldeek etorkizun parekide, iraunkor eta solidario bat izateko behar duten aldaketa ekonomikoa sustatzea. Espero dugu argitalpen hau tresna-kutxa erabilgarria bihurtzea ildo eraldatzaile horretan jardun nahi duten tokiko erakunde publikoentzat (horietan lan egiten duten teknikari nahiz politikarientzat), ESS sareentzat eta beste herri-mugimendu batzuentzat. Halaber, proposamen horiek osatzen eta zabaltzen jarraitzeko gonbita luzatzen dizuegu.

4 GARCIA JANÉ, Jordi (koor.) (2014): *Guía de economía social y solidaria para la administración local*. Bartzelonako Diputazioa. Bartzelona.

5 W.A.A. (2014): *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*. REAS Euskadi, Bilbao.

Sarrera



Tokiko garapenaren eredu berri baten alde

Marian Díez López

Hegoa Institutua (UPV/EHU) eta REAS Euskadi

Ekonomia Sozial eta Solidarioko (ESS) kideok gustuko dugu esatea gure helburua bizi garen tokiko gizartea eta gizarte globala erabateraldatzea dela, errotik eta behetik eraldatzea ere, eta modu horretan mundu zuzenago, bidezkoago eta iraunkorrago bat sortzea. Izan ere, guztiz aurkakoak dira, batetik, gure ustez lurraldeen eta komunitateen garapenak izan behar duena eta, bestetik, kapitalismoak bultzatu eta zabalduko garapenaren ideia: neurrigabeko kontsumoan eta amaierarik gabeko hazkunderan oinarritutako garapen ekonomizista eta produktibista, non pertsonen eta haien behar eta gaitasunen gainetik nagusitzen baita kapitalaren metaketa, eta zeinari ez zaizkion axola bere helburuak lortzeko sortutako kalteak, direla gizakiei eragindakoak, sozialak nahiz ekologikoak.

Egungo errealitateak gordinki erakusten digunez, globalizazio neoliberalak ez da ari ematen giza garapen iraunkor bat lortzen lagunduko duen emaitzarik. Adibidez, ez dakar inola ere enplegu betea, ez eta errenta-banaketa berdintasun handiagoa ere; aitzitik, geroz eta desberdinkeria handiagoak sortzen ditu diru-sarrerei dagokienez, eta milioika pertsona eta hainbat lurralde pobretzen ditu mundu osoan. Horrez gain, baliabide naturalak suntsitzen ditu, planetaren ahalmen biologikoaren gainetik. Gure aztarna ekologiko globalaren hazkundeak argi erakusten du hori, azken 40 urteotan bikoiztu, eta planetaren ahalmen biologikoa % 30ean gainditu baitu.

ESSrako, garapena pertsonen bizimodu onarekin dago lotuta, haien bizi-kalitatearekin eta haien gaitasunak bakanakako eta taldeko ongizatea lortzeko moduan garatzearekin. Pertsonak garapenaren helburu izan behar dute, eta ez soilik bitarteko. Ongizate ekonomiko, sozial eta gizatiar horrek ez du arriskuan jarri behar bizitzaren eta planetaren iraunkortasuna. Azken finean, paradigma-aldaketa bat da ESS, eta zalantzan jartzen ditu gailendu den ikuspegi antropozentrikoa eta hazkunde mugagabearen hipotesia.

Egun, "garapena justiziatik (gizarte- eta ingurumen-justiziatik) berriz pentsatzera" bideratutako prozesu batean gaude⁶. Paradigma berri bat eraikitzeke ibilbide horretan, ez dabil bakarrik ESS. Bide horretan beste zenbait pentsamendu-korronte kritikorekin bat egiten du, hala nola, feminismoarekin, ekologismoarekin, bizimodu onarekin eta desazkunderarekin, geure pentsamendutik hurbilen dauden batzuk aipatzearen. Feminismoak (gizarte-mugimendu gisa) eta ekonomia feministak nabarmendu zuten lehenbizikoz kapitalismoaren eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko kontraesana. Ez da harritzekoa. Era berean, mugimendu ekologistak eta Ekonomia Ekologikoak ere kontraesan berbera identifikatu dute planetaren iraunkortasunari dagokionez. Garapenaren ikusmolde mendebaldarrari egiten zaizkion kritikak, azken urteotan, Andeetako herrien *sumak kawsay* izeneko ikuspegi mamitu dira. Mundu-ikuskerak horrek bizimodu onaren kontzeptuaren

6 DUBOIS, Alfonso (2014): *Marco teórico y metodológico del Desarrollo Humano Local*, 23. Hegoa, UPV/EHU. Bilbo.

esanahi posible ugariak berriz pentsatzera eta ulertzera behartzen gaitu. Desazkundeak, bestalde, ohartarazten digu zentzugabea dela baliabide mugatuak dituen planeta batean mugagabeki hazi daitekeela pentsatzea.

Garapena gizarte- eta ingurumen-justiziatik berriz pentsatzearen bide horretan, badago ESSren proposamenetik hurbil dagoen eta bereziki nabarmena den hautabide bat: Giza Garapena. Ikuspegi horren arabera, garapena prozesu bat da, pertsonak eta gizarteek baliozkotzat jotzen duten bizitza izateko aukerak (gaitasunak) zabaltzen dituena. Garapenerako proposamen horrek ekonomiaren dimentsio etikoa berreskuratzen du, eta pertsonen bizitza jartzen du paradigma berria eratzeko prozesuaren erdigunean, banako nahiz taldeko askatasun-irizpide batzuetatik abiatuta, gizarte-justiziako esparru batean.

Hain zuzen ere, ikuspegi hori abiapuntutzat hartuta sortu zen Tokiko Giza Garapenaren (TGG) proposamena. Kontzeptu hori Hegoa Institutuan egindako ikerketa kolektibo batekin dago lotuta, eta TGGren marko teorikoa eta metodologikoa zehazten dituen Alfonso Duboisen (2014) dokumentuarekin hasi zen:

“TGG da prozesu oso bat edo prozesu multzo bat, zeinaren bidez gizarte bakoitzak era autonomoan zehazten baitu bere etorkizun desiragarria edo posiblea; hots, baliozkotzat duen ongizatea, aukeren zabalkunde gisa ulertuta berau, bai banakoentzat, bai gizarte-taldeentzat eta bai lurraldeka antolatutako komunitateentzat ere –eskala txikikoak eta ertainekoak–. Barruan hartzen du, orobat, haien gaitasunak eta baliabideak mobilizatzea ere, guztien onura ekitatiboa lortzeko; kontuan

harturik genero-ekitatea, giza garapenetik ebaluatutako alor ekonomiko, sozial eta politikoetan”⁷.

Talde-lan sakon batean, lehen aipatutako begirada kritikoa horietako asko gehitzen joan dira definizio horretan: feminista, ekologista, demokratikoa eta abar, horiek garapenaren giza begiradan integrazeko asmoz⁸. Horren guztiaren emaitza da garapenaren ikuspegi bizi eta demokratiko bat, non gizarte bakoitzetik pentsatzea eta ekitea proposatzen baita, pertsonak –banakoak nahiz taldeak– oinarri dituen garapen-eredu baterako proiektu kolektiboak sortzeko. Modu horretan, tokiko gizarteek beren garapenaren bilaketan duten protagonismoa nabarmentzen da, behetik eraikitako globalizazio berri bat sortzeko eragile aktibo gisa. Garapen-prozesuei buruzko ikuspegi demokratiko eta parte-hartuzkoa berreskuratzen da; ikusmolde horretan, ESSk bultzatutako balioek (justizia, lankidetzeta, elkarrekotasuna eta elkarri laguntzea) izan behar dute oinarri produkzio-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-harreman berriak eraikitzeko, bizitzarako beharrezkoak diren lan guztiei baliua emanez.

TGGk kategoria berriak eskaintzen dizkigu ESStik lortu nahi dugun eta sortzen ari garen errealitatea interpretatzeko eta ulertzeko; aldi berean, oinarrizko eta beharrezko erreferentzia bat da, garapen berri hori tokian tokitik eraikitzen lagunduko duten politika berriak diseinatzeko.

7 DUBOIS, op. cit., 129.

8 Hemen aurki daiteke egin diren lan eta dokumentuei buruzko informazioa: [\[www.hegoa.ehu.es/articles/text/desarrollo_humano_local7\]](http://www.hegoa.ehu.es/articles/text/desarrollo_humano_local7)

Ekonomia sozial eta solidarioa, eta bertako giza garapena

Luis Guridi eta Juan Carlos P. de Mendiguren

Hegoa Institutua (UPV/EHU) eta REAS Euskadi

Tokiko Giza Garapena edukiz hornitzeko, kontuan hartu behar dira haren zenbait alderdi; besteak beste, alderdi ekonomiko-produktiboa. Ekonomia Sozial eta Solidarioak (ESS), oinarri dituen balio, printzipio eta praktikak direla-eta, –Lankidetzako Printzipioak (ICA, 1995), Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna (REAS, 2011)– giza gaitasunak indartzen laguntzeko ahalmen guztiak eskaintzen ditu, bereziki gaitasun kolektiboak –hau da, erakundeek eta gizarteak, oro har, beren etorkizuna zehazteko eta kudeatzeko gaitasunak–, eta, hain zuzen, horiexek dira Tokiko Giza Garapenaren helburu nagusia.

ESSk pertsonen erabateko parte-hartzea, ekiteko eta sortzeko gaitasunak hobetzea, ikasketak sustatzea eta elkarrekin lan egitea bultzatzen du; beraz, bere kideen eta erakundeen konpromiso maila handitzen du eta, horrenbestez, lankidetzako, elkarrekiko konfiantzako eta partekatutako balioen kultura bat sortzen du, identitate kolektiboa eta kideza sentimendua bultzatzen dituena. Era berean, erakundeetan informazioa eskuratzeko aukera eta gardentasuna sustatzen dituen bezala, hobetu egiten du eguneroko lanerako konpromisorako eta sustagarri handiagoez hornitzeko ahalmena, bai eta etorkizunean modu kolektiboan pentsatzeko eta identitate kolektibo hori finkatzeko gaitasuna ere. Identitate horri esker, bere burua erakunde gisa berretsita, lurraldeko beste aktore batzuekin harremantzeko aukera izango du.

Aurretik aipatu bezala, ESSk lotura estua du tokiko garapenarekin, lurraldetik eta bertako jendetik eta erakundeetatik sortzen baita; lurraldean errotuta dago, baliabide endoge-

noak erabiltzen ditu eta tokiko gaitasunak sustatzen ditu, lurraldean bertan ingurune berritzaile bat sortzeko. Zentzu horretan, tokiko garapen ekonomikoaren ikuspegi tradizionalenak berreskuratzen ditu eta haiekin bat dator; esaterako, lurraldea garapenerako agente gisa hartzea, gizarte-adostasunaren garrantzia, prestakuntzari eta gaitasunak lortzeari ematen zaion gailentasuna, edo, neurri batean, inguruarekiko konpromisoa.

Hala ere, tokiko garapen ekonomikoaren ikuspegi tradizionalenen aldean, ESSk beste hainbat ikuspegi eskaintzen ditu, lurralde iraunkorrago eta bidezkoago bat lortzen laguntzeko, nondik eta giza garapenean errotutako oinarri berrietatik. Hazkunde ekonomikoari lotutako garapenaren ikusmoldeaz bestera, ingurumenaren iraunkortasuna bultzatzen du, produkzio-sistema garbietan, bidezko merkataritzan eta kontsumo arduratsuan oinarrituta. Irabazi-asmoak ekintzaitza tradizionalen definizio eta bereizgarri dira; ekonomia sozial eta solidarioak, aldiz, jarduera ekonomikoaren beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du apustu. Jarduera ekonomiko tradizionalen nagusi eta gidari den lehiaren ordean, elkartasunaren eta lankidetzaren ikuspegitik dihardu, hala bere erakundeen barruan nola haietatik kanpo.

ESSren bereizgarria ez da nazioartean txertatzea, tokiko garapen ekonomikoa sustatu eta bultzatu asmoz; aitzitik, tokikoaren alde egiten du apustu, komunitateen beharrei erantzutearen eta garapen komunitarioaren zerbitzura egotearen alde. Gizarteko beste eremu batzuekin engaiatzeko ahal-

men berezia dauka, baita irabaziak sortzen diren lurraldean bertan berrinbertitzeko joera handiagoa ere; horrela, tokiko mailako metaketa-prozesuak bultzatzen ditu. Badu, halaber, kultura ekintzailea eta enpresa-sarea sortzeko eta zabaltzeko ahalmena ere, bai alor ekonomikoan, bai sozialean.

Krisialdiko eta aldaketako testuinguruetan, ESSk agerian utzi du erresilientzia- eta egokitzapen-gaitasunak dituela, bereziki lanpostuen sorreran eta defentsan; izan ere, lanaren jabetzak eta kapital sozialak enpresaren etorkizunarekin lotzen du kideen etorkizun pertsonala eta familiarra. Era berean, botere publikoen eta eragile sozialen aurrean aitortpen eta ikusgaitasun handiagoa duenez, abantailatsuagoa da, konparaziotara, zuzenean premia sozialei lotutako zerbitzuen hornikuntzan; epe ertain eta luzean ageriko gaitasunak dituen sektore batean.

ESSko erakundeek argi eta garbi erakutsi dute gauza dirrela askotariko interesak eta identitateak, ikuspegiak eta pentsamoldeak kudeatzeko erronkari aurre egiteko, baina pertsonen eta bizitzaren sorkuntzaren zerbitzurako ekonomia baten parte izateak eskatutako koherentziarekin. Horren frogagarri da hainbat enpresa eta erakunde daudela, askotariko figura juridiko eta antolamendu-ereduekin, merkataritzako eta ez merkataritzako baliabideak erabiltzen dituztenak, merkatuaren logika solidaritatearekin eta birbanaketarekin konbinatzen dutenak eta barne-gestiorako askotariko sistemak gehitzen dituztenak.

Parte hartzeko modu berriak, politika berri baterako

Alicia Suso Mendaza

Cáritas Bizkaiako Lan eta Ekonomia Solidario Saila, eta REAS Euskadi

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) garapen teoriakoan, elementu nagusietako bat da parte-hartzea; hala ere, egiaztatu da ez dela eraginkortasunez txertatu agerpen praktiko guztietan, eta premisa horixe dugu abia-buru. Bestalde, azken urteotan agertzen joan diren parte hartuzko prozesuen garapenean (bai administrazioetatik sustatutakoak eta politika publikoei lotutakoak, bai bat-batekoak eta/edo komunitarioak izandakoak), ez dira beti sartu ekonomiari lotutako auziak. Kausak, edo erresistentziak, askotarikoak izan daitezke (aurrerago helduko diegu), baina, egia esan, borondatea badago ere, zailtasunak ditugu denboran iraunkorrak, neurgarriak eta eraldatzaileak diren parte hartuzko esperientzia inklusiboak sortzeko, ESSren alderdi eraldatzailea indartzeko eta beste erakunde, instituzio, sare eta ekimenetarako erreferentzia izateko moduan.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea ESSren alorrean lan egiten duten erakundeek eta zenbait instituzio publikok sentsibilitate berezia erakutsi dutela parte-hartzeari dagokionez, hausnarketetan eta eguneroko jardunean. Askok benetako ahaleginak egin dituzte lankide dituzten pertsonen eta erakundeen parte-hartzea errazteko edo bideratzeko. Hainbatetan, gainera, ekimen benetan interesgarriak eta, batez ere, eraginkorrak martxan jartzea lortu dute (eraginkorrak, lankidetzaren, inguruarekiko konpromisoaren eta ekitatearen ikuspuntutik; azken batean, ESSren printzipioetatik). Esperientzia horiei sakon begiratzuz gero, begien bistan geratzen da parte-hartzearen, berdintasuna-

ren eta inguruarekiko konpromisoaren ikuspegiak uztartuz gero guztiak indartzen direla.

Badakigu alor instituzionalak eta komunitarioak jadanik lantzen duela partaidetzako lana. Partaidetzako esperientzia asko ari dira gauzatzen, hobeto edo okerrago (eta ia beti borondate onez) gure herri, hiri eta auzoetan, eta lotura zuzena dute politika publiko eraginkorragoak gauzatzearekin, pertsonen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako politikekin. Baina badakigu, baita ere, parte-hartzearen ikuspegi azaleko batek (pertsonen benetako bizi-baldintzak kontuan hartzen ez dituen; gizartean, oro har, gertatzen diren bazterketak errepikatzen dituen; azkenak ahazten dituen...) ezkutatu egin dezakeela gero eta ahulagoak diren eta ziurgabetasun handiagoa duten gizarte-sektore horien egoera zaila.

Horregatik, ezinbestekoa da gizarteratzearen ikuspegitik egitea parte-hartze sozial eta politikoaren irakurketa, "parte-hartuzkotzat" jo diren esperientziak ez ditzaten, batetik, beste alor batzuetan suertatzen diren logika baztertzailak errepikatu eta pobrezian edo bazterketa egoeran dauden pertsonak, emakumeak, gazteak edo zaharrak ikusezin bihurtu; eta, bestetik, ez dezaten alde batera utzi zuzenean zenbait politikaren eraginpean geratzen den elkarte-ehun sozial eta komunitarioa.

Ez da bide erraza. Ez daude eredu asko (dauden ereduak ezagutzeko eta bultzatzeko modu bat lan-sareak dira)

eta ugariak eta askotarikoak dira erresistentziak (hemen aipatzen ditugu aztertu ditugun esperientzietan agerian jarduten dutenak).

- Parte-hartzeak ez dakar berez gizarteratzea (lehen garapen teorikoetan hala sinetsi genuen arren); aitzitik, logika patriarkalak, garapenzaleak, etb. errepikatzen, eta pertsona-eredu jakin baten neurrirako prozesuak sortzen ditu: erdi-mailako klaseko gizona, goi-mailako ikasketak dituen, publikoan hitz egitera ohituta dagoena, heterosexuala, zuria eta urbanoa (zilegi bekit karikatura hori, erresistentziaren eredugarri).
- Parte-hartzeko kulturarik eza (sarri belaunaldi gazteeni egozten zaie soil-soilik). Instituzio eta erakunde asko ari dira hari aurre egin nahian (sentikortzeko kanpainak, parte-hartzea eta elkartegintza sustatuko duten planak bultzatzea, sarean lan egitea...).
- Berdinzaletasun homogeneizatzailea: lankide ditugun pertsonak berezko problematika duten kolektibotzat hartzen ditu, eta ez du zalantzan jartzen ea erreferente unibertsal maskulinoa (autonomia, ezagutza eta esparru publikoan eragiteko gaitasun handikoa) baliokoa edo zilegi al den, neurtzeko unitate normal gisa.
- Ez jakitea nola egin, nora begiratu, nondik kopiatu... jardunbide egoki eta arrakastatsuak sortu dituzten erakunde eta mugimenduekin aliantzak sortu ordez... baita porrotak izan dituztenekin ere, haiengandik ikasketeko (ESSn, adibidez, eremu horretan lanean ari gara, hari horretatik).

Alor instituzionaletik parte hartzearen alde egiteak berekin dakar, batetik, boterea banatzeko modu berri bat (azken finean, hori da parte-hartzea), bestetik, erlazionatzeko modu berri bat eta, baita ere, gatazkaren aldeko apustu

bat (aurrera egiteko aukera gisa ulertuta). Ez badugu geure gain hartzen ikuspegi hori alor guztietan (baita instituzionalean ere) txertatzeko beharra eta premia, galdu egingo dugu politika eraginkorragoak –pertsonetara hobe egokituak– diseinatzeko aukera eta, gainera, pertsona askoren desabantailazko egoera betikotzeko arriskua izango dugu. Beste era batera esanda, erronka hori onartu ezean, desberdinkerian oinarritutako harremanak elikatuko eta finkatuko genituzke, eta mendekotasun- eta nagusitasun-harremanak mantentzen dituen eredu horren erantzule izango ginateke.

Jar ditzagun zalantzan rolak, bada, eta ezar ditzagun hausnarketa-espazio mistoak –tokiko administrazioen, horiez gaindikoen eta askotariko mugimendu eta erakunderen artekoak–. Ahalbidetu dezagun benetako ekitatea parte-hartzean. Beharbada ez da nahikoa izango (garrantzitsua da ikuspegiak batzea eta konbinatzea, kontuan hartuta botere-harremanak oso konplexuak direla), baina bada atzeraezina. Egin dezagun elkarrekin lan.

Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak



Erabiltzeko jarraibideak

Azken urteotan, ESSko mugimenduak proposamen ugariak eta askotarikoak egin ditu politika publikoen eremuan, bereziki tokiko testuinguruan; izan ere, gure ustez, primeran egokitzen da proposatzen ditugun ekimenetara, bere neurria, gertutasuna eta norainokoa direla-eta. Hemen, horietako batzuk soilik nabarmenduko ditugu; agian, ibilbide luzeena dutenak edo bereziki adierazgarriak direnak, proposatzen dituzten prozesu edo estrategien osotasunagatik.

Argitalpen honetan bildu ditugun 25 planteamenduak proposamen gisa azaltzen dira, ekintzara bultzatzeko asmoz. Hiru kapitulutan egituratu ditugu:

1. Guztion ongiaren zerbitzurako kudeaketa instituzionala.
2. Garapen alternatibo baterako ekonomia berri bat.
3. Bizitzaren Iraunkortasuna sustatzen duten estrategiak.

Proposamen bakoitzeko, kategoria hauek definitu ditugu:

[zertarako]

Zer helburu eta eragin eraldatzaile sor dezaketen eta zer onura ekar dezaketen gizarlean, ingurunean nahiz kulturean... gure proposamena bultzatzeak. Halaber, nabarmentzen da zer ekarpen egin diezaieketen halako politikak eraldaketa zabalagoi.

[saiakuntza-bankua]

Hemen, askotariko eskala geografikoetan zertutako esperientzia batzuk nabarmendu ditugu. Horietan, proposa-

tzen dugun politika publikoak ekimen zehatzetan gorpuztu dira, irismen handiago edo txikiagoan.

Ahal izan denean, interneteko erreferentzia txertatu dugu, haiei buruzko informazio gehiago lortzeko (interneteko erreferentzia hauek 2016ko urrian kontsultatu dira, eta URL-ak laburtzeko tresna honekin laburtu dira: www.bitly.com).

[Nola]

Atal honetan, saiatu gara, batetik, jorratutako gaiari buruzko argudio eta diskurtso kritikoak sortzen, eta, bestetik, aurkeztutako politika publikoaren definizioan kontuan izan beharreko elementuetan sakontzen. Azkenik, zenbait aktorek esparru honetan identifikatu dituzten zailtasunak eta/edo aukerak nabarmendu ditugu.

[gehiago jakiteko]

Atal honetan, interneteko baliabideak, gidak eta, orokorrean, gai jakin batean sakondu nahi dutenentzat baliagarriak izan daitezkeen materialak jaso ditugu.

Argi dago egon daitezkeela eredu sozioekonomikoaren eraldaketa tokiko ekintza politikoaren bidez aldatzea bultzatzen duten proposamen eta ekimen gehiago, eta askoz gehiago direla, halaber, ibilbide honetan inspirazio-iturri izan daitezkeen adibideak, argitalpen honetan azaldutakoek harago. Honako hau REAS Euskadik proposatzen duen lehenengo hurbilketa da; orain, geure lurraldeen eraldaketarekin konpromisoa duten agente guztiei dagokie berau osatu eta zabaltzea.

1

• Guztion ongiaren zerbitzurako kudeaketa instituzionala



1.1.

Erosketa publiko arduratsua

[zertarako]


Erosketa publiko arduratsua honetan datza: produktuak eta zerbitzuak kontratatzean, ingurunearekin, gizarteko ekitatearekin eta produktuak nahiz zerbitzuak etikoki gauzatzearekin lotutako irizpideetatik abiatuta • Horren bidez, administrazio publikoak bere ekintzek sortutako ondorio positiboak ugaritzen ditu, diru publikoaren erabilera eraginkorragoa bermatzen du, balio erantsia duten zerbitzuak ematen dituzten enpresen parte-hartzea errazten du eta beste gizarte-politika batzuk gauzatzen laguntzen du.

[nola]

Kontratazio publikoaren fase eta prozeduretan aspektu sozialak, etikoak eta ingurumenari lotutakoak txertatuz. Horri esker, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzean, produktuaren nahiz zerbitzuaren eta enpresaren ezaugarri sozialak, etikoak eta ingurumenarekin lotutakoak har daitezke aintzat, alde batera utzita zerbitzuaren prezioa eta kalitatea.

A. Gizarte-klausulak txertatzea

Gizarte-klausulak lehiaketako prozedurako fase guztietan sar daitezke (prestatzean, esleitzean eta gauzatzean) eta gizartearen eta ingurumenaren alorretako hainbat gai aplikatu daitezke batera. Koadro honetan faseak eta irizpide motak ikus daitezke. Azken horiek ez dira zerrenda itxi bat; aitzitik, eguneratzen doaz. Hala, geroz eta ohikoagoak dira gardentasun fiskalarekin lotutako beste klausula batzuk, bai eta ekonomia sozial eta solidarioa sustatzearekin edo ETEek eta enpresa mikro eta txikiak kontratu publikoak eskuratzeko aukera izatea bultzatzearekin zerikusia dutenak ere.



B. Kontratu erreserbatua eta merkatu-erreserba

Kontratu erreserbatua da legezko figura zehatz bat, zeinak berekin baitakar kontratu publiko baten lehiaketan enpresa-ekimen jakin batzuk soilik izatea parte hartzeko aukera –eta, beraz, esleipendun suertatzekoa–. Esku artean dugun kasuan, honako hauei buruz ari gara: Enplegu Zentro Berziak (EZB), 44/2007 Legeak¹ araututako Laneratze Enpresak (LE) eta babestutako enplegu-programak, baldin eta EZBetan, LEetan edo babestutako enplegu-programa horietan diharduten langileen % 30 desgaitasuna badu edo gizarte-bazterkeria egoeran geratzeko arriskuan badago.

Merkatu-erreserba ez da definizio juridiko bat, bere horretan; aldiz, kontratu erreserbatua modu estrategikoan, zenbatuan eta planifikatuan erabiltzen denean ekartzen dugu hizpidera termino hori. Hau da, administrazio publiko batek kontratu publikoak esleitzeko aurrekontu osoaren ehuneko bat kontratu erreserbatu bidez esleitzea

¹ Laneratze Enpresak: figura zehatz bat da, abenduaren 13ko 44/2007 Legean (laneratze-enpresen araubidea erregulatzen duena) aitortua: “Laneratze Enpresatzat hartuko da legez eraturako merkataritza-sozietate edo sozietate kooperatibo oro, baldin eta, alor horretan eskudundutako erakunde autonomikoek behar bezala kalifikatuta, ondasun eta zerbitzuak ekoizteko jarduera ekonomikoak gauzatzen baditu, edozein direla ere, bere xede sozialaren helburua betetzeko; hain zuzen, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak gizarteratzea eta horiek lanerako eta gizarterako prestatzea, enplegu arruntera igarotzeko bide gisa”.

erabakitzen duenean. Horrela, babespeko merkatu bat sortzen da LEntzat eta EZBentzat, horiek mantentzea eta haztea errazte aldera. Kontratu publikoen araudiak sektore publikoko erakunde guztiak behartzen ditu gutxieneko kontratu publiko jakin batzuk erreserbatzera, LEi eta EZBei emateko.(3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko. Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena, 5. xedapen gehigarria; honako honek aldatu zuen: 31/2015 Legeak, irailaren 9koa, autoenpleguari buruzko araudia eguneratzen eta aldatzen eta lan autonomoa eta ekonomia sozialekoa sustatzeko eta bultzatzeko neurriak hartzen dituenak).

C. Eredu integralak

Instrukzio, akordio, ordenantza edo zirkular lotesle batez hornitzea; haren bidez, nahitaezkoa izango da kontratu publiko guztietan gizarte-klausulak sartzea.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Kontratazioaren Behatokia, Zaragozako Udala**

Kontsultarako talde bat da, eta barne hartzen ditu udaleko talde politikoak, zerbitzuez arduratzen diren udaleko teknikariak, hiriko gizarte-eragileetako ordezkariak eta udalak berak kontratatutako enpresa nagusietako atal sindikale-tako ordezkariak. Zerbitzu publikoek kudeatutako udal-kontratu publikoen jarraipena egitea du helburu, kontratu horiek gauzatzeko baldintzak gardenagoak izan daitezen, eta hirietako zerbitzuen kalitatean eta eraginkortasuneko hel-

buru ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari buruzkoak betetzean sakondu dadin. Udal-kudeaketaren gardentasuna indartzeko tresnatzat hartzen da; horretarako, parte hartuzko prozesu bat erabiltzen da. Alde batetik barnekoa da, udal-zerbitzuekin parte hartzekoa; bestaldetik, eta aldi berean, baita kanpoko ere, hiriko erakundeekin parte hartzekoa. [<http://bit.ly/2d6d1Zq>]

.....• **Arauak eta jarraibideak**

Nafarroako Gobernua: 1/2015 Foru Legea, urtarrilaren 22koa, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena, administrazioko klausulen pleguetan gizarte-klausulak sartzeko. [<http://bit.ly/2dlKxZs>]

Gipuzkoako Foru Aldundia: 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeko. [<http://bit.ly/2dk7jU5>]

Gasteizko Udala: Gasteizko Udalaren jarraibideak kontratazio sozialki arduraturako eta iraunkorrerako. Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 25ean onartua. Udalbatzak aho batez berretsia, Erakunde Adierazpen baten bidez, 2015eko azaroaren 6an. [<http://bit.ly/2cLGeYg>]

Madrilgo Udala: 1/2016 Instrukzioa, Madrilgo Udaleko, haren erakunde autonomoetako eta udal-sektore publikoko erakundeetako kontratuetan gizarte-klausulak sartzeari buruzkoa. [<http://bit.ly/2dSZJhT>]

.....• "Treatu" Programa, Iruñeko Udala

2015ean abiarazitako ekimena, enpresa txikiei eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeei tokiko administrazio publikoaren kontratazio publikoari sartzeari errazteko. Kontratazio kontuetan dokumentuak bateratzen ari dira, horiek sinpleago eta ulergarriago bihurtzeko. Era berean, gizarte- eta ingurumen-klausulak sartzen ari dira, eta kontratuak enpresentzat ulergarriagoak izango diren ataletan zatitzen. Lan-egitasmoan, enpresa txikiak lan praktikoen tailerren bidez prestatzea eta trebatzea da jarduteko ardatzetako bat. Modu horretan lehiaketak simulatzen dira, eta, horietan, parte hartzen duten erakundeek euren eskaintzak aurkez ditzakete, eta, udal-zerbitzu juridikoen eskutik, prozeduraren urrats guztiak ezagut ditzakete. Tailer horietan askotariko informazioa ematen da honako hauei buruz: nola egin kontratuak administrazioarekin, nola aurkeztu eskaintzak, zeintzuk diren ohiko akatsak, zer arau dauden, zer irizpide kaudimenari edo esleipenari buruz, eta zer agiri kontratazio publikoaren arloan. [<http://bit.ly/2dlxSoG>]

.....• "Erosketa Soziala" tresna sorta, Ipar Irlanda

Kit honen xedea da kontratatzeke arduraren duten erakundeei laguntza ematea, beren kontratuen bitartez gizartearentzat eta tokiko ekonomiarentzat onurak sor ditzaten. Strategic Investment Board (SIB) agentziak garatu du, kontratu publikoetan gizarteari buruzko alderdiak txertatzeko gida praktikoa gisa. SIB agentzia gobernuak sortu zuen, Ipar Irlandako sektore publikoari azpiegitura-programa handiak eskaintzen laguntzeko. Agentzia horrek 20 mila milioi euroko inbertsio-estrategia garatu eta taxutu du Ipar Irlandarako. [<http://www.buysocialni.org>]

[gehiago jakiteko]

ÁLVAREZ DE EULATE BADA, Leire eta Santiago LESMES ZABALEGI (2014): *Guía de Contratación Pública Socialmente Responsable*. REAS Euskadi, Bilbo.

[<http://bit.ly/2iZICNy>]

- (2015): *Guía para la aplicación de contratos reservados para empresas de inserción*. REAS Euskadi, Bilbo.

[<http://bit.ly/2h18Nyn>]

[www.contratacionpublicaresponsable.org] Webgune honen helburua da erraztasunak ematea administrazio publikoek beren kontratuetan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzeko. Horretarako, askotariko materiala eskaintzen du: gai desberdinetako klausula zehatzen adibideak, jadanik esleitutako dokumentuen adibideak, jarraibideak eta gidak.

EUROPAR BATASUNA: 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa.

ESPAINIAKO ESTATUA 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA: 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Jaurkitzako Kontseiluak hartutako erabakia argitzeko dena. Gaia: Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzea (116. EHAA, 2008ko ekainaren 19koa).

REAS Euskadi eta GIZATEA (2010): *Cláusulas sociales, herramientas al servicio de la inserción sociolaboral*. REAS Euskadi, Bilbo. [<http://bit.ly/2i8WjoE>]

1.2.

Parte hartuzko aurrekontu publikoak

[zertarako]

Kultura demokratikoan sakontzeko eta gizarte-ehuna indartzeko, kogestioa eta politika publikoen lehentasunak definitzeko aukera emate aldera • Gastu publikoaren kudeaketaren gardentasuna eta eraginkortasuna hobetzeko, eta parte-hartzea eta baliabide publikoen erabileraren kontrola sustatzeko.

[nola]

Parte hartuzko aurrekontuak hiriaren parte hartzerako eta kudeaketarako tresna bat dira; horien bitartez, herritarrek udal-baliabideen zati baten erabilerari buruz proposamenak egin eta erabakiak har ditzakete.

Hainbat eredudaude:

- Elkarteko oinarria dutenak: parte-hartzea elkarteen bidez gertatzen da.
- Banakako oinarria dutenak: auzotarrek beren izenean parte hartzen dute, prozesu osoan.
- Oinarri mistoa dutenak: herritarrek banaka nahiz elkartuta parte hartzen dute.

Edozein ereduri buruz ari garela ere, hainbat irizpide komun daude funtzionatzeko:

- Marko arautzaile, ireki eta autoeratzailer batean antolatzen da, egituratutako metodo baten arabera. Antolaketa-arauak modu kolektiboan erabakitzen dira eta irekiak dira, eta talde berrien parte-hartzera edo testuinguru berrietara egokitu daitezke.
- Hiritar guztiek har dezakete parte.
- Prozesu honekin batera, prestakuntza eta informazio neurriak hartzen dira.
- Erabakiak hartzeko prozesu batekin lotzen da; beraz, politikak lehenestera dago bideratuta, eta ez jadanik diseinatuta dauden politikei buruzko erabakiak hartzera.
- Komunitatearentzat interesekoak diren auzien inguruan egituratzen da.

- Interes eta behar anitzak daudela onartzen da.
- Gatazken adierazpena errazten da.
- Prozesuaren emaitzak etengabe eta elkarrekin ebaluatzen dira.

Orokorrean, bi fase handiren inguruan antolatzen dira: lehen fase edo txanda bat, biltzar bidezko demokrazia zuzeneko mekanismoetan oinarritua, non herritarrek hainbat batzar edo bileretara joaten baitira, eta beren beharrak eta lehentasunak azaltzen baitituzte. Biltzarrotan, bigarren fase batean herritarren interesak adieraziko dituzten pertsonak aukeratzen dira; ondoren, fase horretan, behin betiko lehenesten dira aurrekontuen alorrean abiarazi behar diren ekintza publikoak.

Nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela prozesu horietan aintzat hartzea genero ikuspuntua, hainbat mekanismoren bitartez: besteak beste, bigarren txanda zehazten duten partaidetza-batzordeak parekideak izatea; zenbait neurri hartzea, emakumeek prozesuan gehiago parte har dezaten (esaterako, hartzaindegiak, ludotekak... ezartzea), eta hizkera inklusiboa erabiltzea.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Porto Alegre (Brasil)**

Porto Alegren, prozesuan aukeratutako ordezkariak Parte Hartuzko Aurrekontuen Batzordea osatzen dute. Batzordekideek guztizko aurrekontuan eragiteko aukera dute, Udal Ganberan aurkeztua izan aurretik. Herritarrekin egindako batzarretan inbertsio-baliabideen % 100 eztabaidatzen da; hau da, aurrekontu osoaren % 10 baino gehiago.

[<http://bit.ly/1LYKqob>]

.....• **Gipuzkoako Foru Aldundia**

Esperientzia pilotu baten ondoren, 2015ean martxan jarri zen ekimen hau Bidasoaldea, Oarsoaldea eta Tolosaldea eskualdeetan. Herritarrek diputazioari bidaltzen dizkiote beren proposamenak, Internet bidez nahiz etxe guztietara bidaltzen den inprimaki bat betez. Proposamen horiek eskualde guztia hartu behar dute barne, foru-eskumenekoak izan behar dute eta pertsonengan eragin behar dute. Bigarren fase batean eskualde-batzarrak antolatzen dira, proposamenak aukeratzeko. Aukeraketa egindakoa, teknikari talde batek aztertzen ditu proposamenok, ekonomikoki eta juridikoki bideragarriak diren jakiteko. Eta, azkenik, iragazki hori gairak dituzten eskualde guztietako batzar irekietan aurkezten dira. Eskualde bakoitzak bi milioi euro izan ditu, 4 urtetan inbertitzeko. [<http://bit.ly/2dt7hZn>]

[gehiago jakiteko]

FRANCÉS GARCÍA, Francisco eta Antonio CARRILLO CANO (2008): *Guía Metodológica de los Presupuestos Participativos*. Colectivo Preparación, Alicante. [<http://bit.ly/2czPkYa>]

[www.presupuestosparticipativos.com] Webgune honetan, parte hartuzko aurrekontuen esperientziekin lotutako agiriak, baliabideak eta albisteak jasotzen dira.

GIZA KOKALEKUENTZAT NAZIO BATUEN PROGRAMA -NBE-HABITAT- (2004): *¿Qué es y cómo se hace el Presupuesto Participativo? 72 respuestas a preguntas frecuentes sobre Presupuestos Participativos Municipales*. Colección de recursos sobre Gobernanza Urbana. Quito, Peru. [<http://bit.ly/1LYKqob>]

1.3.

Auditoretza Soziala

[zertarako]

Tokiko administrazioek beren gizarte-eraginkortasuna eta jokabide etikoa ebaluatu dezaten, beren helburuekin loturan; horrela, emaitza sozialak eta solidarioak hobetzeko aukera izango dute, eta emaitza horien berri eman ahalko diete beren jarduerarekin engaiatutako pertsoneri, baita herritarrei ere, oro har.

[nola]

Auditoretza sozialak, administrazio publikoen alorrean, gobernagarritasun demokratikoa, gardentasuna eta kontu-ematea indartzeko tresna gisa ulertzen dira.

Auditoretza Sozialerako zenbait gidaliburuk, horien artean 2011ean Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) argitaratutakoak, auditoretza egiteko fase batzuk identifikatzen dituzte.

Hasiera-fasea

- Helburu zehatz bat definitzea.
- Zer ikuskatu definitzea: politikak, legeak eta programa edo planak, adibidez, inbertsioak, jarduteko programak, pobreziaren aurkako planak eta abar; azpiegiturak edo obra publikoak; zerbitzu publikoak edo zenbait alorretako (esate baterako, osasuna, hezkuntza, etxebizitza edo giza eskubideak) programa edo politiketako gai zehatzak.
- Arduratuko den pertsona edo erakundea definitzea; hau da, prozesuan inplikaturako aktore nagusiak nor izango diren esatea.
- Prozesua diruz hornitzea.

Plangintza-fasea

- Hautatuko den estrategia eta erabiliko diren metodologia eta tresnak aukeratzea.
- Ekintza plan bat diseinatzea, informazio honekin: nola koordinatuko diren proposaturako ekintza guztiak, nortzuk izango diren arduradunak, zein informazio mota

jaso behar den, administrazioaren zein alorri, programari edo politikari ekin behar zaion eta zeintzuk diren epeak.

- Herritarrek auditoretza sozialeko prozesuetan parte hartzen dutenean, garrantzitsua da administrazioetan erabakiak hartzeko prozesuak nola diren jakinaraztea, eta tartean dauden agente guztien artean elkarlaneko ikuspegiak eta praktikak hartzea.

Betearazpen-fasea

- Auditoretza diseinatu den planaren arabera egitea.
- Informazioa jasotzea eta aztertzea.
- Emaitzak zabaltzea eta horien inguruan eztabaida publikoa sortzea.
- Auditoretza prozesua instituzionalizatzea eta haren iraunkortasuna bermatzea, epe luzera emaitzak izateko.

Itxiera-fasea

- Auditoretza sozialaren prozesua ez da informazioa jasotakoan eta aztertutakoan amaitzen; ostera, beharrezkoa da hauteman diren egoeretara egokituko diren neurriak hartzea. Mota honetako edozein prozesuren gakoa emaitzak aldaketa jasangarri bihurtzea da.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Reas Euskadiren Auditoretza Sozialeko Prozesua**

Hemen, REAS Euskadi buru duten Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeek gauzatutako Auditoretza Sozialeko prozesuaren esperientzia nabarmendu nahi dugu. Izan ere, prozesu horrek bateratu egiten ditu sektorearen eta erakunde bakoitzaren errealitateak eta –Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak erabiliz–erakundeak hobetzeko prozesuak. Printzipio horiek Ekonomia Solidarioaren Gutunean jasotzen dira. Kudeaketa-tresna horrek ekonomia solidarioa ezaugarritzeko aukera ematen du: erakundeen eragina neurtzen du, helburu eta balioen, kudeaketaren eta jardueraren arabera; erakundearentzat ikasketak eta hobekuntzak sortzen ditu eta haren identitatea eta komunikazioa (barnekoa zein kanpoko) indartzen ditu. Prozesu horretan, auditoretza-prozesua egiten duten erakundeetako kide guztiek hartzen dute parte. Jarraibide sorta bat da, eta beren jarduera Ekonomia Sozialaren printzipioetan oinarritu nahi duten instituzio publikoen jardueren errealitatera egokitu daiteke. [www.auditoriasocial.net]

.....• **Guztion Ongiaren Udalerriak**

Udalerri batek guztion ongiaren udalerriekin bat egin nahi badu, Guztion Ongiaren Ekonomiaren aldeko babes-adierazpen bati atxiki behar zaio, eta gutxienez 5 jarduera haue-tako bat bermatu behar du:

1. Bere eremu administratibo eta ekonomikoan guztion ongiaren balantze bat egitea.

2. Tokiko enpresei Guztion Ongiaren balantze bat egiteko gonbita luzatzea.
3. “Udalerriko Guztion Ongiaren Indize” bat garatzea, partaidetza bidez.
4. “Udal-hitzarmen ekonomiko” bati bide eman eta sustatzeko proiektu bat egitea, herritarren parte-hartzearekin.
5. “Guztion Ongiaren” eskualde batekin bat egitea.

Balantzea egiteko, “udaleko Guztion Ongiaren Matrize” bat proposatzen da; matrize horrek 5 analisi-kategoria zehazten ditu, giza duintasunarekin, solidaritatearekin, iraunkortasun ekologikoarekin, justizia sozialarekin eta parte-hartze demokratikoarekin eta gardentasunarekin lotuak. Halaber, 5 kontaktu multzo finkatzen ditu: erakunde hornitzaileak, finantzatzaileak, udaleko langileak, herritarrak eta beste udalerriak, eta gizartearen eta balioak sustatzearen alorra. [<http://bit.ly/2dxriMV>]

[gehiago jakiteko]

[www.auditoriasocial.net] Webgune honetan gizarte-auditoretzarekin lotutako berriak eta baliabideak aurki ditzakegu.

BERTHIN, Gerardo (2011): *Guía práctica para la auditoría social como herramienta participativa para fortalecer la gobernabilidad democrática, transparencia y rendición de cuentas*. Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD), Panama. [<http://bit.ly/2cylize>]

1.4.

Lurraren kudeaketa iraunkorra eta ez-espekulatiboa

[zertarako]

Behar adinako elikagaien produkzio-sistema bat bermatzeko, nekazartzako bizi-baldintzak hobetuko eta giro ona bultzatuko dituena, eta geure hiri-herriei beren ingurune naturalean hobeto txertatzen lagunduko diena • Zenbait disfuntzio larri saihesteko: lurraren kudeaketaren inguruko politika liberalak sortzen dituztenak, merkatu irizpideak soilik erabiliz, eta beren ekintzek gizartean eta ingurumenean duten eragina kontuan hartzen ez dituztenak.

[nola]

Lurra ondasun urria da, eta borroka asko daude inguruan biran dituen interes ugariak direla-eta: batetik, kontzentrazioan, intentsifikazioan eta espekulazioan oinarritutako nekazaritza-industriako ereduak, eta, bestetik, urbanizazioko, azpiegitura handietako, garraiobideetako, estraktibismoko eta abarreko proiektu garapenezaleak. Horiek horrela, beharrezkoa da hainbat mekanismo finkatzea, lurra modu espekulatiboan erabil dadila saihesteko eta iraunkorra ez den hiri-eraikuntzako ereduak ingurumenaren gainean dituen eraginak gutxitzeko. Lurra zaindu eta babestu beharreko ondasun erkidetzat ulertuta, eta ez merkantzia, ustiapene-ko baliabide edo ekoizpen-faktore soiltzat.

Bizilur eta Etxalde elkarteek egindako “Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten” gidan, lurra babestuko duten politika publikoak eraikitzeko hainbat proposamen egiten dituzte:

- Jabetza pribatuari ematen zaion lehentasunari aurre eginez, ondasun naturalak (bereziki lurra) erabiltzeko eta kudeatzeko modu alternatibo eta kolektiboetara jotzeko planak prestatzea.
- Lurraldeak eta udalerrriak antolatzeko planak finkatzea, elikadura-burujabetzaren ikuspegia harturik oinarri: erabakitzeko autonomia izatea, herritarrek parte hartzea eta sortzea, eta agroekologia eta nekazaritzako ekonomia erdigunean jartzea, iraunkortasun-berme gisa.
- Hirietako urbanizatzeko hazkundea jasangarriki mugatuko duten planak finkatzea; horretarako, eraztun edo gunek berdeak eta parkeak sortu eta babestuko dira halakoetan.

- Nekazaritzarako lurak berreskuratzea, birsailkatzea eta dibertsifikazio-prozesuak erabiliz. Erreserbako neurri batzuk ezartzea, lur eremu batzuk elikagaien ekoizpenerako gordetzeko, eta, horrela, historikoki horiek eskuartzeko aukera izan ez duten sektoreei (emakumeak eta gazteak) sarbidea ematea.

Mugimendu ekologistek hiri-plangintzan iraunkortasun-irizpideak edo -adierazleak txertatzea proposatzen dute; esaterako, aztarna ekologikoa, materialen beharra, hiri-eremuetako aniztasun sozial eta ekonomikoa, eta irizpide sozialak. Ekologistek sozialki iraunkorra izango den ekonomiako lege bat sortzeko egin dituzten proposamenen artean (2010), besteak beste, zenbait neurri martxan jartzekoa dago. Helburua da landa-lurzoruaren azalera handiagoa okupatzea geldiarazten laguntzea, hiri-hazkundea udalerrri bakoitzaren benetako premietara mugatuz eta lehendik zegoen hiri-lurzoruaren erabilera lehenetsiz; horrez gain, ahal bezainbeste saihestea energia eta ur kontsumo handia eskatzen duten azalera handiko etxebizitza eta lorategietan oinarritutako hirigintza-ereduak.

Ekonomia solidarioaren mugimendua, REAS Sareen Sarearen bitartez egituratua, landa-lurzoruaren eta hiri-eremuen espekulazioaren aurka eta gizarte-aprobatxamenduaren alde egiteari buruzkoa da, jarduera ekonomikoa sozial eta komunitarioa gauzatzeko.

Garatu beharreko neurrietako batzuk, batez ere hiri-eremuetan, zuzeneko lotura izan behar dute etxebizitzarekin: kasurako, alokairua eta birgaitzea sustatuko duten neurriak ezartzea, etxebizitzaren jabetzaren eta eraikuntza berriaren orde, edo etxebizitza sozialeko ondare publiko bat sustatzea, biztanleriaren sektore kalteberenei ostaturia bermatzeko. Bes-

te proposamen bat lurzoria etxebizitza-kooperatiboetarako lagatzea da.

Toki esparrutik joratu daitezkeen ekintzen artean, besteak beste, honako hauek daude: hiri-baratze agroekologikoak garatzeko proiektuak egitea, besteak beste gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak, emakumeak eta gazteak lehenesteko irizpideekin; titulartasun publikoko lurralde edo eremuetako erabilera kolektiboa sustatzea; udal-programen bitartez kudeatutako lurrak erabiltzeko irizpide agroekologikoak txertatzea; hiri-eremuan infra-erabilitako azpiegitura eta guneak identifikatzea eta horiek jarduera sozialak nahiz komunitarioak egiteko edo jarduera ekonomiko solidarioak gauzatzeko lagatzea.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien Nekazaritza Lurren Funtza**

Bizkaiko Foru Aldundiak programa bat sustatzen du bere Nekazaritza Sailaren bitartez, lehendik ere bazeuden lurretan nahiz lur berrietan nekazaritzan jardun nahi duten pertsonen lurrak emateko, gazte eta emakumeak gehitzea lehenetsita. Programa Basalan sozietate publikoak eta Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoak kudeatzen dute. Jarduerok Balioztatzeko eta Prezioak Jartzeko Batzorde Teknikoak ezarritako errenta baten truke gauzatzen dira, prezioen espekulazioa galarazteko.

[\[http://bit.ly/2cXUo47\]](http://bit.ly/2cXUo47)

Gipuzkoako Foru Aldundiak Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren bitartez susta-

tzen du programa hau, eta Behemendi Landa Garapeneko Elkartearen bitartez kudeatzen da. Nekazaritzarako balia daitezkeen lursailen erabilera eta ustiapena erregulatu nahi ditu, helburu bikoitzarekin erregulatu ere: batetik, horiek bertan behera utz daitezela saihestea eta, bestetik, lurra nekazaritzarako, abeltzaintzarako, basogintzarako, natura eta ondarea zaintzeko edo gizartearentzat interesgarriak diren beste erabilera batzuetarako behar dituztenen eskura jartzea. [\[http://bit.ly/2cSMPPPI\]](http://bit.ly/2cSMPPPI)

.....• **Funtzio Anitzeko Eratzun Berdea, Gasteizko Udala**

Udalak hiriaren inguruan funtzio anitzeko eratzun berde bat eratzeko proposamena luzatu du, asmo honekin: bertako ingurumenaren kalitatea hobetzea, bertako biztanleei onura ekonomiko eta sozialak ekartzea, natura hirian txertatzea eta nekazaritzako lursailak Gasteizen birika eta iragazki berde gisa balio dezatela eragitea. Diseinatutako instalazioei esker, naturarekin harremanetan egiteko jardueren garapena sustatu da, aisialdiarekin, jolasarekin, prestakuntzarekin eta ingurumenarekiko sentikortzearekin loturan. Orobat, hezkuntza-jarduerak egin dira, ingurumenarekin zerikusia duten enplegu-sektoreetan, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat. Oso merkea da horiek mantentzea, planteamenduak ingurumenarekiko koherentziaz egin direnez.

Eratzun berdera hiriaren erdigunetik sartzten da, oinezko bideen bitartez edo kutsatzen ez duten moduen bitartez.

[\[http://bit.ly/2dcBRU3\]](http://bit.ly/2dcBRU3)

.....• **Hiri-Baratzeak**

Hainbat udaletan erabili dituzte nekazaritzarako balioa duten lur publikoak hiri-baratzeak sortzeko eta, horrela, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, aisialdi-guneak sortu eta udalerriko gizarte-bizitza dinamizatzeko, gizartearen kohesioa eta elkartasuna handitzeko, ingurumen-balioetan sentikortu eta horiek zabaltzeko, hezkuntza-eremuak sortzeko eta abarretarako. Lursailak deialdi publikoen bitartez eskaini ohi dira, norgehiagoka bidez, eta ohikoa da horietan irizpide sozialak ezartzea, zenbait gune arrisku-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran daudenentzat, emakumeentzat, langabetuentzat, erretirodunenentzat, gazteentzat eta abarrentzat gordetzeko.

Nabarmentzekoa da Vitoria-Gasteizko gizarte-etxeetako hiri-nekazaritza ekologikoko programa: Kiribilore Permakultura Elkarteak 2010ean sortua, 2015etik Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (IGI) kudeatzen du. Parte hartzeko eta erakusteko gune batzuk dira, nekazaritza ekologikoa, elikadura osasungarria eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzeko. Ikastegiak, bere programa izateaz gain, gizarte-etxeetan egiten diren jardueretarako baliabide gisa ere balio du. Programa hori ez ezik, hainbat baratze sustatzen ditu IGIk: Eratzun Berdeko udal-baratzeak, eskola-baratzeak, Falerina lorategiko baratzea (zeinaren bitartez hornitzen baita udalaren jabetzako ostalaritza-zentroko sukaldea, Montehermoso kulturetxean kokatua), Zabalortu (Zabalganako auzotarrek kudeatutako hiri-baratzearen proiektua) eta unibertsitate-baratze ekologiko bat. [<http://bit.ly/2clYgbK>]

[gehiago jakiteko]

BIZILUR, ETXALDE eta EHNE Bizkaia (2015): *Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten Elikadura burujabetza abiapuntu, tokiko politika publikoak eraikitze zentzuzko proposamenak*. [<http://bit.ly/2dB59JU>]

EKOLOGISTAK MARTXAN; GREENPEACE; WWF; AMIGOS DE LA TIERRA eta SEO BIRDLIFE (2010): *Proposamen ekologistak ekonomia benetan iraunkorreko Lege baterako*. [<http://bit.ly/2doqlyp>]

EUSKO JAURLARITZA; UDALSAREA; IHOBE (2003): *Hirien plangintzan aplikatu beharreko iraunkortasun-irizpideak*. Ingurumen Estrategiaren Agiriaren Saila, 22. zk. [<http://bit.ly/2dcBRU3>]

1.5.

Gizartearen edo ingurumenaren mesederako jardueretarako pizgarriak

[zertarako]

Udalerrian gizarteko nahiz ingurumeneko hobekuntzak sustatzeko.

[nola]

Toki administrazioek tributuak ezartzeko bigarren mailako ahala dutenez, tokiko eremuan martxan jarri daitezke horrelako zenbait neurri, ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko eta gizarterako nahiz ingurumenerako mesedegarriak izango diren jarduerak egiteko. Zerga horiek arautzen dituzten foru-arauek tokiko administrazioek erabil ditzaketzen zenbait neurri ezartzen dituzte:

Ondasun higiezinaren gaineko zerga: Arabako eta Bizkaiko araudietan, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria ezartzeko aukera xedatzen da, eguzkitik datorren energiaren beroa edo elektrizitatea ustiatzeko sistemak ezarri dituzten hiriko higieziinei dagokienez.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga: hiru lurralde historikoetan, salbuetsita daude irabazi-asmorik gabeko jarduerak gauzatzen dituzten erakundeak (elkarteak eta fundazioak), etekin ekonomiko urriko jarduerak edo horien modalitateak gauzatzen dituztenak. Horrez gain, hoberiak ezartzen dira kontratu mugagabeko langileen batezbestekoa gehitu duten subjektu pasiboen kuotetarako eta, energia erabili edo sortu ere, energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioen nahiz kogenerazio-sistemen bitartez erabiltzen edo sortzen dutenentzako. Araban, zehazki, hoberi bat ezartzen da subjektu pasiboentzat ere, baldin eta, lantokira joan-etortzean sortutako energia-kontsumoa eta isuriak murrizteko asmoz eta garraibide eraginkorragoen erabilerara sustatzeko asmoz –adibidez, garraio kolektiboa edo partekatua–, beren langileentzako garraio-plan bat ezartzen badute. Araban, halaber, hoberi bat zehaztu dute kooperatibetarako eta horien barruko batasun, federazio eta konfederazioetarako; Bizkaian, aldiz, % 95erainoko hobaria zehaztu dute eraldaketarako nekazaritza-sozietateentzat.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: kuotaren % 75era arteko hobaria aurreikusi dute ibilgailu jakin batzuen titularrentzat, ibilgailuek erabiltzen duten erregai mota edo dituzten motorren ezaugarriak direla-eta ingurumen-inpaktu txikiagoa dutela jotzen bada. Bizkaian eta Gipuzkoan, ibilgailu elektrikoetarako % 95erainokoa izan daiteke hobaria. Gipuzkoako Lurralde Historikoak udalerritik 160 kilometrorra dauden fabrikatzaileetatik datozen ibilgailuei aplikatzen die % 95eko hobaria, baldin eta eremu horren barruan ibilgailu elektriko hiru fabrikatzaile baino gehiago badaude.

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga: Bizkaian, hoberi hauek daude ezarrita:

- Nahibadako hoberi baten aukera, % 95erainokoa, interes bereziko edo udal-erabilerako izendatutako eraikuntza, instalazio eta obretan, izendapena justifikatzen duten baldintzak biltzen badituzte: hots, sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak, enplegua sustatzekoak eta behin-behinean ostatu ematekoak.
- Halaber, % 95erainoko hobaria Eguzkiaren energiatik lortutako bero eta elektrizitatea ustiatzeko sistemak dituzten eraikuntza, instalazio eta obretarako.
- % 50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitzetarako, eta % 95erainokoa etxebizitza sozialak badira.
- % 90eko hobaria dibertsitate funtzionala duten pertsonen mesederako sarbide- eta bizigarritasun-baldintzak dituzten obra, eraikuntza eta instalazioetarako.

Lurren Balioaren gehikuntzaren gaineko zerga: zerga honetatik salbuetsita geratuko dira ongintzako edo irakas-

kuntza-ongintzako erakundetzat hartutakoak; alegia, Gurutze Gorria eta tankerako erakundeak.

Tasak eta ekarpen bereziak: tasak jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ezarriko dira, bai eta toki-eskumeneko administrazio-jarduerak egiteko edo zerbitzu publikoak emateko ere. Kontribuzio bereziak, obra publikoak egiteagatik edo tokiko zerbitzu publiko berriak jarri edo lehenagokoak zabaltzeagatik onuraren bat lortzen bada edo ondasunen balioa handitzen bada.

Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekimenak arautzeko, tokiko administrazioek beste tresna batzuk dituzte, nolabaiteko marjina ematen dietenak: tokiko erakundeen erregelamendu-ahalarekin lotutakoak (arauetako gaiak askotarikoak izan daitezke), elkarlanerako hitzarmenak, baimenak, lizentziak eta komunikazioak ematea, lurzorua eta etxebizitzaren ondare publikoak eta guztien intereserako eta/edo ahalmen eraldatzaileko proiektuetarako jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Kotxea garajeen, Bergarako Udala (Gipuzkoa)**

2014an martxan jarritako programa bat da eta hainbat helburu ditu: ibilgailuak garajeetan edo aparkalekuetan sartzea, aparkaleku publikoetan toki libreak uztea eta kotxerik gabeko mugimenduei bide ematea, herrian bertako mugikortasunaren mesedetan. Hirigunean garajeak dituztenek OHZren % 75eko hobaria izango dute, baldin eta ez badute kotxea beren garajeari dagokion zonaldeko aparkaleku publikoetan uzten. Hobari hori dirutan edo bertako dendetan truka daitezkeen erosketa-txarteletan jaso daiteke.

[<http://www.bergara.es/eu/node/2605>]

.....• **Zaborren tasaren hobaria, Erreneriako Udala (Gipuzkoa)**

2016an, Erreneriako udalak hobari bat ezarri zuen zaborren tasan, materia organikoa modu arduratsuan birziklatzen duten etxeentzat. Hortaz, konpost komunitarioa edo etxe-ko konposta egiten duten etxeek % 25eko hobaria dute. Udalak bosgarren edukiontzia bitartez materia organikoa gaika biltzeko ezarri duen programan modu aktiboan parte hartzen dutenek, aldiz, % 5eko hobaria dute.

[<http://bit.ly/2cMXE8e>]

[gehiago jakiteko]

Ondasun higiezinaren gaineko zerga: Foru-arauak: Arabakoa, 42/89, uztailaren 19koa; Bizkaikoa, 9/89, ekainaren 30ekoa; eta Gipuzkoakoa, 13/1989, uztailaren 5koa.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: Foru-arauak: Arabakoa, 43/89, uztailaren 19koa; Bizkaikoa, 6/89, ekainaren 30ekoa; eta Gipuzkoakoa, 14/1989, uztailaren 5koa.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Foru-arauak: Arabakoa, 44/89, uztailaren 19koa; Bizkaikoa, 7/89, ekainaren 30ekoa; eta Gipuzkoakoa, 14/1989, uztailaren 5koa.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: Foru-arauak: Arabakoa, 45/89, uztailaren 19koa; Bizkaikoa, 10/89, ekainaren 30koa; eta Gipuzkoakoa, 15/1989, uztailaren 5koa.

Lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga: Foru-arauak: Arabakoa, 46/89, uztailaren 19koa; Bizkaikoa, 8/89, ekainaren 30ekoa; eta Gipuzkoakoa, 16/1989, uztailaren 5koa.

1.6.

Jarduera sozialak eta komunitarioak egiteko guneak lagatzea

[zertarako]

Gutxi erabilitako gune eta ekipamenduen erabilera gehitzeko, tokiko garapena sustatzen duten eta sozialki eraldatzaileak diren jardueren bidez • Ekonomia Sozial eta Solidarioko enpresak eta ekimenak gauzatzen laguntzeko, azpiegituren lagapen bidez.

[nola]

Garrantzitsua da gune jakin batzuk lagatzea, Ekonomia Sozial eta Solidarioko jarduerak gauzatzea errazten duelako, azpiegiturez hornitzen duten heinean; gainera, ikusgaitasunari dagokionez, garrantzi sinboliko handia izan dezakete, tokian tokiko izaera zehatza zein den.

“Marco Común I.4 Espacios de gestión ciudadana en Madrid” dokumentuan, Madrilgo Hiri Eremuen Sareak (Red de Espacios Ciudadanos, REC) herritarrek autokudeatzeko guneak lagatzeko proposamen bat egiten du, Madrilgo auzoetako ondasun erkideen garapena sustatzeko asmoz. Proposamen horretan azaltzen dute ezen, guneon nolokotasuna agente sustatzaileek baldintzatzen badute ere, esparru komun bat ezar daitekeela esperientzia guztiek zenbait baldintza bete ditzaten:

- Kudeaketa anitza, irekia eta askea izatea, alegia, edozeinek izatea gunean parte hartzeko aukera, bai hura eratzen, bai kudeatzen. Bi printzipio hauei jarraikiz parte hartu behar da: horizontaltasuna eta askotariko jardueretik irekitasuna.
- Irabazi-asmorik gabekoak izan behar dute, bai ekimenez, bai gauzatuko diren jarduera eta proiektu guztiek.
- Jarduera guztiek hiri-ekologiaren, ekonomia sozial eta solidarioaren, kode irekiaren eta kultura librearen printzipioei jarraitu behar diete.
- Parte-hartzean alborapenik eza bultzatu behar dute, generoarekin, adinarekin eta edonoren egoerarekin loturan, eta guneetarako irisgarritasun fisikoak erabatekoa izan behar du.

Gune mota horiek kudeatzeko hainbat formula aztertu ondoren, baterako esparru horrek 3 formula proposatzen dizkigu:

- 1. Autokudeaketa:** herritarrek kudeatutako gune erki-deak, non ekimen baten berezko jarduerak egiten diren. Administrazioak ez du parte hartzen gunearen kudeaketaren ezein alderditan (jarraipenari lotutako aspektuetan salbu).
- 2. Kogestioa:** bai herritarrek bai administrazioek elkarrekin kudeatutako gune erkideak, non ekimen baten berezko jarduerak egiten diren. Ekimena modu guztiz autonomoan gauzatzen da, baina gunearen kudeaketarekin lotutako alderdiak administrazio publikoko eta ekimeneko ordezkariak osatutako mahai batean eztabaidatzen dira, baldintza berdinetan.
- 3. Partaidetzako kudeaketa:** herritarrek kudeatutako ekimenak barne hartzen dituzten udal-kudeaketako gune publikoak. Ekimenaren bitartez kudeatutako guneak partekatu daitezke eta, beraz, baita beste proiektuekin batera kudeatu ere. Udaleko guneen kudeaketaren bidez, bertan egiten diren ekimenen jarduna bultzatu nahi da. Ekimenak gune publikoaren kudeaketan parte hartzen du.

Prozesu horretan, lehen fase gisa, tokiko errealitatearen diagnostikoa egin daiteke, eta hauek jasoko dituen inbentario batekin hasi: gizarte-erakundeetan zer ondasun, baliabide eta zerbitzu erabiltzen diren gutxi edo batera, zer premia dauden lurraldean, eta zer aukera Ekonomia Sozial eta Solidarioa gauzatzeko.

[saiakuntza-bankua]

.....• **"Geltokia" Proiektua, Iruñeko Udala (Iruña)**

Iruñeko Udalak autobus-geltoki zaharra biziberritzeko prozesua jarri du abian, erabiltzen ez diren guneak hiriko erdigune bihurtzeko; hala, ekonomia solidarioa bultzatuko duten jarduerak gauzatzea, tokiko garapena bultzatzea eta bertako produktuek, artisautzak, denda txikiek, lehen sektoreko ekoizleek eta artistek beren lekua izatea bilatzen da.

Ekimen hau Pobreziaren eta Eskasiaren aurkako Foroan jasotako neurrietako bat da. Foro hori, hain zuzen, gizarte taldeekin batera lan egiteko tresna gisa sortu zen.

[<http://bit.ly/1THQTNP>]

.....• **Astra, Kultura Sormenerako Lantegiak, Gernika-Lumoko Udala (Bizkaia)**

Gernika-Lumoko Astra arma-fabrika izandakoan, Euskadiko lehenengo kultura sortzeko lantegia dago. Ondare historiko izendatutako eraikin hori 1916koa da, eta 1998an, enpresak judzialki porrot egin ondoren, bertan behera utzi zuten. 2005ean gunea okupatu egin zuten, eta eraikin aurriratu hori herriarentzat espazio bilakatzeko mobilizazioak hasi ziren. Gernikako Udalak eraikina erosi, eta herriko kultur eta gizartetalden eskuetan utzi zuen haren kudeaketa; batzar batean bilduta, gunearen egituraketa koordinatzeaz arduratzen dira. 2011an, "Sormen Lantegiak" izeneko finantzaketa-programari heldu zioten: Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza bat da, arte-berrikuntzarako aukerak bultzatzen dituzten diziplinarteko proiektuetarako. Programa horren bitartez, obrak egin zituzten eta horrela sortu zen gaur egungo Astra, erabilera askoko gune bat, sorkuntzan, joeretan, ikerketan eta prestakuntzan aitzindari dena.

[<http://www.astragernika.net>]

[gehiago jakiteko]

REC. Red de Espacios Ciudadanos
[www.espaciosciudadanos.org]

REC. Red de Espacios Ciudadanos (2016: Marco Común 1.4, *Espacios de Gestión Ciudadana de Madrid. Esbozo de un marco común para la gestión de espacios destinados a la autogestión ciudadana con el objetivo de fomentar el desarrollo de los bienes comunes en los barrios de Madrid.* [<http://bit.ly/2cnQn8l>])

1.7.

Erantzukizun publikoko zerbitzuak eredu berritzaileetatik kudeatzea

[zertarako]

Gizartearen beharrei eraginkortasunez erantzuteko, sormenez erabilia tokiko erakundeen eskura dauden baliabideak eta herritarrek horiek bideratzeko duten gaitasuna, horrela zerbitzu publikoak eta horien emaitzak hobetzeko • Herritarrei parte hartzeko eta erabakitzeke modua emateko, baliabideak eta beharrak lankidetzan eta lana partekatuz kudea ditzaten; horrenbestez, biztanleen oinarritzko eskubideak bermatuko, demokrazia indartuko eta pertsonen, komunitateen eta erakunde publikoen arteko harremanak sendotuko dira.

[nola]

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gobernuko eta Politika Publikoko Institutuak (Institut de Govern i Polítiques Públiques) *Innovación y Políticas Públicas* izeneko artikulua argitaratu zuen Bartzelonako Diputazioaren Politika Publikoetarako Gidan. Kasu-azterketa batetik abiatuta, berrikuntza garatzen hasteko aukera ematen duten hainbat osagai identifikatu zituzten. Adierazi zutenenez, berrikuntzak distantzia eta hausnarketa (goi-motor deritzotena) behar ditu, baita konparazioa eta baliozkotzea ere (albo-motorearen ekarpenak), eta azaldu zuten garrantzi handia dutela saiakuntza-bankuek, jardunbide egokiek eta sareetan parte hartzeak, harremanetarako gune eta eztabaida iradokitzaileen sortzaile heinean. Hasierako barne-baldintzak (barneko motorra) ere beharrezko osagai dira: barneko indarrak baliatzea, arreta erakundeko kideengan jartzea eta antolakuntzako adimena sustatzeko topalekuak sortzea. Azkenik, energia eta sormena erantsi behar dira (beheko motorra); beraz, berrikuntzarako gobernuen arteko harremanetarako mekanismoak eta herritarrek parte hartzeko prozesuak behar dira.

Edonola ere, diagnostiko egokia eta apustu estrategikoa hartu behar dira oinarri gisa errealitatean dauden arazo handietako batzuei ekiteko. Gainera, beharrezkoa da inguratzen gaituen errealitateari buruzko diskurtso berri bat sortzea, eta filosofia berri hori gauzatzeko modu berria aurkitzea, metodologia berri bat, alegia. Egia da epe laburreko emaitzek, gu ikusgai bihurtu ez ezik, segurtasun eta zilegitasun handiagoa eskaintzen dutela; baina ez da ahaztu behar epe luzeko estrategia beharrezkoa dela gure proiektuen iraunkortasuna bermatzeko, baita ebaluazio-sistema bat ere, konpondu nahi ziren arazoei erantzuteko gauza izan garen egiaztatze aukera emango diguna

Administrazio publikoek berrikuntzaren erretorika jardunbide jakin batzuetan gorpuzteko abian jarri dituzten ekintzek elementu sorta berbera hartzen dute barne (Ramírez, A, 2012):

- Sektoreen arteko kolaboratzeko modu berriak ematen dituzten formulak dituzte.
- Pertsonak datu publikoetara sarbide aktiboa izatea bultzatzen dute, horiek erabili eta berrerabiliz aplikazio eta prestazio berriak sortzeko (Gobernu Irekia).
- Adimen kolektiboaren bidez, "Wiki" ideian oinarritzen diren ikuspegiak erabiltzen dituzte, programa publikoak hobetzeko prozesuetan eta araudiak, erregulazioak eta legedia idaztean.
- Herritarren ahalduntzea bultzatzen dute, komunitate-zerbitzuen baterako kudeaketaren, diseinuaren eta ekoizpenaren bitartez (ez dituzte herritarrek gobernuak garatutako eta emandako abantailen azken hartzaile pasibotzat hartzen).
- Konbentzitzeko eta estimulatzeko formula berriak bilatzen dituzte, herritarrengan *guztion ongizatearen aldeko jarrerak* sustatzeko, esku-hartze klasikoaren ordeztuz (arauketa, fiskalizazioa eta/edo zergak).
- Sektore pribatutik funts gehigarriak lortzeko katalizatzaile gisa erabiltzen dira, gizartean eragiteko eta onura publikoa lortzeko (gaur egun crowdfunding deitzen dena).
- Inbertsio publikotik, azpiegiturretatik eta zerbitzuetatik eratorritako itzulkin sozialak, ingurumenekoak edo hirikoak ikuskatzeko eta neurtzeko mekanismoak hobetzen dituzte.

Ekimen horietako asko “Gobernu Ireki” izeneko ideian oinarritzen dira. Ideia horren barruan, elkar gurutzatzen dute elementu hauek: administrazio publikoaren informazioa sarbidea; iturri, kode eta software irekien erabilera, eta herritarrek, herritarrentzat eta herritarrekin bideratutako berrikuntza-prozesu irekien bultzada.

Ondasun erkideen kudeaketa kooperatiboa eta komunitarioaren gisako proposamenak berrikuntzaren ideia horretan kokatzen dira. Halakoen helburua elkarbizitza bermatzen duten erreproduzio sozialeko esferak berreskuratzea da. Horiek berreskuratzea, baina ez Estatuko administrazio publikoaren bitartekaritzarekin soilik, baizik eta norberaren burua antolatuz eta zenbait printzipio aplikatuz, kasurako, erabileraren balioa, iraunkortasuna, kudeaketa kolektiboa eta gardena, etab., lau irizpide nagusitan oinarritutako kudeaketa eruedetatik: unibertsaltasuna, iraunkortasuna, demokrazia eta besterenezintasuna. Ildo horretan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ekimenak erreferente praktiko dira beste kudeaketa eredu batzuk irudikatzen; kudeaketa eredu iraunkorrak, demokratikoak eta besterenezinak. Fernando Sabine² (REAS Madrid) adierazi moduan: *“Kapitalismo finantzarioa, azken aldian geure ondasun erkideak estutzeko ahaleginean, erreproduzio sozialerako gaitasuna lapurtzen ari zaigu –hau da, ostatua, bizibidea, hezkuntza, zaintzak, gizartekoitasuna eta autogobernua lortzeko gaitasuna–. Berau berreskuratzen, kooperatiben ereduak da garatu beharreko tresnetako bat, baldin eta ekonomia sozialarekin konpromisoa badu.”*.

Gobernamendu eredu publiko-pribatu berriak zehazten dituzten proposamenen ildo berean, zerbitzu publikoak kooperatibizatzeari lotutakoak aurki ditzakegu. Lankidetzako eredu hori Espainiako Estatuko zenbait kooperatiba-legeriatan existitzen da, Andaluziako eta Valentziako Autonomia

Erkidegoetan, adibidez, bai eta nazioartekoetan ere, esaterako, Argentinan, AEBn eta Kanadan. Nabarmendu behar da, zentzu horretan, nazioartean badela zerbitzu publikoko kooperatiba sare bat, Nazioarteko Kooperatiba Aliantza (NKA) izeneko. Aliantza horrek berori osatzen duten kooperatiben arteko harreman instituzionalak errazteko, horien hazkundera eta garapena indartzeko eta ekimen berriak bultzatzeko baliatu du. Hauek dira, oro har, zerbitzu publikoko kooperatiben ezaugarriak: komunitatearentzat interesgarria den zerbitzu bat ematen dute, eta administrazio edo erakunde publiko batekin elkartzen dira sozietate moduan, azken horrek duela beti zerbitzu publikoak emateko baldintzen kontrola.

Proposamen horien helburua da herritarren zuzeneko parte-hartzea erraztea bertako baliabide komunak kudeaketan eta hobekuntzan. Eraginkortasuna eta talde-ekintza lortzeko, herritarren eta kooperatibako bazkide diren langileen arteko lotura, kooperatiben arteko lankidetzak eta beste administrazio publikoekin koordinazioa izan behar dira.

Beste proposamen bat dira elkarlaneko etxebizitzak, adinekoen benetako beharrei erantzuteko konponbide berritzaileak. Gure lurraldean eta Espainiako Estatuan duela gutxi hasi diren arren, Suedian, Danimarkan eta Alemanian, adibidez, ibilbide luzea dute jadanik. Talde-elkarbizitzako proiektu bat da. Proiektu horretan, hainbat pertsona bizi dira etxe berean. Etxeak taldeko eta banakako guneak ditu; bizikide guztiek esku hartzen dute etxebizitza osoari buruzko erabakietan, eta elkarrekin kudeatzen dituzte euren beharrak. Administrazioak hainbat modutan hartzen du parte proiektu horietan: etxebizitzak eraikitzen lurtzoruak lagatzen du, horietarako eraikinak eraikitzen ditu, arreta- eta garbiketako zerbitzuak eskaintzen ditu eta/edo proiektuaren kudeaketan laguntzen du.

2 SABIN, Fernando (2015): “La Economía Solidaria, el movimiento cooperativista y los Comunes”. EsF Dosierra, 16. zenb. *El Procomún y los Bienes Comunes*. Economistas Sin Fronteras.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Berziklatu. Bizkaiko Foru Aldundia**

Laneratzeko enplegua sortuz tamaina handiko hondakinak osorik kudeatzea. Laneratzeko enplegua sortuz –hau da, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko bide emanez– Bizkaian sortutako hondakin handien tratamendu osoa egiteko proiektua da Berziklatu. Bizkaiko Foru Aldundiak diseinatua, 2007ko uztailean jarri zen abian, eta proiektuan sozietate moduan hartzen dute parte Bizkaiko Foru Aldundiak, Garbikerren bidez (BFaren ingurumen-politika betetzeaz arduratzen den foru-enpresa), eta gizarte-ekimeneko bi kooperatibak, Rezikletak eta Emaúsek, hain zuzen. Berziklatuk tamaina handiko hondakinentzat eta etxetresna elektrikoentzat konponbide bat ematen du. Bizkaian sortutako hondakin handien tratamendu osorako lantegiak hondakin horiek berrerabiltzea eta birziklatzea bultzatzen, eta herritarren ingurumen-kontzientzia sustatzen du. Lantegia ingurumen-ikuspegitik berroneratutako ingurune batean dago; izan ere, meatzaritzako hondakinak isurtzen ziren eremu batean eraiki dute. Horiek horrela, birziklatzeko instalazio hori sortzeko, zabortege moduan erabiltzen zen gune bat berreskuratu dute. Lantegiak ingurumen-ikasgela bat dauka, iraunkortasunaren kontzeptua eta hura gure ingurunean erabiltzearen garrantzia hedatzeko helburuz. Bertan, ikasleak ingurumen-arazoen inguruan sentikortzeko jarduerak egiten dituzte, sortzen ditugun hondakinak berrerabiltzearen eta birziklatzearen problematika nabarmentzeko asmoz. Berziklatuk beste helburu bat ere badu: bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko eta laneratzeko laguntzea, kontratatutako pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko eta enplegu arrunt baterako sarbidea emateko neurri eta ekintzez osatutako gizareratze-prozesu baten bidez.

[\[www.berziklatu.eus\]](http://www.berziklatu.eus)

.....• **Zerbitzu publikoko kooperatibak eta kooperatiba mistoak sortzeko sustapena, Andaluzia**

Andaluziako Lan Koooperatiben Federazioak, Gizarte Ekonomiararen Zuzendaritza Nagusiak eta Andaluziako Juntako Ekonomien eta Jakintzen Saileko Autonomoek gida bat sortu dute elkarrekin: zerbitzu publikoko kooperatibak wabiaraztea sustatzeko gida. Gida hori “Impulso de cooperativas de Servicios Públicos y cooperativas mixtas. Nuevas fórmulas cooperativas recogidas en la Ley de Cooperativas Andaluzas” gidaren barruan kokatzen da.

[\[http://bit.ly/2dlwbJB\]](http://bit.ly/2dlwbJB)

.....• **Elkarlaneko etxebizitzak**

Stockholmen moduko hirietan, elkarlaneko etxebizitzak osatutako eraikin asko aurki ditzakegu. Administrazioak ordaindu du horien eraikuntza, eta jabetza publikokoak dira. Instituzioen inplikazioa etxebizitzaren bulegoak bideratzen du, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta kooperatibekin kontratuak finkatzen ditu. Etxebizitza bakoitzak bere onarpen-irizpideak ezartzen ditu. Horrela, besteak beste, 55 urteetik gorakoei, LGTB komunitateari eta emakumei zuzendutako etxebizitzak aurki ditzakegu.

Euskal Herriko zenbait udalerrri, Ermua, esaterako, pausuk ematen ari da ildo horretan, adineko jendeari laguntzeko, bizitze- eta zaintza-guneak partekatu nahi baitituzte. Konpromiso instituzionala etxeak eraikitzean datza; ondoren, erakunde kooperatiboek alokatzen zaizkie. Etxebizitzak trukatzeko aukera ere aintzat hartzen dute, bizilagunak behar behar araberak berrantolatu ahal izateko.

[\[http://bit.ly/2aIE7AI\]](http://bit.ly/2aIE7AI)

[\[http://bit.ly/2d9ycJt\]](http://bit.ly/2d9ycJt)

[\[http://bit.ly/2cldtHN\]](http://bit.ly/2cldtHN)

[gehiago jakiteko]

Red Internacional de Cooperativas de Servicios Públicos de las Américas. [<http://bit.ly/2cqnmXP>]

BRUGUÉ, Quim, BOADA, Julia eta Ismael BLANCO (2014): "Innovación y Políticas Públicas" in Jordi GARCÍA JANÉ: *Guía de economía social y solidaria para la administración local*. Diputación de Barcelona. [<http://bit.ly/2dpgi26>]

Egunsentia. Adinekoentzat etxekidetzat (erabilera-lagapen erregimenean) sustatzeko elkarteak. [<http://bit.ly/2d9ycJt>]

[<http://ecohousingay.org>] LGTBI komunitatearentzat elkarlaneko etxebizitzaren proiektua, Katalunian kokatua.

ICEA, Instituto de Ciencias Económicas y Autogestión (2016): *Remunicipalización cooperativa de los servicios públicos de limpieza del municipio de Madrid*. Proposamenaren laburpena: [<http://bit.ly/2cTswjs>] Testu osoa: [<http://bit.ly/2dlwnbE>]

FERNÁNDEZ CUBERO, Ana eta Irati MOGOLLÓN GARCÍA (2015): *Arquitecturas del cuidado. Viviendas colaborativas para personas mayores. Un acercamiento al contexto vasco y las realidades europeas*. Emakunde, Vitoria-Gasteiz. [<http://bit.ly/2aIE7AI>]

14/2011 Legea, abenduaren 23koa, Andaluziako Elkarte Kooperatiboei buruzkoa. [<http://bit.ly/2d1MDht>]

RAMÍREZ- ALLUJAS, Álvaro (2012): "Innovación en las organizaciones y servicios públicos: ¿El eslabón perdido? Bases para la transición hacia un modelo de innovación abierta y colaborativa". *Revista Chilena de Administración Pública* 19. zenb. [<http://bit.ly/2d6k4xe>]

1.8.

Administrazioen arteko elkarlaneko kontsumoa

[zertarako]

Baliabideak optimizatzeko, iraunkortasuna bultzatzeko eta tokiko administrazio txikiagoen baliabide faltari aurre egiteko; horretarako, ondasunen jabetzaren gainetik jarri behar da ondasunen erabilera, horrela, administrazioaren baliabideak optimizatzen laguntzeko.

[nola]

Elkarlaneko kontsumo izenburupean, jardunbide heterogeneo sorta bat biltzen da, esaterako, partekatzea, trukatzeta, mailegatzea, alokatzea eta oparitzea. Praktika horiek teknologia modernoaren bidez birdefinitzen dira: higiezinak (etxekidetza, lantokia partekatzea, etxebizitza trukatzeta...), garraioa (bizikletak eta kotxeak edo ibiltarteak partekatzea...), ondasunak (tresnak alokatzea, arropa trukatzeta, liburuak dohaintzan ematea, musika eta filmak partekatzea...).

“What’s mine is yours” liburua elkarlaneko kontsumoaren testu eredugarria da; bertan azaltzen denez, “gaur egun mundu global batean bizi gara, eta lehen aurrez aurre egiten ziren trukeak, egun eskala handiagoan eta orain arte posible izan ez den modu batean imitatu ditzakegu. Interneten eraginkortasunak, ezezagunengan konfiantza sortzeko gaitasunarekin batera, truke eraginkorreko merkatu bat sortu du, bitartekaririk gabekoa: produktorearen eta kontsumitzailearen, mailegatazailearen eta mailegahartzailearen, eta auzotar baten eta bestearen artekoa.

Era askotako adibideak daude elkarlaneko kontsumoari buruz, hiru sistematan antolatuta:

1. Produktuan oinarritutako sistemak: produktu bat erabiltzeagatik ordaintzea, erosi beharrik gabe.
2. Birbanaketa azokak: erabilitako edo erositako ondasunak birbanatzea, behar ez dituenak behar dituen norbaiti emateko.
3. Elkarlaneko bizitza estiloak: ondasun immaterialak ere partekatu eta truka daitezke. Antzeko interesak dituen jendea ondasun ez hain ukigarriak partekatzeko eta trukatzeko elkartzen da, esaterako, denbora, espazioa,

trebetasunak eta dirua (adibidez, partikularren arteko maileguak). Truke horiek tokiko edo auzoko mailan gertatzen dira, oro har; bertan, lan egiteko (coworking) eta ereiteko guneak (baratze partekatuak) eta wifia partekatzen dira, eta partikularren artean maileguak egiten dira.

Administrazio publikoek, euren lurraldeetan, elkarlaneko kontsumoaren gisako proposamenak sustatu, eta, gainera, beste instituzioekin batera gauzatu ditzakete.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Udaltruke, Enkarterrietako Landa-Garapeneko Agentzia (Bizkaia)**

Udaltruke Enkarterrialde Landa Garapenerako Elkartek sortutako elkarlaneko kontsumo-ekimen bat da, 2012ko uztailan sortua. Agentziako bazkide diren 17 udalerrietako teknikari eta politikarientzako online sare pribatu bat da, eta 5 kategoriatan (lorenzaintza, obrak, kultura...) banatutako 235 artikuluko katalogo bat jasotzen du. Martxan jarri eta sei hilabetera, produktuak trukatzuz, 9.000 €-tik gora aurreztu ziren Udaltrukeri esker: udalen artean 17 truke egin zituzten eta udal erabiltzaile gehienek ordurako erabilia zuten plataforma. Proiektuko kide diren udal guztiek erabil ditzakete produktu horiek guztiak, doan erabili ere.

[\[http://bit.ly/2clY8sP\]](http://bit.ly/2clY8sP)

[gehiago jakiteko]

CAÑIGUERAL, Albert (2014): *Vivir mejor con menos. Descubre las ventajas de la nueva economía colaborativa*. Conecta, Bartzelona.

[www.consumocolaborativo.com] Erreferentzia da startup-ei eta elkarlaneko kontsumoari buruzko gaurkotasun guztia ezagutzeko. Gaztelaniaz dago, eta Espainiako Estatuko eta Latinoamerikako esperientzian zentratzen dira.

1.9.

Laneratze-enpresa bat eratzten parte hartzea

[zertarako]

Gizarte bateratuagoak eta inklusiboagoak eraikitzen laguntzeko, Laneratze Enpresen gisako gizarteratze-tresnak bultzatuz

- Bereziki, zailtasun handienak dituzten pertsonentzako enplegua sortzeko; horretarako, laguntza-prozesu bat eskainiko da, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenei enplegu arrunt baterako sarbidea bermatzeko
- Jarduera eta aberastasun ekonomikoa sortzeko, baina pertsonetikiko eta inguruarekiko konpromisoa harturik oinarri, eta gure gizartean kontrataziorako eta zerbitzu eta ondasunen erosketarako irizpide etikoak, arduratsuak eta solidarioak erabiliz.

[nola]

EAEn, gizarteratzearen aldeko politikak eta esku-hartze sozialeko erakundeak (alor ekonomikotik gizarteratzeko asmoz lan egiten dutenak) izan ziren Laneratze Enpresen iturburu. Ekimen horiek handitu ahala, horiek arautzeko premia agertu zen. 2001ean Laneratze Enpresen Erregistroa sortu zenean aintzatetsi egin ziren, eta 2002an mota horretako enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza-programa abiatu zen.

Eusko Jaurlaritzaren 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa (laneratze enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legeari buruzkoa), laneratze enpresen kalifikazioa arautzen duena eta horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituena. Honela definitzen ditu:

“laneratze enpresatzat hartuko dira honako ezaugarri hauek dituzten ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-egiturak: gizartean baztertuta edo desabantailan dauden taldeak lan-merkatuan sartzeko helburua dutenak, eta, gainera, gizarteratzeko banan banako proiektuak egiten dituztenak, ikasketa prozesu egoki baten bidez, eta prozesu horrekin, enplegarritasunaren baldintzak hobetzen laguntzeko trebetasun sozialak, laneko trebetasunak, oinarrizko prestakuntza, laneko kualifikazioa eta merkatuari buruzko ezagupenak barnean hartzen dituztenak [...]”.

Gizarteratzearen Behatokiak Espainiako Laneratze enpresei buruz³ egindako ikerketan adierazten du Lane-

ratzeko Enpresen metodologia dela halakoen berrikuntza nagusia. Metodologia horrek barne hartzen ditu, batetik, gizarteratze-prozesuan banakoa lagunduko duen ibilbide pertsonalizatua eta, bestetik, benetako lan-ingurune baterako prestakuntza praktikoa.

Gizartean sinergiak sortzen dituzten ekimenak dira; horretarako, profil kalteberako pertsonak bertakotzen dituzte eta alor ekonomikoan eragiten dute, hain zuzen ere, indarrean dagoen enpresa eta ekonomia ereduaren jarraibideak apurtzen dituzten neurrian. Ikerketa horren arabera, honako hauek dira laneratze-enpresen ezaugarri berezianak:

- Produkzio-egiturak dira: nahiz eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatu, merkatuan egiten dute lan, ondasunak eta zerbitzuak produzituz, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko asmoz. Beren jarduera ekonomikoa langile askoko eta kapital gutxiko sektoreetan zentratzen dute.
- Tresnak dira: hau da, ez dira azken xede, ezpada gizarte- eta lan-bitartekotzarako tresna. Langileak lan-merkatu arruntera sartzeko prestatu nahi dituzte. Prestakuntza horren barruan, abilezia teknikoak eta oinarrizko harreman-gaitasunak –lan-ohitura egokiak hartzeko– sartzen dira.
- Iragankorrak dira: pertsonak lan-merkatu arruntera igarotzeko prestatzea dute helburu; beraz, gizarteratze-tresna iragankor gisa definitzen dira.

3 OBSERVATORIO DE LA INCLUSIÓN SOCIAL (2007): *Las Empresas de Inserción en España*. Obra Social Caixa Catalunya, Bartzelona.

—• Bazterkeria arriskuan dauden pertsonekin egiten dute lan: lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak hartzen dituzte. Haiek laneraterako ibilbide bat egiten dute, eta erakundeak prozesu horretan laguntzen die.

[saiakuntza-bankua]

.....• Oarsotek

Oarsoaldean kokatua (Errenterriak, Lezok, Oiartzunek eta Pasaia osatutako eskualdea) eta industriarako zerbitzu osagarrien sektoreko piezak biltzera emana. Lezoko Udala, Oarsoaldea Garapen Agentzia eta Rubitec SL dira parteai-deak. [<http://bit.ly/2ib8tAL>]

.....• Bidebarri

Oñatin (Gipuzkoa) kokatua, elikadura-sektorean jarduten du. Oñatiko Elizbarrutiko Cáritasek eta bertako Udalak sustatzen dute. [www.bidebarri.org]

[gehiago jakiteko]

Eusko Jaurlaritzaren 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena, eta horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituena [<http://bit.ly/2ib6g8l>]

[www.faedei.org] FADEI – Estatuko Gizarteratze eta Laneratze Enpresen Federazioa, Espainiako Estatuko laneratze-enpresen 12 lurralde-elkarte biltzen ditu.

[www.gizatea.net] Gizatea, Euskadiko Gizarteratze eta Laneratze Enpresen Elkarte.

GIZATEA (2015): *Memoria social. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin*. Gizatea, Bilbao. [<http://bit.ly/2ib4KDd>]

GIZATEA (2012): *Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak: laneratzeko eta gizarte-garapenerako tresnak*. Lanbide, Vitoria-Gasteiz. [<http://bit.ly/2jvhM0m>]

44/2007 Legea, abenduaren 13koa, gizarteratze-enpresen araubidea erregulatzen duena. [<http://bit.ly/2jaek81>]

1.10.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa bultzatzeko plan estrategikoak

[zertarako]

Lurraldeak ESSren printzipio eta balioetatik eraldatzea oinarri duten tokiko giza garapeneko ereduetara igarotzea erraztuko duten estrategiak bultzatzeko • Ekintzen jarraipena egitea errazteko eta horiek etengabe doitzeko, aurrez ikusitako helburuak lortzeko asmoz.

[nola]

Egia da tokiko ekintzak muga askorekin egiten duela topo aurrekontu-, eskumen- eta ekoizpen-mailan; hala ere, gure uste sendoa da tokiko eskala egokia dela ekonomiaren gain eragiteko eta hura egokitzeko, lurralde baten eta lurralde hori osatzen duten pertsonen premien arabera egokitu ere. Horixe dugu abiaburu.

Ekonomia sozial eta solidarioa bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarriko duten eredueta igarotzeko tresna bat da, lurraldean errotuta baitago eta komunitatea baita bere proposamenaren objektu eta subjektu. Baliabide endogeneoak erabiltzen ditu eta autozentratua da: tokiko baliabideak lehenesten ditu tokiko beharrak asetzeko eta osoko ikuspegi batetik bultzatzen ditu lurraldeen gaitasunak eta garapena; hau da, errenta sortuz, loturak eta gizarte-kohesioa eratuz, jakintza sortuz, ahalduntze prozesuak sustatuz...

Lurralde sozialki arduratsuak eraikitzen aurrera egitea proposatzen dugu. Plangintza tokiko ikuspegitik egiteak, gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta ingurumenaren alderdiak egoki orekatzeko aukera ematen du, parte hartuzko gobernamentu-prozesuen bitartez.

Gauzatutako proiektuak ezagutza zehatzetan oinarrituta daudela –lurraldearen errealitatearena, beste lurralde batzuetako prozesu eta esperientzia jakin batzuen– eta lurraldea garatzeko konpromisoa duten eragile, sare eta erakunde guztiekin lankidetzara hertsiki eta etengabe gauzatzen direla bermatzeko, fase hauek dituen prozesu bat irudikatu dezakegu:

—• **Ezagutzea:** gure lurraldean dauden ekonomia sozial eta solidarioa esperientziak identifikatzea, baita eko-

nomia sozial eta solidarioa bultzatzen ibilbide luzeagoa egin duten herrialde batzuetako toki-administrazioek sustatutako esperientziak eta jardunbideak ere (Frantzia, Kanada, etab.).

—• **Planifikatzea:** Lehenik eta behin, tokiko errealitatearen diagnostiko bat egitea proposatzen dugu. Hala, udalerriko baliabideen inbentario bat egin genezake –teknikariak, azpiegiturak...–, baita lurraldean ESS ezartzearen premia eta aukerena ere. Bartzelonako Diputazioaren ESS gidak proposatzen du diagnostiko horren zati bat lurralde barruko moneta-zirkulazioko fluxuak ezagutzean ardatzea, eta dirua udalerritik nondik ihes egiten duen hautematea, hura atxikitze asmozko ESS jardura berriak sustatzeko, tokiko inportazioak lurraldeko ondasun eta zerbitzuekin ordezkaturak. Horrek aberastasuna eta enplegua ugalduko luke. Diagnostikoa egin ostean, plangintza-prozesuko beste fase batzuei heldu beharko litzaieke; hau da: ahal bezainbeste partekatu behar dira ikuspegia, helburuak eta estrategiak, eta ekintzen “arrakasta” neurtuko duten adierazleak adostu behar dira. Segimendu tekniko egiteko ez ezik, kontu emateko aukera ere emango digu horrek, hala alderdi ekonomikoan nola giza eta ingurumenalderdietan. Plangintza parte hartzeko prozesuen bitartez planteatu behar da, eta lurralde batean esku hartzen duten eta berori garatzeko konpromisoa duten eragile guztiak sartu behar dira prozesuotan.

—• **Arautzea:** proposamen alternatiboak abiarazteko arau-esparruak ezartzea; arautegiak, dekretuak, ordenantzak eta erakunde-adierazpenak ezartzea, euren garapen eredia birdefinituko duten (gizarte bidezkoago, inklusiboago eta iraunkorrakoak sortzera bideratuta) lurralde bilakatzeko oinarriak finkatzeko.

—● **Proiektu zehatzak gauzatzea:** Tokiko administrazioen eta lurraldeko ESSren agenteen artean proiekturen bat burutzea, elkarrenganako konfiantza sortzeko; adierazpenen bat edo konpromiso-gutunen bat sinatzea, sare eraldatzaile batera batzea, sentikortze-ekintzaren bat antolatzea edo gida honetan proposatutako ekintzetako bat gauzatzea. Proiektu horiek eraldaketa orokorragoak bultzatzen dituzte.

Proiektu zehatzak ezagutzeko, planifikatzeko, arautzeko eta gauzatzeko prozesu honekin batera, sentikortzeko ekintzak egin behar dira ESSak udaleko teknikari eta politikarientzat duen garrantziari buruz; izan ere, horrela ekimen mota hauek identifikatzeko, bultzatzeko eta horien inguruan aholkuak emateko baliabideak izan ditzakete eskura.

Azkenik, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren instituzionalizazio-esperientziak nabarmendu behar dira, arauzko erregulazioen edo planifikazio-prozesuen kausa edo ondorio gisa; hau da, Ekonomia Sozial eta Solidarioko berariazkoak diren erakunde juridikoak edo politiko-administratiboak sortzeko edo birdefinitzeko esperientziak. Instituzionalizazio horren adibideen artean, Latinoamerikakoek dituzte erro finkatuena, eta arau-garapen gutxi gorabehera sakonetatik sortu ziren. Argentinan eta Brasilen lehendik zegoen araudia egokitu dute. Hala ere, Brasil eredu garri da gizarte-mugimendu eta -erakundeen eta instituzio publikoetan Ekonomia Sozial eta Solidarioa bultzatzeko politika publikoak sorteari dagokionez. Beste muturrean Boliviako eta Ekuadorreko esperientziak ditugu. Horiek aldaketa sakonagoak proposatzen dituzte, trantsizio luzea behar dituztenak, baina badute abantaila bat ere: gaur egun aintzat hartzen diren eta aspalditik datozen iraupen edo biziraupen ekonomikoko ereduetan oinarritzen dira. Herrialde horiek euren lurraldean Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko idazkaritzak, kontseiluak, foroak, ikerketa-institutuak eta antzerako beste egiturak dituzte. Espainiako Estatuan, Bartzelonako Udaleren esperientzia aurki dezakegu –saiakuntza-bankua atalean

nabarmendu dugu–. Bertan, Ekonomia Kooperatibo, Sozial eta Solidarioko ordezkariak bat sortu dute.

[saiakuntza-bankua]

.....● **Ekonomia Sozialerako Ekintza-Plana, Bulgaria**

Bulgariako Errepublikako Ministroen Kontseiluak Ekonomia Sozialerako Ekintza Plan (2014-2015) bat ebatzi du, eta Lan eta Gizarte Politika Ministerioaren esku utzi du hura abiarazteko ardura.

[<http://bit.ly/2cvAQH6>] [<http://bit.ly/2dj6mGV>]

Bost lehentasun ezarri dituzte:

1. Alderdi interesdunak Ekonomia Sozialaren oinarriez eta funtzionamenduaz sentikortzea.
2. Ekonomia Soziala eta gizarte-enpresak babesteko egiturak sortzea.
3. Ekonomia Sozialari buruzko informazioa ematea.
4. Ekonomia Sozialari buruzko hezkuntza, prestakuntza eta ikerkuntza lagunduko duten baldintzak ezartzea.
5. Ekonomia Soziala gauzatzea bultzatzeko ingurune egoki bat ezartzea.

.....• **Ekonomia Sozialeko Plan Estrategikoa eta Bulegoa, Madrilgo Udala**

Madrilgo Udaleko Ekonomia eta Ogasun Udal Arloa Plan Estrategikoa bat sustatzen ari da, eredu ekonomiko justuago, bidezkoago, demokratikoago eta ekonomia-zikloekiko erresistenteago bat bultzatzeko. Ekimen hauek aurreikusituen dira: plan estrategikoa gauzatzea, modu parte-hartzailean eta epe luzera begira; aholku batzorde bat sortzea, erakundeetako ordezkariak, udaletxeetako zinegotzigoak eta beste agente garrantzitsuak barne hartuz; Ekonomia Sozialeko Bulego bat (politika horiek martxan jartzeko) eta hainbat berehalako ekintza eraginkor abiaraztea (aurretik dauden esperientziak babesteko).

[\[http://bit.ly/2cnRAN8\]](http://bit.ly/2cnRAN8)

.....• **Ekonomia Soziala Bultzatzeko Osoko Plana, Nafarroako Gobernuak**

Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomiko eta Eskubide Sozialetako Sailak Ekonomia Soziala bultzatzeko plan integrala diseinatu du, eta hura burutzeko 2017 eta 2020 arteko epea du. Ekintzak 5 alor estrategikotan sailkatzen dira: enplegu iraunkorra eta kalitatezkoa, enpresa-garapena, gizarte-berrikuntza, parte-hartzeko gobernantza eta sektore-garapena. Planaren helburua hau da: jadanik lurraldean dauden Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekimenak indartzea eta beste ekimen berri batzuk bultzatzea, kalitatezkoa, iraunkorra, bideragarria eta inklusiboa izango den enplegua sortzeko. Helburua da Gobernuak aholkularitza tekniko eta ekonomikoaren bidez bultzatzen dituen ekimen berriak Ekonomia Sozialaren printzipioetara atxikitzea.

[\[http://bit.ly/2cEUJZT\]](http://bit.ly/2cEUJZT)

.....• **Bartzelonako Udalaren Ekonomia Kooperatibo, Sozial eta Solidarioko Ordezkarria**

Bartzelonako Udalean Ekonomia Kooperatibo, Sozial eta Solidarioko ordezkari bat dute Lan, Ekonomia eta Plangintza Arloan, eta zuzenean alkateordetzaren mende dago.

Udalaren helburua krisitik irteteko lan egitea da eta, aldi berean, hirian egitura ekonomiko sozialagoen eta solidarioagoen ezarpena sustatzea. Ildo horretan, aipatzen dute hiriak tradizio handia duela, eta, gaur egun, baita ekonomia kooperatibo, sozial eta solidarioko sare trinko bat ere. Auzo askotan eta hainbat ekimenetan alor horretako esperientziak loratzen ari dira. Alkateordetzak, ordezkari horren bidez, ekonomia kooperatibo eta solidario hori sortzea eta haztea bultzatzen du. [\[http://bit.ly/2dlxo3w\]](http://bit.ly/2dlxo3w)

[gehiago jakiteko]

BIZILUR, ETXALDE eta EHNE Bizkaia (2015): *Euskal Herriko bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten Elikadura burujabetza abiapuntu, tokiko politika publikoak eraikitzeke zenbait proposamen.*

[\[http://bit.ly/2dB59JU\]](http://bit.ly/2dB59JU)

CORAGGIO, Jose Luis (2013): *La presencia de la Economía Social y Solidaria y su institucionalización en América Latina*, UNRISD (United Nations Research Institute for Social Development). [\[http://bit.ly/2cqpc1B\]](http://bit.ly/2cqpc1B)

GARCÍA JANÉ, Jordi (2014): *Guía de Economía Social y Solidaria para la administración local*. Tokiko Garapen Ekonomikoko Saila. Bartzelonako Diputazioa.

[\[http://bit.ly/2cqolZp\]](http://bit.ly/2cqolZp)

1.11.

Udalaz gaindiko edo sektoreko sare eraldatzaileak

[zertarako]

Tokiko ekintza politikoko jardunetik, esperientziak eta ikaskuntzak trukatzeko foro gisa erabilgarria delako • Askotariko ekintzetarako trakzio-proiektu gisa, aterki gisa, joka dezakeelako, eta lurraldeen arteko laguntza eta ikasketa ahalbidetzen duelako.

[nola]

Udal-lankidetzako askotariko sareak daude. Esperientzia horietako batzuk praktikoak dira eta trukerako edo elkarrekin erosteko sortu dira, esaterako, "Udaltruke" elkarlaneko kontsumo-ekimena (gida honetan jadanik azaldu dugu), Enkarterrialde Landa Garapenerako Elkartek sortutakoa (Bizkaia).

Beste batzuk, ordea, eskualdez gaindiko hedadura hartzen dute, eta euren lurraldean ESSa bultzatzeko interesak lotzen ditu. Hala gertatzen da Saiakuntza Bankuan nabarmentzen dugun esperientzia baten kasuan: Frantziako Ekonomia Sozial eta Solidarioko Lurralde Sarea (Réseau des collectivités Territoriales pour une Economie Solidaire, RTES). REVES (Réseau Européen des Villes & Régions de l'Économie Sociale) antzerako esperientzia bat da. Europako erakunde horrek tokiko eta eskualdeko agintariak eta eskualdeko erakunde sozioekonomikoak biltzen ditu, interes honen inguruan: ESSa bultzatuko duten politika publikoak sustatzea, gizarte justuagoak, inklusiboagoak, parte-hartzaileagoak eta arduratsuagoak eraikitzeke. Gizarte-berrikuntzako sare gisa definitzen dira; batetik, politika horien elkarrekiko eraikuntzan oinarritutako metodo eta prozedurak dituztelako, eta, bestetik, sarea eta haren lurraldeak osatzen dituzten agente guztien gaitasunak partekatzen dituztelako.

Udalerrien arteko elkarlanerako beste sare batzuk sektoreko interesen arabera antolatzen dira; burujabetza energetikora iragaten ari diren udalerrriak; gure udalerrietan elikadura-burujabetza izateko karta; bidezko merkataritzaren aldeko hiriak, eta abar. Badaude, halaber, adierazpen politiko edo sinbolikoagoak ere, eta horien inguruan biltzen diren udalerrietan mozioak onetsi dituzte beren burua transgenikorik gabeko, energia nuklearrik gabeko edo TTIP aplikaziorik gabeko gune gisa definitzeko (TIPP delakoa

Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzat Transatlantikoa da, Europa eta AEBren artean negoziatzen ari diren itun bat).

[saiakuntza-bankua]

.....• **RTES –Réseau des collectivités Territoriales pour une Economie Solidaire– (Frantzia)**

ESSren aldeko lurralde-sareen esperientziarik sendoena Frantzian dago. Hala, RTESn 125 erkidego, eskualde, departamendu, interkomuna eta komuna biltzen dira, eta horiek, ESS gauzatzeko gutunarekiko konpromisoarekin, hainbat helburu dituen truke- eta koordinazio-gune nazionala eratzen dute: lurralde-ekimenak sustatzea; administrazio publikoek alor honetan bultzatutako esperientziak aitzat hartzea; praktika onak hedatzen laguntzea eta abiatutako politikak hobetzea. Azken finean, aktore guztiekin batera beste garapen-eredu bat sortzeko espazio bat da; eredu horrek, merkatu-logikatik ihes eginez, gai izan behar du erronka ekonomiko, sozial eta ekologikoei erantzuna emateko. [<http://bit.ly/2d69o53>]

.....• **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko Kataluniako Udalerrien Sarea**

Gure inguruan, zera nabarmendu behar da: 2015eko urrian Bartzelonan egin zen Ekonomia Solidarioko eta

Lurraldeak ekonomia solidarioaren bitartez eraldatuz. Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak

Munizipalismoko Nazioarteko Topaketan, ESSaren aldeko udalerrri-sare bat eratzea proposatzen zuen manifestu batera atxiki zirela Kataluniako hogeitun udalerrri. Ekonomia Solidarioaren aldeko Udalerrri Katalanen Sarea 2017ko lehen hiruhilekoan behin betiko eratuko da.

[<http://bit.ly/25xWGx1>]

.....• **TTIParen aplikaziotik libre dauden udalak**

Europar Batasuna eta Estatu Batuak negoziatzen ari diren Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoa (TTIP) onartuko balitz, estatuen burujabetza mugatuko litzateke eta udalerrien gain eragin larria izango luke horrek. Udaletxeek kontratazio publikoak eta ingurumenari buruzko arauak kudeatzeko gaitasuna galduko lukete, besteak beste. Horregatik, Europan ehunka udalerrri itun horren aurka agertu dira. Espainiako estatuan, TTIPren ondorioei buruzko informazio gehiago agertzen den heinean, geroz eta udalerrri gehiagok onesten dituzte TTIPrik gabeko eremu gisa aldarrikatzeko mozioak. [<http://bit.ly/2cIYUpX>]

.....• **Bidezko merkataritzaren aldeko hiri-sarea**

Sare hau Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriak programaren bitartez bidezko merkataritzarekin konpromisoa duten herrietako aktoreek osatzen dute. Sare horren helburua zera da, bidezko merkataritza sustatzeari eta herritarrei produktu horiek hurbiltzeari buruzko esperientziak partekatze-ko foro bat izatea. [www.ciudadjusta.org]

“Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiri” estatusa lortzeko, bost baldintza bete behar dira:

- Udaletxeek bidezko merkataritzako eta mota horretako produktuak kontsumitzearen aldeko ebazpen bat onestea.

—• Hiriko kafetegietan, jatetxeetan eta dendetan bidezko merkataritzako produktuak eskaintzea.

—• Sektore pribatuen eta erakundeen konpromisoa, mota horretako produktuak barne-kontsumoan txertatuz.

—• Herritarrei jakinaraztea eta haiek sentikortzea, eta programa koordinatuko duen talde egonkor bat sortzea.

[gehiago jakiteko]

Carta por la Soberanía Alimentaria en nuestros municipios. [<http://bit.ly/1AroHcc>]


[www.revesnetwork.eu] REVES (Réseau Européen des Villes & Régions de l'Économie Sociale).

[www.nuevomodeloenergetico.org] Plataforma por un nuevo modelo energético.

Zonas libres de transgénicos. [<http://bit.ly/2cN08nc>]

2. Garapen alternatibo

baterako ekonomia berri bat



2.1.

Finantzaketa etikoa eta alternatiboa duten zirkuituak

[zertarako]

Tokiko administrazio publikoek, finantza-arloan ere, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaile bat izan dezaten ahalbidetzeko • Aurrezkiak, eratze- eta garapen-kooperatiboko ereduetatik abiatuta, gizarte-balio eraldatzaile handiko proiektuak babestera bideratzeko, kredituaren bitartez. Horretarako, parte-hartzea, autokudeaketa, lurraldearekiko gertutasuna eta abarren gisako balioak bultzatuz, eta aurrezte-kredituko ekonomia-zirkuituak sortzea sustatuz, agenteak (sozioak eta bezeroak) logika ez-kapitalista batetik biltzeko gai izango direnak • Gizarte- edo finantza-bazterkeria egoeran dauden pertsonen kreditua lortzea errazteko, bai eta, ohiko finantza-sisteman, beren egoeragatik, izaeragatik edo tamainagatik, kreditua lortzeko beharrezko abalak eta baliabideak ez dituzten proiektuei ere.

[nola]

ESSk herritar antolatuen eskuetan dauden finantza-ekimen alternatiboak sortzea bultzatzen du. Orokorrean, ESSren alorreko finantza etikoko proposamen anitzetan gauzatu-tako jarduerak berekin dakarte:

- Gizarte-eragin eraldatzaileko jarduerak finantzatzea (proiektu sozialak, ekologikoak, kulturalak eta solidarioak); baztertu egingo dira, aldiz, beste inbertsio hauek: jarduera espekulatibokoak eta injustizia mantentzen eta gure mundua hondatzen laguntzen duten enpresatakoak.
- Herritarrei aurrezte eta inbertsio arduraturako tresnak eskaintzea; izan ere, herritarrek zuzenean parte hartzen dute finantza-tresnak eratzen eta kontrolatzen.

Finantza etiko eta alternatiboko proiektuak, gainera, ez dira irabazi-asmokoak izaten. Hau da, proiektuak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak dira, baina ez dira pilaketaren logikan oinarritzen, eta ez dute irabaziak handiagotzea biltzen. Gainera, euren jardueraren soberakin ekonomiko oro euren gizarte-helburua hobetzera edo inguruko eragin sozial, ekologiko edo kultural eraldatzaileko proiektuetara bideratzen dute. Bestalde, gardentasun eta kontu-emate sistemak dituzte.

Gure inguruan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan, finantza etikoari dagokionez, hainbat aukera daude; hauek dira erabilgarrietako batzuk, tokiko administrazioaren ikuspegitik:

- **Banca Ética Fiare** finantza etikoan oinarritutako bi proiektu elkartzuz sortu zen: Banca Popolare Etica (Italian 1999tik diharduen banku kooperatibo bat), eta Fiare

(Espainiako estatuan 2005etik lan egiten du). Biek gizarte eraldatzeko tresna izan nahi dute, ESSko proiektuak finantzatzuz eta finantza-bitartekaritzaren kultura sustatuz; hori guztiori, gardentasunaren, parte-hartzearen, demokraziaren eta kreditua eskubide bat izatearen printzipioetan oinarrituta. Banku etikoa alternatiba bat eraikitzeke proposamen gisa aurkezten zaio gizarteari. Herritarrei proposatzen zaiena ez da banku etikoa kontsumitzea edo bezeroak izatea, baizik eta proiektu bat eratzen, ekonomia-zirkuitu alternatibo bat eraikitzen, parte hartzea.

- **Coop57** finantza-zerbitzu etiko eta solidarioko kooperatiba bat da; haren eginkizun nagusia ESSko proiektuak finantza-bitartekaritzaren bidez finantzatzea da. Horretarako, gizarte zibilaren aurrezkiak jaso eta bildu behar da, ESSko erakundeak finantzatzera bideratzeko —erakunde horiek kooperatibismoa, asoziazionismoa eta solidaritatea bultzatzen eta printzipio etiko eta solidarioetan oinarritutako iraunkortasuna sustatzen dute—. Duela urtebete pasatxotik, kreditu-kooperatiba hau Euskal Herrian dago, Coop57ren bidez.

- **Oikocredit** finantza etikoko nazioarteko kooperatiba bat da, eta herrialde garatuetako pertsona eta erakunde konprometituen aurrezkiak bideratuz, garapen bidean dauden herrietan eduki sozialeko enpresa-proiektuak finantzatzen ditu.

- **CAES** aseguru etiko eta solidarioak (Cooperación para el Aseguramiento Ético y Solidario) Seryes eta Arç artekaritzen elkar-lankidetzak proiektu bat da, Ekonomia Sozial eta Solidarioan aseguru etiko eta solidarioa bultzatzeko eta garatzeko. CAESek kooperatibismoaren,

finantza etikoen eta merkatu sozialaren hainbat alorretan parte hartzen du.

Hainbat ekimen zehatz gauzatu daitezke, tokiko administrazioetik, ekonomia-zirkuitu alternatiboak sortzeko. Lehenengo finantza etiko eta alternatiboko kooperatibetan parte hartzea da.

Espazio horiek sortzen laguntzeko beste era bat Banku Etikaren zerbitzuak erabiltzea da, hau da, kontu bat irekitzea, ordainagiriak bertan helbideratzea, diru-transerentziak egitea eta/edo tokiko erakundearen jarduerarako beharrezkoa den beste finantza-bitartekaritzako edozein zerbitzu erabiltzea. Halaber, finantza etikoak eta alternatiboak finantzazioa behar duten proiektu zehatzak bultzatzeko aukera daitezke, bai eta gizarte- eta finantza-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen finantza-sostengua emateko ere.

Badago, halaber, beste aukera interesgarri bat: ureztatzeko kapital-fluxuak –Matchfunding–; hau da, finantzaketa mota bat, non instituzioek eta erakundeek mikro-dohaintza-kanpainenekin bat egiten duten, Goteo plataforma erabiliz –idea beraren alde dauden pertsonen egindako mikro-dohaintza bidez proiektu bat finantzatzeko aukera ematen duen plataforma bat–. Horrela, gai jakin baten inguruko proiektuen baliabideak ugaritzen, eta eragina areagotzen dute.

Goteo Fundazioa 2011tik dabil “Ureztatze Kapitala” edo “Ureztatzeko Kapitala” deritzona biltzen. Muntza handiko dohaintzez osatutako gordailu bat da, eta erakunde publikoekin eta pribatuekin urtero hartutako askotariko konpromisoez elikatzen da. Ondoren, proiektuetan banatzen da, aldi baterako deialdien bidez. Hain zuzen, deialdion bidez, erakunde laguntzaileek modu berritzailean bideratu ditzakete beren eskumen eta programetako zenbait, baita beren konpromisoko eta gizarte-erantzukizuneko politikak ere. Gainera, beste abantaila batzuk ditu; adibidez, jakintza eskuragarria eta irekia taldean sortzen

parte hartzea; sozialki berritzaileak diren proiektuak babestea; hurbiltasuna eraikitzea eta komunitate sortuberririkin elkarrizketa zuzena ezartzea, eta erabilgarritasun publikoarekin eta lurraldearen beharrek lotutako ekimenekin zerikusia duten proiektuak ikusgai jarri eta aintzat har daitezela lortzea.

[saiakuntza-bankua]

.....• Matchfunding

Erakunde publikoak bere ureztatzeko-kapitaletik euro bat ematen dio deialdi horietako batean aukeratutako proiektu bati jendeak Goteo plataformaren bidez emandako euro bakoitzeko.

Gipuzkoan kultura-proiektuak egiteko mikromezenasgoa. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016ko ekaina). Meta deialdiak 70.000 € ditu eta gizarte zibil antolatuen kultura-ekimene finantzazioa eta garapena sustatzera dago zuzenduta, baldin eta ekimen horiek Gipuzkoan sortu badira eta tokiko, nazioko edo nazioarteko ingurunean eragin positiboa izango duen itzulkin kolektiboa sortzeko prest badaude. [\[http://bit.ly/2doCcTE\]](http://bit.ly/2doCcTE)

Hiri hobeago bat sortzeko herri-proiektuak (Zaragozako Udala, 2015eko urria). CROWDFUNDING ZGZk Ureztatze Kapitaleko 12.000 € ditu hiri adimendunen alorreko arazo eta beharrei irtenbideak emateko proiektuetarako (energia, mugikortasuna, ingurumena, teknologia, ikasketa eredu berriak eta kultura digitala). Proiektuek Zaragozan egindakoak eta bokazio aske eta irekikoak izan behar dute. Deialdi hori honako hauei bideratu zitzaizen: enpresak, autonomoak, erakundeak, klusterrak eta instituzioak, ba-

nakakoak, taldekakoak, nahiz askotariko agenteak biltzen dituztenak. Haren helburuetako bat hiri adimendun baten garapenean inplikaturako agenteen eta baliabideen tipologia handitzea eta aniztea zen; beraz, ez zituzten kontutan hartu administrazio edo enpresa publikoek sustaturako proiektuak. [<http://bit.ly/2dm2NSD>]

Ekintzaitza proiektu berrietarako finantzaketa kolektiboa, Extremadurako Gobernuak. #Cofinancia (2013ko urria). Enpresa eta Jardun Ekintzailerako Zuzendaritza Nagusiak –Extremadura Avante–, Centroko Enpresa Kontseiluak eta Alentejoko Lurralde Garapenerako Agentziak –ASRAL– bultzatuta) Ureztatze Kapitaleko 20.000 € zituen, Euroeskualdea osatzen duten hiru lurraldeetan enpresa-proiektu berrien finantzaketa sustatzeko. Hauek dira lurralde horiek: Centro eta Alentejo (Portugal) eta Extremadura (Espainiako estatura). Deialdi honek, lurralde horretan enpresa-ekimena eta -proiektuak sustatzeaz gain, helburu hauek zituen: batetik, ekintzaileen eta mikrofinantzaileen artean kontaktu- eta lankidetzaren sareak sortzeko bide ematea, eta, bestetik, beste ekintzaitza eta finantzazio mota batzuk bultzatzea, berriak eta berritzaileak, parte hartzen duten proiektuen hedapena eta sustapena bultzatuz eta finantzaketa lortzeko estrategia erraztuz, finantzaketa bilatzeko tresna berrien bidez.

[<http://bit.ly/2dxEXUg>]

.....• **Egoera kalteberan edo bazterkeria egoeran daudenei laguntzeko mikrokredituak, Hernaniko Udalak (Gipuzkoa)**

Hernaniko Udalak lankidetzako hitzarmen bat sinatu zuen 2016an FIARE proiektua babesteko elkartearekin, hain zuzen, gizarte- edo finantza-bazterkeria arriskuan daudenei finantza-sostengua emateko; horretarako, premia sozialeko egoerentarako mikrokreditu-funts bat daukate (30.000 €). Mailegu bakoitzarekin batera (interesik gabe ematen dira),

zenbait hezkuntza-jarduera joan daitezke, hala nola, finantza-heziketako saioak, nahitaezko aurrezteari buruzkoak edo antzerako beste saio batzuk. Hernaniko Udalak balorazio-batzorde bat sortu du, eta eskaerentzat ahalik eta esku-hartze finantzario egokiena proposatzeko zereginarekin. Batzorde hori udaleko ordezkariak eta udalerriko zenbait agente sozialek osatzen dute, besteak beste, Hernaniko Fiare Elkarteak. [<http://bit.ly/2dgRgCz>]

.....• **Mailegu solidarioak, energia berriztagarrien sektorean, Udalbiltza**

2015ean, Udalbiltzak –Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra– Coop57rekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen, energia berriztagarrien sektorean Ekonomia Sozial eta Solidarioaren proiektuak finantzatzeko, horrela energia-burujabetza bultzatzeko garapen-eredu gisa. Deialdian onuradun suertaturako erakundeek Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sektorekoak izan behar dute, eta energia-eraginkortasuneko edo energia berriztagarrien bidez beroa edo elektrizitatea sortzeko proiektuak abiaraztea izan behar dute helburu. [<http://bit.ly/2cMYSKD>]

[gehiago jakiteko]

[www.fiarebancaetica.coop] Banca Ética Fiare.

[www.coop57.coop] Coop 57.

[www.goteo.org] Goteo: Matchfunding

[<http://bit.ly/2dcmBaW>]

[www.oikocredit.es] Oikocredit.

[<http://caes.coop>] CAES (Cooperación para el Aseguramiento Ético y Solidario).

2.2.

Desmonetizatutako ekonomia eta lankidetzako ekonomia

[zertarako]

Dirua erabiltzen ez duten antolakuntza sozioekonomikoko ereduak agerian jartzeko eta aintzat hartzeko, eta kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea bultzatzeko. Nola? Ondasun eta zerbitzuen sarbideari lotutako beharrak asetzeko bide alternatiboak –zuzentasunean, elkarrekikotasunean eta elkar laguntzean oinarrituak– sustatuz • Auzotarren arteko harremanetan sakontzeko eta gizarte-kohesioa sustatzeko.

[nola]

ESSk proposatzen du erakunde eta pertsonen arteko harremanak ezartzea, baina ez ezinbestean erabilera legaleko monetaren bitartez baldintzatuak. Orobat proposatzen du elkarlaneko jardunbide batzuk ezartzea, ondarearen erabilera lehenetsiko dutenak jabetzaren gainetik. Ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko premiak asetu ez ezik, elkarrekotasunean eta ekitatean oinarritutako harremanak sustatuko dituztenak eta gizartearen kohesioa areagotuko. Hemen horietako batzuk nabarmendu ditugu:

- **Truke-ekimenak:** truke-sareak eta ekimenak objektuak trukatzeko baina haratago doaz. Hortaz, pertsonen kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea egin dezaten ahalbidetzen du, kontsumoaren rola eta produkzioaren hartuz; horri “prosumitzaile” deitzen zaio. Tokiko erakundeek modu oso anitzetan susta ditzakete ekimen horiek; adibidez, azokak egiten lagunduz, mota horretako trukeak espazio publikoetan egitea zuzenean sustatuz, edo elkarguneak finkatuz.

- **Moneta sozialak, osagarriak edo tokikoak:** moneta soziala berdintasun handiagoko harreman ekonomikoak lortzeko tresna bat da. Erakundeen eta parte hartzen duten pertsonen artean gertatzen den jardura ekonomiko errearen arabera sortzen eta hedatzen da; beraz, ezin da harekin espekulatu. Tokiko moneta bat da, ez ditu interesak sortzen eta diruaren zirkulazio handia errazten du; horrek, ondorioz, barne-trukeak bultzatzen ditu. Moneta horiek eragin positiboa izaten dute ezartzen diren komunitateetan; tokiko ekonomia indartzen dute, udalerrian enplegua sortzen laguntzen dute, tokiko erosketak fidelizatzen dituzte eta lurraldean sortutako aberastasuna komunitatean denbora gehiagoz mugitu

dadin eragiten dute; auzotarren arteko hurbiltasun handiagoa errazten dute eta gizarte-ehunak berreskuratzen dira; diruaren funtzioari eta hura birdefinitzeko aukerari buruz modu sinplean eta zehatzean sentikortzen dute, eta abar. Askotariko moneta sozialak daude—munduan 400 tokiko moneta inguru eta Espainian 70 bat daudela kalkulatu da—, baita horien euskarri izango diren teknologia-plataforma anitzak eta funtzionatzeko era ugari ere. Nazioarteko zenbait esperientziak erakutsi dutenez (Toulouse, Bristol), udalek haien erabileran eta sustapenean nahastea erabakigarria da, haien irismena handitzeko eta bigarren mailako zerbitzu bider ez daitezela.

- **Denbora-bankuak:** zerbitzuak eta denbora trukatzeko sistema bat da. Bertan, parte-hartzaileek dirurik erabili gabe behar batzuk asetzeko alternatiba bat sortzen dute. Emandako eta jasotako zerbitzu-orduak soilik kontatzen dira. Denbora Bankuan, truke-jardura eta zerbitzu gutxi baliore bera dute; horrek garrantzia handia du etxeko lanen eta zaintzaren kasuan, historikoki ikusezin bihurtu baitira eta balioa kendu baitaie. Harreman sozialak eta lotura afektiboak sortzen laguntzen du; elkarrekiko truke aldeaniztunak ahalbidetzen ditu; pertsonen arteko laguntza bultzatzen du, berdintasun egoeran; gizarte-kohesioa eta auzo-harremanak sustatzen ditu, komunitatearen parte izateko sentimendua garatzen laguntzen baitu; eta baliabide ekonomikoetara sarbide txikiagoa dutenen beharrak asetzea ahalbidetzen du.

- **Elkarlaneko ekonomia:** sistema ekonomiko bat da, non ondasunak eta zerbitzuak plataforma digitalak erabiliz partekatzen eta trukatu baitira. Hortaz, teknologiaren garapenari esker eman da ohiko truketik

elkarlaneko kontsumorako pausua; izan ere, trukerako eta ondasun eta zerbitzuak alokatzeko modu berriak bultzatu ditu, Interneten eta teknologia mugikorren erabilera berriei esker.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Moneta Sozialak**

Bristol Pound, Bristol Udala (Ingalaterra). Bristolen – milioi bat biztanletik gorako hiria–2012tik martxan dagoen moneta soziala da, eta Ingalaterra hegoaldeko hiri honetako tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko xedearekin sortu zen. Eskualdeko moneta denez, hiriaren 80 kilometroko inguruan erabil daiteke. Kreditu kooperatiba baten laguntzaz garatu da; erakunde horrek libera esterlinek dituzten segurtasun-parametro berberak erabiltzen ditu Bristol Poundeko kontuak kudeatzeko. Monetaren arrakastan funtsezkoa izan da Udalaren konpromisoa eta parte-hartzea, zergak moneta hori erabiliz ordaintzea onartzen baitu, eta udaleko langileei euren soldata Bristoleko liberatan jasotzeko aukera ematen baitie. [<http://bit.ly/2cqpxBA>]

Toreke, Genteko Udala (Belgika). 2011tik Rabot-Blaisantvesten (Gent hiriko auzoa) martxan dagoen moneta komunitarioa, Udaletxeak sustatua. Borondatezko hainbat komunitate-proiektutan parte hartuz lor daitezke Torekeak (500 jardueratik gora daude: kaleak garbitzea, ekitaldi berezien ondoren kiroldegia garbitzea, balkoietan loreak jartzea eta abar). Torekeekin “bio” produktuak eta sasoi-koak eros daitezke, baita kontsumo gutxiko bonbillak, garraiobide publikoko txartelak eta auzoko kultura-jardueretarako sarrerak ere. Proiektua finantzatzeko, aurrez

zerbitzu horiek ordaintzeko erabiltzen zuten aurrekontua erabiltzen dute; izan ere, orain herritarrek ematen dituzte. [<http://bit.ly/1gRUOTL>]

Txantxia, Oñatiko Udala (Gipuzkoa). Oñatiko Udalak, 2014an, “Txantxi” moneta soziala sortu zuen, tokiko ekonomiarekiko konpromisoa eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko, eta herritarrak bertan kontsumitzera fidelizatzeke eta gastuaren ihesa gutxitzeke. Moneta soziala erabiltzeak herrian proiektu solidarioak gauzatzeko eta tokiko merkataritza sustatzeko gizarte-funts bat eratzen laguntzen du. [<http://bit.ly/2cqocdS>]

.....• **Elkarlaneko ekonomia, Zaragozako Udala**

Colaboradora Fest urtero ospatzen den foro bat da, (ekintzaileak, funtzionario publikoak, enpresa-liderrak, GKEak, herritarrak, aktibistak eta ezagutzaren liderrak biltzen ditu), Zaragozan Elkarlaneko Ekonomiari buruzko ikuspegi partekatatu bat sortzeko. Foro hori Zaragozako Udalak (Zaragoza Activa kolaboratzailearen bidez) eta Ouisharek (komunitate globala eta irekia da eta elkarlaneko ekonomia sustatzean interesatutako ehunka enpresario, maker, diseinatzaile, ikertzaile, ordezkari publiko eta herritar biltzen ditu) antolatzen dute. [<http://bit.ly/1lmtukQ>]

[gehiago jakiteko]

[www.consumocolaborativo.com] Elkarlaneko kontsumoa.

[www.monedasocial.org] Moneta Sozialaren Institutua (IMS): INEVAL Fundazioaren proiektu bat da; monetaren alorrean ikerketak egiten eta jakintzak hedatzen ditu, eta haien sorrera bultzatzen du.

[www.bdtonline.org] Lineako Denbora Bankuen Sarea.

[www.vivirsinempleo.org] Vivir sin empleo: trukeari, denbora-bankuei, moneta sozialei eta hautabideei buruzko informazioa duen bloga.

[<http://monedascomplementarias.pbworks.com>] Moneta osagarriei buruzko elkarlaneko webgunea.

2.3.

Merkatu soziala

[zertarako]

Irizpide demokratiko eta gardenetatik truke ekonomikoko harremanak bultzatzeko, ondasun eta zerbitzuen produkzio-, banaketa- eta kontsumo-sare bat eraikiz, irizpide etikoak, demokratikoak, ekologikoak eta solidarioak dituen a • Konpromiso sozialeko kontsumo-aukerak eskaintzen, proiektu sozioekonomiko berriak bultzatzen eta soberakinak eta baliabideak (elkarteen, bigarren mailako kooperatiben eta talde kooperatiboen bidez) partekatzen dituen espazio bat eraikitzen parte hartzeko.

[nola]

ESS ziklo ekonomiko osoan dago –produkzioa, banaketa, kontsumoa eta finantzaketa–. Hala ere, ekonomiaren bidez gizartea eraldatzeko gure helburuan aurrera egiteko, beharrezkoa zen sektore guzti horiek lotzea, eta ESSko proposamenak erakusgai eta ikusgai jartzea, baita proposamenon arteko elkarlana sustatzea ere. Hortaz, REAS Red de Redesen (REAS RdR) inguruan bildutako ESSko eskualde-sareek Merkatu Sozialaren proiektua abiarazi eta dinamizatu dute. “Irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioak dituen ondasun eta zerbitzuen produkzio-, banaketa- eta kontsumo-sare bat da, eta ESSko enpresek eta erakundeek sortu dute, banako eta taldeko kontsumitzaileekin batera. Hainbat helburu ditu; besteak beste, sareko parte-hartzaileen beharren gehiengoa asetzea eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa ahal bezainbeste ekonomia kapitalistatik aldentzea.

Lurralde bakoitzean Merkatu Sozialak sortuz, honako hau lortu nahi da:

- ESSko erakundeen ikusgaitasuna, bideragarritasuna eta iraunkortasuna indartzea eta, batez ere, ohiko merkataritzaren ordezkioak diren zirkuituak sortzea, kontsumo kritikoaren, kontzientearen eta eraldatzailearen ikuspegitik.
- Merkatua eraldatzeko arduran pertsona eta erakunde kontsumitzaile, produzitzaile eta banatzaile guztiak inplikatzeko.

REAS RdRen inguruan bildutako eskualde-sare anitzez gain, finantza etikoen, energiaren edo aseguruaren arloko beste sare batzuk ere parte hartzen dute, bai eta beste gi-

zarte-mugimendu batzuk eta kontsumo kritikoarekin lotutako komunikabide batzuk ere.

Euskadiko Merkatu Soziala, esaterako, 50 erakunde baino gehiagok osatzen dute, eta, praktikan, eguneroko bizitzako esfera guztiak barne hartzen dituzten ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituzte. REASen Euskal Herriko Merkatu Sozialaren katalogoa esteka honetan kontsultatu daiteke:

[<http://bit.ly/2cSPHvG>].

[saiakuntza-bankua]

.....• Euskadiko Merkatu Sozialeko azokak, REAS Euskadi

2013tik, REAS Euskadiko Merkatu Sozialeko azokak bultzatzen ditu, hainbat udalen laguntzarekin, herritarrei kontsumo kritikoaren, kontzientearen eta eraldatzailearen esparruko ESSren proposamenak hurbiltzeko. EAEko hiru Lurralde Historikoe-tako hiriburuetan Merkatu Sozialeko azoka bana egin da, eta milaka pertsonak hartu dute parte.

[www.goazenazokara.org]

Halaber, Leioako eta Tolosako udalek horrelako feriak bultzatu dituzte beren udalerrietan.

Lurraldeak ekonomia solidarioaren bitartez eraldatuz. Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak

.....● **Merkatu Sozialeko Azokak**

Urte hauetan, beste zenbait lurraldetan ere sustatu dituzte Merkatu Sozialeko azokak:

- Madrilen [<http://bit.ly/1sKzwy4>]
- Bartzelonan [<http://www.firaesc.org/>]
- Zaragozan [<http://aragon.mercadosocial.net/>]
- Nafarroa [<http://bit.ly/2dLOkxa>]
- Andaluzian [<http://bit.ly/2dxHQ7r>]

[gehiago jakiteko]

[<http://mercadosocial.konsumoresponsable.coop>]

REAS Sareen Sarearen Merkatu Sozialeko proiektuaren webgunea

2.4.

Merkaturatze zirkuitu laburrak

[zertarako]

Gure tokiko ekonomia dinamizatzeko eta landa-inguruneko ekoizleei irabazi duinak bermatzeko • Tokiko komunitatearen ikuspegitik, balio-kateak birkokatzeko modu bat dira. Zehazkiago, helburu hauek dituzten balio-kateak: lurraldeetako balioa mantentzea, enplegua sortzea, ondarea balioztatzea eta ekoizpena aktibo ukiezinez hornitzea (marka, lurralde-euskarria).

[nola]

Hurbileko zirkuituak edo Merkaturatze Zirkuitu Laburrak (MZL) sasoiko produktuen zuzeneko salmentan oinarritutako merkataritza-sistemak dira, eta gutxienera murrizten dituzte ekoizle eta kontsumitzaileen arteko bitartekariak (pertsonek edo erakundeak). Produktuak ez dituztenez urrutira eramaten eta, orokorrean, ez dituztenez ontziratzen, ingurumen-inpaktu txikiagoa egozten zaie. Sarritan, bolumen txikiko edo artisautza-sistemen bidez lortutako ekoizpenak izaten dira, lurraldeko ekoizleek beste bideetatik merkaturatu ezingo lituzketenak. Produktzioaren eta kontsumoaren arteko zuzeneko komunikazioan, elkar ezagutzan eta garrantasunean oinarritzen dira.

Merkaturatzeko bide laburrak funtsezkoak dira nekazaritza-eta ingurugiro-eredu berri bat definitzeko eta baserriko eta familiako nekazaritzaren alde borrokatzeko. Oinarritzakoak dira, halaber, merkatu-ekonomiatik kanpo kokatutako ordeko garapen-eredu baterako. Beraz, egungo merkaturatze-ereduari erantzuteko guneak eta "erresistentzia" espazioak dira, produktzioaren eta kontsumoaren ikuspegitik, eta gizarte-mugimendu izaera hartzen dute.

Europako LEADER II Behatokiaren arabera, askotariko MZLak aurki daitezke: ustiategian zuzenean saltzea, tokiko azoketan zuzenean saltzea, tokiko dendetan (salmenta-puntu kolektiboak, jatetxeak) eta supermerkatuetan saltzea, etxeetan banatzea, aurretiko salmenta, posta edo posta elektronikoko bidezkoa, ustiategian bertan kontsumitzea (landa-turismoa) edo sektore publikoko erakunde-programei zuzenean saltzea.

Ekologistak Martxanek zenbait nazioarteko mintegi antolatu ditu, merkaturatzeko bide laburreko esperientziei

buruzkoak; horiei esker, zirkuituon aukerei eta ahulguneei buruzko ondorio batzuk atera ditugu.

- Tokiko zirkuituen aldeko apustua egiten da, kontzeptu hori malgutasunez ulertuta, lurralde guztiek ez baitituzte aukera berberak, eta gizarte-mugimendu gisa ulertuta, gizarte-eraldaketako ikuspegi soziopolitiko argi batekin. Horizontaltasuna dute funtzionatzeko modu nagusizat, bai eredu bakoitzean, bai proiektuen arteko harremanetan eta elkarreraginetan.

- MZLek eskari eta aukera handiak dituztela antzematen da; izan ere, talde askok itzarote-zerrenda luzeak ditu. Hala ere, dirudienez, biztanleria-sektore berrietara heltzeko sentikortzeko eta prestakuntzako lanak egin behar dira.

- Identifikatutako erronketako bat ekoizleen bideragarritasuna bermatzea da. Horrekin lotutako oinarritzako aspektu bat dago berebat; hain zuzen, belaunaldi-aldaketa eta gazteek lurrak lortzeko gaur egun oraindik duten zailtasun handia.

- Borondatezko lan askorekin funtzionatzen duten eruedetan, logistika da kate-maila ahulena.

- MZLn oinarritutako agroekologiaren botere eraldatzaile handia nabarmentzen da, izan ere, herritar gehienentzat oinarritzakoa den premia bat asetzen du.

Oraindik merkaturatzeko modu xumea da, baina handituz doan alternatiba bat da, nekazaritzaren eta elikaduraren sektorean indartsuagoak diren eta errotuagoak dauden banaketa-kateen eta produktio-zirkuituen aldean. Horregatik,

administrazioak jada hasiak dira horren garrantzia aintzat hartzen –oso modu desorekatuan, baina–, eta, pixkanaka, babes- eta hedapen-egiturak eta -proiektuak diseinatzeko ari dira.

Entre la diversidad de iniciativas en el ámbito de de las políticas públicas locales de apoyo a la promoción de CCC, podemos citar las siguientes:

- Azoka tradizionalak berreskuratzea (adibidez, Ordizia, Tolosa, Bergara eta Arrasate; Gipuzkoa).
- Tokiko produktuen azokak sustatzea (adibidez, Aramaio; Araba).
- Marka sortzeko proiektuak egitea (adibidez, Urola Garaiko Mankomunitatea; Gipuzkoa).
- Eskoletarako, egoitzetarako, aterpetxeetarako eta abarretarako menuak tokiko eta sasoiko elikagai ekologikoak erabiliz egitea (adibidez, Ekolapiko proiektua; Gipuzkoa).
- Agroekologia eta elikadura-burujabetzari lotutako garapen-proiektu batean udal-sukalde bat egitea (Urduña; Bizkaia).
- Mozio bat onestea, kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-klausula batzuk txertatzeko, udal-jantokietan tokiko eta bidezko-merkataritzako elikagai ekologikoak leheneste aldera (Gasteizko Udala, aho batez onetsia).

Kontsumitzaile eta ekoizleen arteko sareak eta merkaturatzea eraikitzeke esperientziak ere badaude, Nekasare delakoa, kasurako; bitartekotzarik gabeko kontsumo talde autonomoen sare bat, 2005ean EHNE Bizkaia sindikatuak eta Basherry Sareak abiarazia (Gipuzkoako antzeko sare bat).

[saiakuntza-bankua]

.....• **Erosketa publikoetan zirkuito laburrak, Brasilgo eskola-elikadurarako**

Brasilgo Eskola Elikadurarako Programa Nazionalak (Política Nacional de Educação Ambiental, PNEA) 50 urte baino gehiago daramatza martxan Brasilen. Hasieran erosketa zentralizatua zen, baina 2003an familia-ekoizleei bideratutako erosketa deszentralizatuaren ikuspuntua ezarri zen berriz. 2009an lege bat onartu zuten, zeinaren arabera Estatuak udalerriek eskola-elikadurarako ematen dizkien baliabideen % 30 familia-nekazaritzarako eta haren erakundeetarako erabili behar baita, tokiko produkzioa lehentsez. [<http://bit.ly/2cXO2ly>]

.....• **Frantziako Nekazaritza-Ministerioaren zirkuitu laburretarako Ekintza-Plana**

2009an, Frantziako Nekazaritza Ministerioak ekintza-plan bat bultzatu zuen zirkuitu laburretan merkaturatze-ereduei lotutako produkzioak sustatzeko eta garatzeko. Plana ardatz hauen inguruan diseinatu dute: a) administrazioak zirkuitu laburren funtzionamenduari eta eskakizunei buruz dituen ezagutzak hobetzea; b) nekazariak zirkuitu laburretan sartzea babestea; eta c) esku hartzen duten aktoreen eskumenak hobetzea. [<http://bit.ly/2cXO2ly>]

.....• **Bertatik-Bertara, Urola Garaiko Mankomunitatea (Gipuzkoa)**

Bertatik Bertara (Urola Garaiko Mankomunitatea, Gipuzkoa). Proiektu bat eta sortutako marka bat da, eta 2012tik Urola Garaiko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako udaletan dihardu. Helburua tokiko ekoizleen

lana ezagutaraztea da, euren produktuak merkaturatzen lagunduz. Ingurumen eta Landa Garapenerako Batzordeak sortu zuen, tokiko produkzioaren, banaketaren eta kontsumoaren artean zubiak eraikitzeke beharra ikusi baitzuen. Produkzio iraunkorra sustatzen duen eredu iraunkor bat da. Produktore, kontsumitzaile edo merkatarik gisa parte hartu daiteke. [<http://bit.ly/2d6atJW>]

.....• **Azoka tradizionalak berreskuratzea**

Arrasateko (Gipuzkoa) Azokako jarduera biziberritzeko eta berriz pentsatzeko prozesua. Arrasateko Udalak eta Bagara elkarteak 2012an sustatutako ekimen bat da. Horren bidez, herritarren eta gizarte-agenteen laguntzarekin, Arrasateko Azokaren espazioa finkatzeko prozesu bat abiarazi nahi dute, zaintzari eta behar kolektiboek erantzuna emateko helburuz. Ekimen horren xedea da sortutako espazioak egun nagusi diren kontsumo-logikei buruzko hausnarketa bultzatu, eta herritarren kontsumo-ohituretan eragin dezala. [<http://bit.ly/2d6awp6>]

Tolosako (Gipuzkoa) Azoka suspertzea. Tolosako Udalak eta Tolomendi Landa Garapen Elkarteak suspertze-zerbitzu bat abiarazi zuen, hainbat ekimenen bidez (tailerrak, produktuak ikusgai bihurtzeko estrategiak, gastronomia-ekitaldiak...) herritarrek, batez ere gazteek, azokan erostea eragiteko asmoz. [<http://bit.ly/2dlyKuV>]

[gehiago jakiteko]

AZOKA BERGARATZEN. Bergarako Udalak (Gipuzkoa) bultzatutako prozesu bat da, azoka lankidetzaren eta herritarren parte-hartze zabalaren bidez biziberritzeko asmoz, helburuak partekatuz eta sinergiekin baliatuz. Prozesu hori Bergara elkarteak sustatzen du. [<http://bit.ly/2cEVG4t>]

[www.basherrisarea.org] BASHERRI SAREA.

BIZILUR, ETXALDE eta EHNE Bizkaia (2015): *Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza eraiten. Elikadura-burujabetza abiapuntu, tokiko politika publikoak eraikitzeke zenbait proposamen.* [<http://bit.ly/2dB59JU>]

ECOLOGISTAS EN ACCIÓN, Seminarios Internacionales de experiencias en canales cortos de comercialización: I. Mintegia (Kordoba 2010) nekazaritza eta ingurumeneko MZLei buruzko [<http://bit.ly/2dcKvoz>]; II. Mintegia (Lizarrar 2013) [<http://bit.ly/2d63QHV>]; III. Mintegia (2014) eskola-jangeletan elikagai agroekologikoak erabiltzeari eta sukaldaritza kolektiboko beste formei buruzko MZLen inguruan [<http://bit.ly/2hqhblr>]; IV. Mintegia (Cuenca 2015) nekazaritza eta ingurumen MZLei buruz. [<http://bit.ly/2cvw5x3>]

EKOLAPIKO. Ekimen honen helburua eskola-jangeletan janari osasungarri eta orekatua sartzea da, elikagai ekologiko, tokiko eta sasoikoetan oinarritutako menuak eginez. [<http://bit.ly/2cEVoux>]

NAZIO BATUAK-CEPAL (2014): *Fomento de circuitos cortos como alternativa para la promoción de la agricultura familiar.* [<http://bit.ly/2cXO2ly>]

ORDIZIAKO AZOKA. Ordiziako (Gipuzkoa) azoka tradizionala suspertzea, hura biziberritzeko. [<http://bit.ly/2cEVfqU>]

Bideoa: "Regresando al futuro, Orduña hacia la Soberanía Alimentaria". [<http://bit.ly/2d20LFC>]

2.5.

Ekintzaitza Ekonomia Sozial eta Solidarioan

[zertarako]

Aberastasun gehiago eta hobe sortuko duen eredu sozioekonomiko berri bat eratzen laguntzeko. Horretarako, izaera kolektiboa eta soziala duten balioetan –autogestioa, demokrazia, sareko lana, lankidetzeta eta gizarte-berrikuntza– oinarritutako ekintzaitzak bultzatzen dira lurraldean • Tokiko ahalmena sortzeko eta herritarrentzat baldintzak eta aukerak ugaritzeko. Gainera, giza garapena bultzatzen du, parte-hartzearen eta ahalduntzearen printzipioetatik abiatuta, garapen-prozesuan parte hartzeko eta ahalduntzeko, eta hartatik onurak jasotzeko.

[nola]

Tokiko garapen eredu alternatibo berri bati laguntzeko, aberastasunaren eta hazkunde ekonomikoaren kontzeptuak birplanteatu behar dira, eta beste batzuk norbereganatu; esaterako, bizitzaren, ingurugiroaren eta gizartearen iraunkortasuna, kultur garapena, zuzentasuna eta aukera berdintasuna. Horrek, besteak beste, erakunde publikoek sustatzen dituzten ekintzailtza ereduak berrikustea suposatzen du, bultzatu nahi dugun eredu sozioekonomikoaren aldaketari egokitzen zaizkion ikusteko. Gida honek Tokiko Giza Garapenari erantzuna emango dion eredu bat proposatzen du, gizarte bakoitzetik pentsatuko eta ekingo duena, oinarrian pertsonak –banaka zein kolektiboki hartuta– dituen garapen-eredu baterako proiektu kolektiboak sortzeko. Gida honen hasieran agertu genuen moduan, ESSk lotura estua du modu horretan ulertutako tokiko garapenarekin.

ESSko ekimenek eta ekintzailtzek, beharrezko iraunkortasun teknikitik eta finantzariorik abiatuta, itzuri egiten diete irabaziak handitzeari eta produktibitate-ereduari soilik begiratzen dieten ikusmoldeei (non langileen garapenaren gainera jartzen baita kapitalaren metaketa, eta ez baitira axola helburuak lortzeko sortutako kalte sozialak edo ekologikoak). Ekimen kolektibo horiek, ezinbestean, alderdi hauek lehenesten dituzte beren kudeaketari: autonomia eta berdintasuna sustatzea, parte-hartzea, lankidetzaren, soldata-eskala bidezkoak eta proportzionalak ezartzea, gardentasuna eta gizarte-auditoretza, ingurumen- eta gizarte-iraunkortasuna eta abar. Irabazi-asmorik gabeko jarduera ekonomiko horietan, ez diren banatzen irabaziak; aitzitik, egonez gero, berriz inbertitzen dira, enplegu berriak sortzeko, egitura teknikoa hobetzeko eta gizartearentzat onuragarriak izango diren ekintzailtza berriei laguntzeko.

Ekintzailtza eredu hegemonikoaren aurrean –startup gisako elementuak eta azkenean ekintzaileak manipulatzeko dituzten aktore mapa konplexuak dituztenak–, ESSk gizarte-eraldaketarako tresna gisa ulertutako ekintzailtza-ekimen kolektiboak bultzatzearen alde egiten du. Testuinguru horretan, agerikoa dirudi gizarte-ekintzailtza-ekimenak sustatzeko laguntza-egitura zehatzak behar direla, ekimen horiek sustatzen dituzten pertsonen beharrak asetzen dituztenak, eta haien prestakuntza, laguntza eta bestelako programak ekimen eta proiektu sozial eta solidarioen errealitateetara egokituko dituztenak.

GEZKik –EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua– 2015ean unibertsitateko gizarte-inkubagailuen ereduari buruz hausnartzeko antolatutako mintegi batean, ESSko ekintzailtza ekimenak bultzatzeko sistemak eta programak diseinatzean kontuan hartu behar diren “gizarte-ekintzailtza-erakundeak” arrakastaren gakoak eta zailtasunak identifikatu zituzten.

Hona hemen gizarte-ekintzailtza-ekimenak bultzatzeko prozesuen arrakastaren gakoetako batzuk:

- *Coworking* gune bat egotea, zeinetan ekintzaileek elkar aurkitzeko, bilerak egiteko, lankidetzan jarduteko eta laguntza- eta lan-sareak sortzeko aukera izan dezaten.
- Laguntza teknikoa eta gizatiarra. Laguntza sare edo ekosistema bat izatearen balioa nabarmenduz, eta laguntza horri praktikatik eta bizipenetatik heltzearen garrantzia azpimarratuz. Baterako eta diziplina arteko laguntza proposatzen da, askotariko logikak dituzten

agenteak hartuz eta elkar-lankidetzat sustatuko duen ekintzailletza sare edo sistema bat sortuz.

- Tokiko edo eskualdeko inguruarekiko lotura. Erabil-tzaileek emandako informazioetik abiatuta, gizarte-beharrarekin etengabeko lotura ezarriz.

- Kanpo-ikusgaitasuna eta -komunikazioa. Sentikortzeko eta diskurtso alternatiboa sortzeko lana, dauden kontzeptuei eta parametroei ikuspegi kritiko eta sozialetik esanahi berria ematea. Aspektu horretan ikus daiteke Merkatu Sozialak gaitasun handia duela egitura eta laguntza-sare gisa, ESSko ekintzailletza ekimenei martxa onean eta erroetan.

- Finantzaketa etiko eta alternatiborako aukerak egotea, soberakinak gizarte-berrikuntzan inbertitzea, autofinantzaketa, eta abar.

Zailtasun hauek nabarmentzen dira:

- ESSko ekintzailletza proiektua bideratzeko beharra, gizartea eraldatzen duen ekimen gisa, eta ez ekimen ekonomiko eta indibidual gisa soilik.

- Langile-profil "ezohikoekin" lan egitea, hau da, zailtasunak dituztenekin edo kalteberatasun- edo gizarte-bazterkeria egoeran daudenekin. Ekintzailletza-sistema zabalagoak izateko beharra nabarmentzen da, ekintzaile eta ekintzailletza mota anitzentzat tokia izango dutenak.

- ESSko ekintzailletza-proiektuak sektoreka banatzea. Beharrezkoa da ekimen horiek ESSn ohikoak ez diren jarduera- eta jakintza-sektoreetara zabaltzea sustatzea.

- Ekintzailletza-ekimenak lurraldearen beharrekin, ekintzaile posibleekin eta beste gizarte-aktore batzuekin (sektore publikoa, gizarte-mugimenduak...) lotzea, testuinguruaren bidez zirkuluak itxi eta balio-kateak sortzeko.

- Ekimen mota horiek sustatzen dituzten erakunde publikoetan (tokiko garapen-agentziak, udalak...) ez dago erreferentzia eta baliabide egonkorrik (langileak eta aurrekontua), eta horrek zailago bihurtzen du ekintzailletza esperientziak martxan jartzea. Horrez gain, badaude beste elementu nabarmengarri batzuk: adibidez, gehiegizko burokratizazioa eta ekintzailletza horiei emandako laguntza ekonomikoak ordaintzen atzeratzea.

- Espazio fisiko eskuragarririk ez izatea, eta ekimenak abiarazteko prestakuntza bateragarririk ez izatea.

- Ekintzailletza sistemek ez diete erantzuten jadanik martxan dauden proiektuei. Jadanik martxan dauden erakundeei ez laguntzeak proiektuak eta jarraitutasuna oztokatzen ditu.

- Proiektuak sendotzea eta jarraitutasuna izatea.

- Merkatu kapitalistako ingurune batean ESSren balioak praktikan jartzearen zailtasuna.

ESSren ekoizpen-sarea asko garatu da azken urteotan. Baina beharrezkoa da jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat ematea, hartutako tokia finkatzeko eta hedatzeko, eraginkortasunez gizarte osora zabaltzeko. Hori dela eta, erakunde publikoen babesa erabakigarria izan daiteke ESSko ekintzailletza ekimenei sorrera eta hazkundera lagunduko duen testuinguru bat eratzeke.

Euskal Herrian, zenbait udalek ekintzailletza proiektuei aholkua eta laguntza emateko zerbitzuak ematen dituzte; besteak beste, espazioak lagatzen dituzte, zein doan, zein prezio txikietan. Orokorrean, zerbitzu horiek ez daude bereziki ESSko ekintzailletzarako bideratuak eta diseinatuak, eta ez dituzte mota horretako ekimenei laguntza eta aholkua emateko nahikoa prestatutako langileak izaten. Hala ere, udal batzuek lokalak ESSko proiektuei lagatzea

lehenesten dute, eta beste batzuk, berriaz ESSko proiektuetara bideratzen ez dituzten arren, solidarioak diren edo gizartean eragin ona duten proiektuak lehenesteko irizpideak ezartzen dituzte.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Ekonomia Sozialeko Erakundeak eta Kooperatibak sortzeko eta finkatzeko babes emateko programa, Zaragozako Udala**

Zaragozako Udalaren programa bat da, REAS Aragón taldearekin elkarlanean egina, ESSko erakundeak eta kooperatibak sortzeko eta finkatzeko. Haren alderdi agerikoena emprendes.net webgunea da. Hainbat jarduera-ildotatik, ekintzailatza kolektiboak abiarazteko edo lehendik dauden enpresak ESSko erakunde bihurtzeko tresnak, prestakuntza, materialak eta tutoretzak eskaintzen dituzte.

[<http://emprendes.net>]

.....• **Kataluniako Lan-Kooperatiben Federazioko Udalerri Kooperatiboaren Programa**

Kataluniako Lan Kooperatiben Federazioak 2013an hasi zuen programa hau, lurraldeko ekonomia kooperatiboaren hazkundera eta finkatzean tokiko administrazioak eta erakunde eta agente ekonomikoak eta sozialak inplika zitezten. Programa horren barruan, kooperatibismoari buruz sentikortzeko ekintzak, alor teknikoan eta orientatibidean prestatzeko zerbitzuak eta lan-kooperatibak sortzeko aholkularitza daude. Halaber, administrazioarekin zuzenean lan egiten dute, kontratazio publikoko prozesuetan gizar-

te-klausulak txertatzeko. Programa hasi zenetik, jadanik 18 udalerri atxiki dira. [<http://bit.ly/1P2Rhr7>]

.....• **Kooperatzen-eraldatzen, Buruntzaldea Eskualdeko (Gipuzkoa) Garapen Integraleko Agentzia**

Beterri Buruntzaldea eskualdeko Garapen Integraleko Agentzia da, eta hura osatzen duten Gipuzkoako sei udalerriek bultzatu zuten, 2015ean. Agentzia horren helburua beste garapen eredu bat sustatzea da, gizarte-eraldaketarako kooperatibismoan oinarrituko dena. [<http://bit.ly/2d1NX3Z>]
Agentzia horrek eskualdeko programa estrategiko bi ditu:

- Kooperatzen: zerbitzu honek ikuspegi eraldatzaileko proiektu kooperatiboak bultzatzeko helburua du, eta ESSren alorrean ekintzailatza ekimen bat sustatu nahi dutenei dago zuzendua; horretarako, prestakuntza, baliabideak, azpiegitura eta aholkularitza eskaintzen dizkie.
- Eraldatzen: oraindik ekintzailatzari buruzko ideia garbia ez dutenei zuzendutako prestakuntza zerbitzua da.

.....• **Berrekin, berregin, Bergarako Udala (Gipuzkoa)**

Gizarte- eta komunitate-ekintzailatzari buruzko prestakuntza-programa bat da, Debagoieneko gazteei zuzendua eta Mondragon Unibertsitateko LANKI ikerketa taldeak eta Bergarako Udalak sustatua. Programaren helburua da gertatzen ari diren gizarte-aldaketei buruzko hausnarketa sustatzea, eta tokiko garapenaren balioa eta haren hedadura sozioekonomikoa aintzat hartzea. Bestalde, gizarte- eta komunitate-ekintzailatzarako tresna eta erreferentzia erabilgarriak eskaini nahi dituzte. Azkenik, gizarte- eta komunitate-ekintzailatzaren inguruko negozio-ideiak gartzten dituzte. [<http://bit.ly/2dj7ll2>]

.....• **Kultura ekintzailea eskolan, Bartzelonako Diputazioa**

Proiektu honek ekintzailtzako kultura eta oinarrizko trebetasunak sustatzen ditu, lehen hezkuntzako goi-zikloan. Proiektu honen kultura ekintzaileak, oinarrizko enpresa-filosofia gisa, eredu kooperatiboaren aldeko apustua egiten du, kudeaketa demokratiko eta parte-hartzaileko eredu bat eskaintzen duelako eta gizarte-erantzukizunaren alderdia indartzen duelako.

Ikasturtean zehar, ikasleek eskola-kooperatiba bat sortzen eta kudeatzen dute, hezkuntza-komunitatearen, administrazioaren eta herriko beste gizarte-agenteen laguntzarekin. [<http://bit.ly/2iZSWVK>]

[gehiago jakiteko]

GEZKI –EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua– (2016): Gipuzkoako zaintza esparruan Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekimenak martxan jartzeko oinarriak. II *Incubadoras de Economía Social y Solidaria: Experiencias Internacionales y definición participativa de una incubadora social universitaria* txostena. [<http://bit.ly/2dlrak8>]

REAS Aragón. C2C *Conversaciones. Aprendizajes e intercambio entre promotores/as de la ESyS*. Topaketa 2015eko abenduaren. [<http://bit.ly/2cN22nC>]

2.6.

Toki-garapeneko planetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak

[zertarako]

Tokiko garapen-ekonomikoko estrategiek emakumeen zein gizonen beharrak, interesak eta lehentasunak barne har ditzaten, bermaturik bi-biek jasotzen dituztela proposatutako aldaketa sozioekonomikoen onurak, genero-desberdinkeriak ezabatuz eta emakumeek lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialaren prozesuan bete-betean parte har dezatela bermatuz.

[nola]

Emakumeen eta gizonen jarrera ekonomiko desberdina azaltzerakoan, sarritan, oraindik oso errotuta dauden eta historikoki desberdintasun biologikoekin lotu diren estereotipoak erabiltzen dira gaur egun ere. Estereotipo horiek kolektibo batzuk diskriminatzeko eta beste batzuen alde egiteko erabiltzen dira. Ekonomiari lotutako estereotipoak dira, eta horiekin amaitu beharko litzateke (Jubeto eta Larrañaga, 2014)⁴. Horiek horrela, honela deskribatzen da subjektu maskulinoaren jarrera ekonomikoa: berekoia, satisfazio eta etekin pertsonala soilik bilatzen duena, merkatuaz soilik arduratzen dena (eta bere helduaro guztian erabateko dedikazioa ematen dio), laguntzarik behar ez duena, memoriarik eta justizia, elkarrekotasun eta solidaritate sentimendurik gabekoa. Aldiz, subjektu femeninoa honela definitzen da: altruista, maitasunaren truke ordainik gabeko zaintza eta erreproduktzio lanak egiten dituena, familiaren maitasunaren eta esker onaren saria aski duena, familiakoen beharrak bere beharren gainetik jartzen dituena, menpekoea, merkatuan parte hartu edo ez aukera dezakeena (betiere familia-bizitzaren aldaketek baldintzatutako parte-hartzea). Ildo horretan, gaur egun oraindik beharrezkoa da sentikortzeko eta kontzientziatzeko lan jarraitua egitea, estereotipo horiek gainditu ahal izateko; izan ere, sarritan estereotipo horietan oinarritzen dira zenbait ekintza publiko eta pribatu mantentzen dituzten iruditeriak.

NLEko –Nazioarteko Lan Erakundea– genero berdintasuneko bulegoak, Guía para la incorporación de la perspec-

tiva de género en las estrategias de desarrollo económico (2010) gidan, azaltzen du genero-desberdinkeriek hainbat oztopo jartzen dizkietela emakumeei, eta haien erruz ezin dutela erabat parte hartu garapen ekonomikoko estrategietan. Oztopo horiek oraindik zailagoak dira emakumeak bereizkeria anizkunen biktima direnean (jatorri etnikoagatik, erlijioagatik, etorkina izateagatik, dibertsitate funtzionala izateagatik, eta abar). Hauek dira oztopo arruntenak:

- Erabakiak hartzen diren egituretan ordekaritzarik ez izatea.
- Hezkuntzarako aukera murriztagoak, eta, ondorioz, informaziora sarbide urriagoa izatea, besteak beste.
- Pertsona maila txikiagora azpiratzen duten eta bere buruarengan konfiantza ahultzea eragiten duten lanbideetara mugatzea.
- Azpiegitura zerbitzu eskasak, eta horrek aukeretan dituen ondoriozko kostuak.
- Zeregin ugari izatea, eta, ondorioz, auzi publikoetan parte hartzeko denbora eta energia gutxiago izatea.
- Finantzetara sarbide mugatua, bermerik eta emaitza oneko aurrekari komertzialik ez izateagatik; edo interes-tasa altuak.
- Enpresa-garapeneko zerbitzu eskasak edo esku-raezinak izatea.

4 LARRAÑAGA SARRIEGUI, Mertxe eta Yolanda JUBETO RUIZ (2014): “La economía será solidaria si es feminista”, in *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica*. REAS Euskadi, Bilbao.

- Emakumeen mugikortasunari dagozkion muga kulturalak.
- Tokiko mailan enplegu-aukera urriak izatea.
- Egoera irregularran dagoen etorkina izatea.

EMAKUNDEK –Emakumearen Euskal Erakundea– tokiko eta eskualdeko garapenean genero ikuspegia txertatzeko argitaratutako gida horretan azaltzen dutenez, emakumeek ez dute garapen-iturrietarako (kredituak, diru-laguntzak, aholkularitza, prestakuntza...) berdintasunezko sarbidea, eta garapen-planek, orokorrean, ez dituzte kontuan hartzen emakumeek eta gizonek dituzten esperientzia, behar eta interes desberdinak. Izan ere, ingurune naturalarekin eta eraikiarekin harreman desberdinak dituzte emakumeek eta gizonek, baita erabaki politikoei buruzko esperientzia bestelakoak ere. Lanegunek luzera eta eredu desberdinak dituzte, eta oso desberdina da lan ordainduarekin eta ordaingabeko lanarekin (produktiboa, erreproduktiboa, komunitarioa) duten harremana. Garraioak, gizarte-zerbitzuak eta instalazioak modu desberdinean erabiltzen dira, sexuaren arabera. Baina desberdintasun horiek ez dira finkoak, arinak eta aldakorrek baizik, onerako nahiz txarrerako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Desberdintasun horiek emakumeen maila sozioekonomikoa apaldu egiten dute, eta lurralde bateko tokiko garapen ekonomikoan parte-hartzeko oztopo bilakatzen dira.

Emakumeek tokiko garapen-prozesuetan parte-hartzeko dituzten oztopo horiek ez daude isolatuta; aldiz, orokorrean, kausa-efektuzko harremana izaten dute. Beharrezkoa da esku-hartze bakoitzeko lehenengo etapetan genero-analisi bat egitea, jarduten duten estereotipoak eta gizon-emakumeek berdintasunez parte hartzeko dituzten arazoak eta oztopoak definitzeko. Halaber, esku-hartzearen fase bakoitzean txertatu behar da ikuspegi hori, gizonen eta emakumeen behar eta gabezia desberdinak kontuan

hartuz, eta antzematen diren genero-desberdinkeriak gainditzeko helburuz betiere.

Beraz, tokiko garapen-planetan genero-ikuspegia txertatzen lagunduko diguten tresnez hornitu behar gara, eta lanean jarraitu behar dugu emakumeek aspalditik jasaten ditugun desberdinkeriak eta bereizkeriak mantentzen dituzten genero-estereotipoak desegiteko.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Genero-ikuspegia tokiko garapenean txertatzeko eskuliburuak eta gidak**

NLEko –Nazioarteko Lan Erakundea– genero-berdintasuneko bulegoak, 2010ean, tokiko garapen ekonomikoko estrategietan genero-ikuspegia txertatzeko gida argitaratu zuen, zertarako eta tokiko garapen ekonomikoko profesionalei –nazioarteko erakundeetako langileak, nazioarteko garapen-erakundeak eta tokiko agintariak– gizon eta emakumeen beharrak eta lehentasunak zehaztu eta horiez arduratzeko laguntza emateko; horrez gain, tokiko garapen ekonomikoaren prozesuaren etapa guztietan bien parte-hartze osoa errazteko, eta genero-berdintasunarekin lotutako helburu eta emaitza guztiak erdiesteko.

Emakunde –Emakumearen Euskal Erakundea– Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo bat da. Berdintasun-politikak diseinatzen, sustatzen, koordinatzen eta ebaluatzen ditu, haiei buruz aholkatzen du, eta gizartea sentikortzen du Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen benetako berdintasuna lortzeko helburuz. 1997an genero-ikuspun-

tua tokiko eta eskualdeko garapenean integratzeko eskuliburua argitaratu zuen. Gida hori tokiko eta eskualdeko garapen-proiektuen eta -programen plangintzan eta kudeaketan inplikaturako pertsoneri dago zuzenduta; zehazki, zera bermatu nahi dutenei: gauzatuko diren esku-haritzeek emakumeen beharrak aintzat hartuko dituztela, haiek garapen-prozesuetan parte hartze osoa izatea erraztuko dutela eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lagunduko diotela. Dagokigun alorrean beste gida interesgarri batzuk daude: genero-ikuspegia enpleguaren eta prestakuntzaren ebaluazio-sistemetan integratzeko oinarritzko gida, 2007an argitaratua, eta enplegu eta prestakuntza proiektuetan aukera-berdintasuna bultzatzeko ekintzei buruzko gida, 2000. urtekoa. Esteka honetan aurki daitezke gida guztiak. [<http://bit.ly/2d4wkSh>]

.....• **Sentikortzeko kanpainak**

Hainbat administraziok emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatzera bideratutako sentikortzeko kanpainak egin dituzte.

Adibidez, Emakundek –Emakumearen Euskal Erakundea– sustatutako kanpainak ditugu, denboraren banaketa (pertsonala, soziala, familiara eta lanari dagokiona) arrazionalagoa eta parekideagoa sustatzeko. (Kanpaina: Ordu asko eta denbora gutxi, lan-banaketa eta hazkuntzako eta zaintzako erantzukizun partekatuen alde). (Kanpaina: lan-banaketa alde). Kanpaina guztietara daraman esteka. [<http://bit.ly/2dxKCd9>]

[gehiago jakiteko]

EMAKUNDE (1997): *Genero-ikuspuntua tokiko eta eskualdeko garapenean integratzeko eskuliburua*. Gasteiz. [<http://bit.ly/2cnLPz8>]

NLEren –NAZIOARTEKO LAN ERAKUNDEA– GENERO-BERDINTASUNEN BULEGOA (2010): *Guía para la incorporación de la perspectiva de género en las estrategias de desarrollo económico local*. Tokiko Garapen Ekologikoko Programa. [<http://bit.ly/2cEOEwx>]

2.7.

Ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan sentikortzeko kanpainak

[zertarako]

Kontzientziazioaren eta sentikortzearen bidez eredu sozioekonomikoa eta garapen-eredua eraldatzen laguntzeko; horretarako, herritarrei ulermenerako eta analisi kritikoko tresnak eskaintzen zaizkie eta jarrera eta jokabide aldaketak bultzatzen dira • Alternatiba jakin batzuk agerian jartzeko eta herritarrak mobilizatzeko, horiek eraikitzen eta sustatzen parte har dezaten.

[nola]

Egungo globalizazio eredu neoliberalarekin kritikoak diren pertsonen eta taldeen artean, gehienetan agertzen den bat hau da: datozen belaunaldien aukerei garrantzia kendu gabe, pertsonen ongizatea bermatuko duten alternatiba sozial eta ekonomiko eraldatzaileen eraikuntzan aurrera egiteko beharra. Sortzen den galdera nagusietako bat lehia globaleko testuinguru batean dinamika ekonomiko-produktiboak, finantzakoak eta enpresaren alorrekoak antolatzeak aukeraren ingurukoa da. Eta alternatiba bilaketa horretan, ESSk merkaturen lehia-logikatik bestelakoa den logika batekin jarduten duten ekintzaitza sozioekonomiko sorta aberatsa eta anitza eskaintzen du; hortaz, elkarrekikotasunean, solidaritatean, elkarrekiko mendekotasunean eta lankidetzan oinarritutako logikak berreskuratzen eta haien garrantzia azpimarratzen dituzte, eta pertsonak merkatuaren eta irabaziak lortzearen gainetik jartzen dituzte. Bizitzaren iraunkortasunean oinarritutako eraldaketa sozialaren zimenduetan bermatzen dira balio horiek, eta ESSk eraldaketa horretarako begirada berri bat, balio eta praktika batzuk eskaintzen ditu.

Ildo horretan, jadanik badaude eraldaketarako ahalmen handia dutela erakutsi duten ESSko ekimenak eta esperientzia praktikoak, eta oso erraz errepikatu eta aplikatu daitezke eguneroko bizitzan; hala ere, herritarren gehien-goak ez ditu ezagutzen.

Bestalde, ESSren ikuspuntutik, kontsumoa ekintza politiko bihur daiteke; izan ere, gure eguneroko kontsumoaren bidez injustizia mantentzen lagundu badezakegu, orduan, beste produkzio eta kontsumo moduak ere eraiki ditzakegu elkarrekin. Hala, bada, kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea beste eredu sozioekonomiko baterako behar diren trantsizioak eraikitzeke beste elementu bat izan daiteke.

Horiek horrela, modu kritikoa eta egiten ari den ekintza politikoaz jabetuta kontsumitzen duen pertsonak, sistema kapitalista egituraz eutsi-ezina dela ulerturik, beste irizpide batzuk erabiltzen saiatuko da eskura dituen aukeren artean hautatzerakoan, kalitateaz eta prezioaz harago. Bide horretan, ziurrenik, produkzio eta kontsumo alternatiba berriak ezagutuko ditu, eta, bere azterna ekologikoa gutxitu eta tokiko merkataritza sustatu ez ezik, kultura-aldaketa bat ere ekarriko diote: kontsumoaren ideologiaren eta sistema kapitalistak eta pentsamendu neoliberalak eragindako bizitzaren baliogabetzearen aurka egiten dute, eta pertsonak eta bizitza bera analisien eta erabakien erdigunean jartzen dituzten funtzionamendu-logika batzuk berreskuratzen dituzte.

Beraz, eredu sozioekonomikoaren aldaketa ekar dezaketen eraldaketa handiagoen oinarri dira, batetik, pentsamendu kritikoa sortzera bideratutako sentikortze- eta prestakuntzailana, eta, bestetik, herritarrek gune sozioekonomiko alternatiboak sortzeko proiektu eta praktika zehatzekin bat egitea –kontsumitzaile, parte-hartzaile, kooperatibista edo bazkide gisa, besteak beste–.

Administrazio publikoek eraldaketa horretan lagundu dezakete, eredu izanez eta sentikortze-proiektuen bitartez, lurraldeko beste agente baten gisan. Hori horrela, eta ESSen hazkundean eta hedapenean izan dezaketen eraginagatik, honetara bideratuta daude proposatzen ditugun ekintzak: herritarrengan ekintza horien aukeren inguruko kontzientzia sortzera eta, ESSren balio eta printzipioetatik, lurralde berri bat eraikitzen parte hartzeko dauden modu anitzak agerian jartzera.

Gomendagarria da sentikortzeko proiektuetan elkarrekin lotutako askotariko baliabideak, teknikak eta taktikak erabiltzea, aldaketa edo ekintza bultzatuko duten eta pertsonen eta taldeen parte-hartzea eta inplikazioa lortuko dituzten argumentuak eratzeko. Halaber, proiektu horietako batzuk biztanleriaren alor konkretuetara bideratu behar dira. Gure ustez, gazteekin lan egiteak lehentasuna izan behar du, bai hezkuntza formalaren bai ez-formalaren alorrean, eta horretarako, beste funtzionamendu-logika horiek berreskuratuko dituzten lankidetzak-guneak eta -jarduerak bultzatu behar dira.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Gizarte-Ekonomia, pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia, Tolosako Udala**

2015eko martxoan, Tolosako Udalak kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzaileari buruz sentikortzeko eta ekonomia sozialeko alternatibak agerian jartzera bideratutako sei eguneko jardura sorta bat antolatu zuen. Kanpaina horren barruan, hainbat jardura bultzatu ziren: moneta sozialei, finantza alternatibo eta solidarioei eta ESSri buruzko hitzaldiak, elikadura-burujabetzari buruzko bideo-emanaldiak, eta merkatu sozialeko azoka bat, non agerian jarri baitziren kontsumo kritikoa egiteko ESSren alorreko alternatiba zehatzak.

.....• **Pam a Pam Bigarren Hezkuntzako Institutuetan, Bartzelonako Udala**

Pam a Pam Kataluniako kontsumo arduratsuko eta ekonomia solidarioko mapa da. SETEM erakundeak eta Kataluniako Ekonomia Solidarioko Sareak (Xarxa d'Ekonomia Solidària, XES) bultzatzen dute ekimen hau.

Bartzelonako Udalaren laguntzarekin, Ikasketa eta Zerbitzuen proiektu bat abiarazi dute, Montjuïc BHIko hezkuntza-komunitatea kontsumo arduratsuari eta ESSri buruz sentikortzeko. DBHko 3. mailako ikasleekin parte hartzeko tailerrak egiten dituzte, kontsumo arduratsua eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa ezagutu dezaten. Ikasleek antolatzen dute ikastegiko hezkuntza-komunitateari zuzendutako kontsumo arduratsuari eta Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko sentikortze-kanpaina. Era berean, Pam a Pam mapan txertatu daitezkeen auzoko kontsumo arduratsuko guneak hauteman nahi dituzte. [<http://bit.ly/2dlvZed>]

[gehiago jakiteko]

[www.carrodecombate.com] Consumir es un acto político. Kontsumoa ekintza politiko gisa oinarri dituzten hainbat material biltzen dituen bloga.

[www.consumehastamorir.com] Webgune honetan kontsumoari eta kontsumismoari buruzko kontrapublizitate grafikoa eta ikus-entzunezkoa, testuak, tailerrak eta abar egiten dira.

3. Bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko estrategiak



3.1.

Berdintasun-planetatik bizitzaren iraunkortasunerako planetara

[zertarako]

Sistema sozioekonomikoan eraldaketa sakonak bultzatzeko, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna sustatuko dutenak eta gizarte ez-sexistak eta ez-heteropatriarkalak eraikitzen lagunduko dutenak • Bizitzaren iraunkortasunari eta zaintzari dagokienez, antolaketa sozial eta ekonomikoko erantzunkidetasun ereduak taldean definitzeko.

[nola]

Agerikoa dirudi, bizi-senagatik soilik bada ere, bizitzaren iraunkortasunak prozesu sozial, politiko eta ekonomiko ororen erdigunean egon beharko lukeela. Alabaina, sistema kapitalistak eta pentsamendu neoliberalaren garapenak bizitzaren beraren balioa galaraztea lortu dute. Amaia Pérez Orozco azaltzen du sistema kapitalistak bizitzari alde guztietatik erasotzen diola: lehenik eta behin, oinarrizkoenetik, naturatik (arazo ekologiko globalak eta lokalak eragiten dituen menderatze eta esplotazio harreman bat du harekin); bigarrenik, elkarren beharra dugun izakiak garen heinean, behar ditugun zaintzen ikuspegitik (bizitza iraunarazten duten zeregin eta prozesu multzoari balioa kentzen dio, eta ikusezin eta ezegonkor bihurtzen du; etengabeko ikusezintasun horrek hainbat ondorio sozial, ekonomiko eta kultural dakartza emakumeen bizitzetan). Azkenik, baita merkatu-produkzio kapitalistatik ere; izan ere, merkaturia jomuga duten ondasun eta zerbitzuak ekoizten ditu, eta irabazi-asmoa du helburu, ez, ordea, talde bateko kideen bizitzarako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuak modu orekatuan eskuratzeko aukera.

Cristina Carrascok azaltzen digun moduan, "gizarte bakoitzak gizakien bizitzaren iraunkortasunarekin lotutako arazoak konpontzeko duen moduan esplizituki zentratzeak, zalantzarik gabe, gizarte-egiturari buruzko ikuspegi berri bat eskaintzen du, eta inplizitua izan ohi den

eta aipatzen ez den prozesuaren alderdi guztia ikusgai bihurtzeko aukera ematen du. Ikuspegi berri horri esker, gainera, gizartearen lehentasunezko interesak argitara atera, lan-prozesuak berreskuratu, zaintzaren ardura nork hartzen duen izendatu eta genero- eta botere-harremanak aztertu daitezke"⁵.

Eta ez da kasualitatea hain zuzen bizitzaren erreprodukzioarekin eta pertsonen zaintzarekin lotutako lanak izatea (historikoki emakumeek egindako lanak, alegia) sistema kapitalistak eta pentsamendu neoliberalak ezkutatu dituenak; izan ere, lan horiek konpontzen dituzte sistema sozioekonomikoak etengabe sortzen dituen desorekak, oinarrizko tentsioan elkar gurutzatzen duten tentsioak: kapitalaren logika, batetik, eta bizitzaren logika, bestetik; irabaziak eta kapitala metatzeko helburua, batetik, eta zaintzaren eta gizakiaren ongizatearena, bestetik.

Cristina Carrascoren hitzetan, "emakumeen esku utzi dute iraupenaren eta bizitzaren zaintzaren ardura, eta horrela ahalbidetu da itxuraz autonomoa den mundu bat garatzea, haurren ezinbesteko menpekotasuna ikusten ez duena, askatasunaren premisa faltsuan oinarritua. Izan ere, guztiz aske izanik, gizonek eta emakumeek gizarte-erreprodukzioko lanak alde batera utziko balituzte merkaturian parte hartzeko, nork zainduko luke bizitza? Modu horretan, zaintza-ekono-

5 CARRASCO BENGUA, Cristina (2001): "La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?", *Mientras Tanto*, 82. zenb. Hemen kontsultatua: PÉREZ OROZCO, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un conflicto capital-vida*. Traficantes de Sueños, Madrid.

miak gizakion bizitza sozialaren egitura sostengatzen du, ekonomiako sektoreen arteko tentsioak orekatzen ditu eta, ondorioz, eraikuntza ekonomikoaren oinarria eratzen da”⁶.

Beraz, onartzen dugu ezen, gizarte- eta genero-desberdinkerien produkzioari eta erreprodukzioari esker mantentzen den sistema batean, ezin dela lortu emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala⁷ eta, ondorioz, berdintasun planek aurrera egin behar dutela, eredu sozioekonomikoen eraldaketa sakonak proposatuko dituzten planak egiteko bidean. Agerikoa da plan horiek hemen eta orain ditugun genero-arazoei erantzun behar dietela, baina epe luzerako estrategia batzuk ere proposatu behar dituztela ahaztu gabe: hain zuzen, bizitza eta haren zaintza eredu ekonomiko eta sozialaren erdigunean jarriko duten gizarte-aldaketak eta eraldaketa sakonak bultzatuko dituzten estrategiak.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Plana 2012-2020**

Plan hau elkarrekiko antolamendu eredu bat eraldatzeko tresna gisa proposatzen da; hala, gaur egungo eredutik (kapitala metatzeko logika baztertzaillean zentratua) bizimodu onaren plan alternatibo batera igaroko da; hau

da, bizitzaren iraunkortasuna GFaren politika publikoen erdian jarriko duen plan batera. Plan honetan aintzat hartuko da ezin dela lortu emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna, eredu sozioekonomikoa sakonenean aldatu gabe.

Ildo horri jarraikiz, inflexio-puntu bat bezala funtzionatzeko helburua du; horrela, egungo egituren baitan erantzunak ematea ahalbidetzen duten estrategiak identifikatuko ditu, baina ahaztu gabe gaur egungo eredia higatuko duten lan-egitura eta -prozesu berriak eraiki behar direla. Kontuan izanda hartzen den erronka eta proposatutako aldaketa sozialek eskatzen duten denbora, II Planak zortzi urte iraungo du (2012-2020). [<http://bit.ly/2cDadxr>]

[gehiago jakiteko]

EMAKUNDE Dokumentazio-zentro honetan hainbat alorretan generoaren ikuspegia txertatzeko eta diagnostikoak zein berdintasun-planak egiteko gidak eta eskuliburuak daude. [<http://bit.ly/2d4wkSh>]

PÉREZ OROZCO, Amaia (2013): *Sostenibilidad de la vida en el centro ¿Y eso qué significa?* IV. Economía Feministaren Jardunaldiak. [<http://bit.ly/2cHAfBW>]

6 CARRASCO BENGUA, Cristina (2011): "La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes", *Revista de Economía Crítica*, 11. zenb. [<http://bit.ly/2djCOvB>]

7 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020*.

3.2.

Zaintzak, lurralde-garapeneko estrategiaren erdigunean

[zertarako]

Bizitza erdigunean ezartzen duten lurralde osasungarri eta integratzaileak eraikitzeko • Pertsonen ongizateari ekarpena egiteko eta pertsonak dituzten premiak zeharkako eran asetzeko • Bizitzari eusteko ardurak ikusezin eta emakumetua izateari utz diezaion.

[nola]

"Zaintza" lurralde-garapenaren estrategietan txertatzea eta horiek erdigunean jartzea, erdigunean "bizitzaren iraunkortasuna" jartzearen alde egitea da; izan ere, zaintzarekin zer egin, nola antolatu galdetzen denean, egiatan, ekonomiarekin zer egin galdetzen da, zeren zaintzak eusten baitio eraikin ekonomikoari eta zaintzak konpontzen baititu "ekoizpen"- eta "ugalketa"-alorraren artean sortzen diren tentsioak, pertsonen ongizaterako beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak ordeztuz eta/edo osatuz.

Horrela, gaur egun, zaintzaren baitan, arduraren hartzen da ziklo ekonomikoa ixteko, bizitzari eraso egiten dion sistema batean bizitzari eusteko eta alderdi publikotik (Estatua, merkaturak) eskaintzen ez den guztia baina bizitzarako beharrezkoa dena eskaintzeko, esaterako, ahal den heinean "merkatuak" sortzen dituen tentsio guztiei eta horiek pertsonen bizitzan dituzten eraginei erantzutea. Beraz, zaintza pertsonen gorputzez kargu egiteko jardueraren zehatzak egitea baino zerbait gehiago da, batez ere, pertsonen laguntza zehatzak behar dituzten (umeak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak...) eta bizitzari eusteko beharrezkoak diren (gure bizitzatik gertuago daude) jardueraren eta zeregin horiek guztiak egiten diren kasuetan⁸.

Sistema kapitalistak eta heteropatriarkalak funtsean emakumeek egiten dituzten zaintza-lanak bereganatzen

ditu, binarismoaren bitartez. Hau da, kontrako ezaugarriak balituzte bezala definitzen ditu gizon eta emakumeak eta, beraz, gaitasun eta trebezia desberdinak esleitzen dizkie. Horrez gain, zaintzaren etika atzerakoiaren bidez eraikitzen du feminitatea; alegia, emakume batek bere burua besteen ongizatearen mesederako eskaini behar duela dioten mitoetatik eta gisakoetatik abiatuta.

Proposamen bat egiten bada merkatu kapitalista heteropatriarkalak ardatzgunetik ateratzeko eta bizitzaren iraunkortasunerako aukera ematen duten prozesuak jartzeko erdigune analitiko eta erabaki-hartze politikoetan, gure ustez, kontuan hartu behar du ekonomien eta alor ekonomikoko proposamenen pluraltasuna. Ekonomia testuinguruan jartzeko delaren baldin badakigu eta, beraz, ez badio erantzuten eskola ekonomikoek adierazten duten objektibotasun horri, dauden proposamen guztien artean zubiak ezarri gure beharrei erantzuneko dien antolamendu batean pentsatu behar dugu eta, azken finean, inpaktu sozialei eta pertsonen beharrei erantzun behar die eta ez horrenbeste kontsumogizarteak etengabe eraikitzen dituen eta kanpoko interesei eta irabazteko asmoei erantzuten dien nahiei.

Horrela, hau adierazten du Amaia Pérez Orozcok: "bizitzaren iraunkortasunaz ari garenean, sistema sozioekonomikoa hainbat eremuren (batzuk monetizatuak eta beste batzuk ez) engranajetat jotzen dugu; hala, sistema horrek merkatuak

8 "Auzoan ez badago haurtzaindegi publikorik, eta pribatuak oso garestiak badira, zaintza etxean egiten da. Ospitaleko egonaldia murriztu egiten bada eta ez baduzu dirurik osasun pribaturako, lan hori etxeetan egiten da. Eskolan laguntza-eskolak murrizten badira, etxean konpontzen da egoera hori. Tristura metatu egiten bada eta osasun mentalerako itzarote-zerrendak handitu egiten badira, auzoko sareetatik eusten da. Herrialde batzuetan zaintza-eginkizunak, besteak beste, hondakinen kudeaketarekin, energia-iturrien hornidurarekin ere lotzen dira." (PÉREZ OROZCO, 2014).

gainditzen ditu eta bere artikulazioa prozesu sozialetan amaieran duen inpaktuen arabera baloratu behar da."

Planetako pertsona guztien ongizatea bermatzen duten aukera transformatzaileak bilatzerako orduan, etorkizuneko belaunaldien aukerei kalterik egin gabe, Ekonomia Solidarioak sistema kapitalistaz bestelako logikekin funtzionatzen duten ekintzailtza sozioekonomikorako aukera aberats eta ugaria eskaintzen du. Ekonomia Solidarioko erakunde eta enpresek elkarrekikotasun, solidaritate eta lankidetzan oinarritutako funtzionamenduaren logikak berreskuratzen dituzte, eta pertsonak merkatuaren eta irabaziak lortzearen gainetik jartzen dituzte. Balio horiek, bizitzaren iraunkortasunaren paradigmen baitan, transformazio sozialaren oinarria eratzen dute. Beraz, Ekonomia Solidarioak transformazio honetarako begirada berria, balio berriak eta jardunbideak eskaintzen ditu.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Hiri eredu bat Madrilentzat: Zaintzen hiria**

Madrilgo Udaleko Osasun, Segurtasun eta Larrialdietarako zinegotzitza diseinatzen ari den hiri-ereduak herritarren zaintza du ardatz. Helburua da herritarren oinarrizko beharrei zeharkako eran erantzuten zaiela bermatzea. Horrela, zaintza kolektiborako moduak artikulatzen dira auzo bakoitzeko osasun-arazoen komunitate-diagnostiko bate-tik abiatuta; herritarren arazoak eta errealitatea gertuagotik ezagutu ahal izateko segurtasun-eredu berri bat jarriko da martxan, baita gatazkak konpontzen lagunduko duen Bizikidetzarako Udal Ordenantza berri bat ere.

[\[http://bit.ly/1TV9UjA\]](http://bit.ly/1TV9UjA)

[gehiago jakiteko]

CARRASCO BENGEOA, Cristina (2011): "La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes", *Revista de Economía Crítica*, 11. zenb.

[\[http://bit.ly/2djCOvB\]](http://bit.ly/2djCOvB)

PÉREZ OROZCO, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un conflicto capital-vida*. Traficantes de Sueños, Madril.

[\[http://bit.ly/2d4x0Xy\]](http://bit.ly/2d4x0Xy)

- (2013): *Sostenibilidad de la vida en el centro ¿Y eso qué significa?* IV Congreso de Economía Feminista.

[\[http://bit.ly/2cHAfBW\]](http://bit.ly/2cHAfBW)

3.3.

Hiri iraunkorragoetarako trantsizioak

[zertarako]

Erauzketa-eredu globalak sortzen dituen ingurumeneko arazoan eta arazo sozioekonomikoen aurrean erresilientzia soziala sortzeko • Klima-aldaketak, petrolio-ekoizpenaren gailurrak eta ezegonkortasun ekonomikoak eta mehatxu horiek guztiek herritarrengan dituzten inpaktu sozialei aurre egiteko • Honelako esperientziak sustatzeko: komunitate-trantsizioa, biodibertsitatearen zaintza, klima-aldaketarako egokitzapena, aurrezki eta efizientzia energetikoa, elikagai-burujabetza eta abar. Horiek guztiak maila globalean eragiteko gai baitira tokiko jardunetik abiatuta.

[nola]

Sistema ekonomiko kapitalista isilpean garatu da, bizitzarako aukera ematen duten bi alderdi materialen ezkutuan. Batetik, planetaren muga fisikoei ez ikusiarena egiten die eta, bestetik, gizakiak gizarte- eta belaunaldi-birsorkuntzarako behar duen denbora ikusezin eta prekario bihurtzen du. Sistema hau naturarekiko eta gainerako pertsonetikiko autonomiaren sinesmen faltsu eta arriskutsuan oinarrituta hazten da. Sistemak hazten jarrai dezakeen usteak eta hazkunde hori, gainera, zerbait desiragarria edo, are gehiago, planeta mugatu batean posibleztat jotzen duen usteak ez dauka zentzurik.

Hiriak dira denik eta ingurumenik transformatuena eta horietan kontsumitzen da baliabide natural gehien eta horietan sortzen dira hondakin kutsatzaile asko eta asko. Horrela, hiriek ingurumenarekiko mendekotasun handia dute eta, aldi berean, transformatu egiten dute; naturako elementuak erabili eta aprobetxatzen dituzte birsortzeko dituzten aukerak mantentzeko eta bermatzeko, hortaz, erabilera txarrak hiriko bizitzaren kalitatea okertzen du. Bistakoa da hiriek inpaktu larriak sortzen dituztela kokatzen diren ekosistemetan eta horiek ingurumeneko arazo bihurtzen direla, esaterako, osasungarritasuna, etxebizitza zein oinarritzko zerbitzuen urritasuna, industriaren eta etxeen kutsadura, hondakinak deuseztatzeko zailtasunak, baita hondamendi naturalen aurrean hauskorak izatea ere, adibide batzuk aipatzearen.

Erronka horiei guztiei aurre egiteko, beharrezkoa da era erradikalean beste sistema baterako trantsizioa egitea eta,

ildo horretan, helburuak, estrategiak eta baliabideak argiak dira, hau da, tresnak baditugu. Horrela, badakigu nola iragan energia fosila bestelako energia berriztagarriekin ordeztu duen eredu-aldaketa baterantz, kontsumoa murriztuta eta efizientzia energetikoa areagotuta. Badakigu, halaber, pertsonen osasuna arriskuan jartzen ez duten eta ingurumena agroekologiatik zaintzen duten elikadura-sistemak nola sortu; nola diseinatu hiri osasungarriagoak eta bizitzeko egokiagoak, bertan bizi diren pertsonen ikuspuntutik; nola birbanatu errenta eta nola sortu jarduera ekonomikoa solidaritate, justizia sozial eta ekitatearen irizpideen arabera.

Baina hiri-iraunkortasunerako ez du balio soilik energiaren aldetik efizienteak diren, kutsatzaileen isuri gutxi dituen edo hondakin kudeaketan oso efizienteak diren sistemak dituzten hiriak eraikitzea; beharrezkoa baita, berebat, sor daitezkeen perturbazioak xurgatzen dituzten eta horietara egokitzen diren sistemak eraikitzea. Hiriak sistema konplexuak dira, etengabe aldatzen ari direnak, eta horien erregulazioan aurreikusteko zailak diren "oreka" oso desberdinak sortzen dituzten aldagai ugari parte hartzen dute. "Perturbazio bat xurgatzeko eta aldaketak pairatzen ari den heinean, egitura nagusia, funtzioak, identitatea eta berrelikadurarako zikloak mantenduta, berriz antolatzeke"⁹ gaitasun horri erresiliencia esaten zaio. *Ciudad Sostenible* izeneko aldizkariaren arabera, "erresiliencia sistemak autoantolatzeke duen gaitasunarekin zerikusia du, baita erantzuteke azkartasunarekin eta dibertsitatearekin eta, batez ere, hirietan bizi diren pertsonen hiri-inguruneak meha-

9 "Resiliencia. Una propiedad necesaria para la ciudad sostenible". Ciudad Sostenible. Revista de Sostenibilidad Urbana y el Cambio Global, 2016ko uztaila. [<http://bit.ly/2cERIZy>]

txatzen dituzten aldaketa eta ziurgabetasunei erantzuteko duten gaitasunarekin. Beraz, galdera hau da: nola lortuko dugu hiri-sistemek eta, zehazki, herritarrek euren buruak antolatzeke eta azkar erantzuteke gaitasuna areagotzea?

Hiri bat erresilienteagoa da bere mendekotasuna murrizten denean eta, beraz, buruaskitasuna handitzen duenean baliabideak ekoiztu eta kontsumitzeari dagokionez; sistemaren dibertsitatea areagotzen duenean, hau da, ziurgabetasunen aurrean herritarrek era egokian erantzun ahal izatea errazten duten hainbat kolektibo antolatu eta hiri-elementu desberdinak daudenean. Eta kapital soziala indartzeko eta berrikuntza sustatzeko, herritarren kolektiboen dibertsitatearekin batera, aukera ematen duten partaidetzarako hainbat kanal daudenean.

Gure hirietan hiri-erresilientzia hori eraikitzen ari diren esperientzia esanguratsuak daude: hiri-baratzeak, gertuko kontsumoa; zuzeneko salmentako merkatuak eta kontsumo-taldeak; energia berriztagarriko kooperatibak, norkbere energia ekoiztea, herritarrentzako gune publikoak berreskuratzea eta abar.

Trantsizioa alde guztietan dago jada, nolabaiteko iraultza isila, etorkizunari buruzko ikuspegi optimista eta praktikoa sustatuz.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Trantsizioko hirien sarea**

Kinsalen sortua, Irlandako lehen trantsizioko hirian, Rob Hopkinsen eskutik. Han ekintza-plan bat ezarri zen beharrezko energetikorako, eta hiri batek erregai fosilen

mende egoteari uzteko estrategia programatu bat egiteko lehenetako ahalegintzat hartzen da. Erresuman Batuan, estrategia horiek diseinatzean eta abian jartzean herritarrei parte hartzeko aukera emateko sustatu zuten trantsizioko hirien sarea, baita trantsizioko ekimen bat aplikatu nahi dutenei euskarria emateko ere (prestakuntza, tresnak, teknikak eta abar.). [<https://transitionnetwork.org>]

Espainiako estatuan oraindik hasiberria da mugimendua, baina badaude zenbait lantalde hainbat autonomia-erkidegotan. Tokiko erakunde baten parte-hartzearen adibide bat Móstoleseko Udalak (Madril) 2015ean onartutako mozioan aurki dezakegu. Udalerrri hori trantsizioko hirien mugimenduarekin bat egiteko asmozkoa zen. Mozioak berekin dakar konpromiso esplizitu bat; hain zuzen, etorkizunean adierazpen instituzional bat egitea, nazioartean esperientzia horiek bateratzen ari diren sare sortuberrietako batean gehitzeko Móstoles; bestalde, baita konpromisoa egitate bihurtuko duen proiektu pilotu bat egitekoa ere.

.....• **Ekonomia Zirkularreko Proiektuetarako Diru-Laguntzen Lerroak, Eusko Jaurlaritza**

Ekonomia zirkularra kontzeptu ekonomiko bat da, garen iraunkorraren esparruaren barruan. Ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea du helburu, eta aldi berean kontsumoa eta lehengaien, uraren eta energia-iturrien alferrikako galera murriztea. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak diru-laguntzen lerro bat jarri du eskuragai ekonomia zirkularra agertzen duten proiektuetarako. 2016ko deialdiaren ardatz-gunean, enpresa-irtenbide eta -aukera berriak teknika-ekonomia-ingurumen aldetik bideragarriak diren baieztatzeko proiektu pilotuak eta proba industrialak egitea dago, bigarren mailako materialak bereizi, bildu eta birziklatzeari, bigarren mailako material eduki handia duten produktuak fabrikatzeari, produktuak

berriaz erabiltzeari edo pieza, osagai eta ekipamenduak berriaz manufakturatzeari dagokienez.

[<http://bit.ly/2djAKUr>]

[gehiago jakiteko]

[www.ciudadesostenible.eu] Revista de Sostenibilidad Urbana y Cambio Global. Doan eta harpidetza bidez banatzen den argitalpen bat da, Espainiako mila hiri garrantzitsuenetako teknikari eta politikarien artean.

[<http://desazkundea.org>] EAEko hiru lurralde historikoe-tan dagoen talde bat, desazkundeko proposamenak hedatzeko eta praktikara eramateko lan egiten duena.

[www.decrecimiento.info] Gaztelaniazko web-gordai-lu bat, desazkundeari eta trantsizioko mugimenduari buruzko informazioarekin.

[www.udalsarea21.net] Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea.

IHOBE, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Herri Baltzua (2012): *Tokiko jasangarritasunaren jardunbide egokiak EAEn 2012*.

[<http://bit.ly/2iEB4PE>]

RAMÍREZ TREVIÑO, Alfredo eta Juan Manuel SÁNCHEZ NÚÑEZ (2009): "Enfoques de desarrollo sostenible y urbanismo". *Revista Digital Universitaria*, 10. libk., 7.

[<http://bit.ly/2ick2ED>]

[www.reddetransicion.org] Irabazi-asmorik gabeko proiektu bat, Espainiako estatuan trantsizioko mugimendua ikusgai egiteko eta dinamizatzeko lan egiten duena, bai eta tokiko ekimenak babestu eta lotzeko ere, dela elkarrekin, dela Nazioarteko Trantsizio Sarea-rekin.

3.4.

Denboraren erabilera berriak

[zertarako]

Eguneroko bizitzaren denbora desberdinen bateragarritasuna sustatzeko eta denboraren banaketa ekitatiboagoa eta berdintasunezkoa izan dadila lortzeko, aintzat harturik emakume eta gizonek bizitza osoan zehar dituzten premia desberdinak • Gizarteko kohesioa, parekotasuna, aukera-berdintasuna eta denbora librearen autogestioa sustatzeko.

[nola]

Mugimendu feministaren bultzadari esker, denboraren politikak sortu ziren XX. mendeko 80ko hamarkadan Europa iparraldeko mugimendu feministak abiarazitako eztabaiden oinordeko dira politika horiek. Eztabaidok mahai gainera ekarri zuten bizitzaren ugalketaren denborak aintzat hartzeko premia, baita zein bidegabekeria sakona zen emakumeentzat zaintza-denboraren ikusezintasun etengabea, eta nola haien ongizatearen eragiten zuen, eta haien bizitzak prekario bihurtzen zituen. Ekarpen gehienek Ongizatearen Estatuaren politikei egindako kritika zuten ardatzean; izan ere, emakume eta gizonen aukera-desparekotasuna zekarten berekin, eta denboraren, lanaren eta ongizatearen inguruan biltzen zituzten proposamenak.

Proposamen horietako asko Italiako 1990ko lege-proposamen batean jaso ziren, "emakumeek denbora aldatzen dute" lelopean. Herri-ekimenen bitartezko proposamen hartan, politika publikoen eremuan jokaleku berriak aintzat hartzeko aukera eskaintzen zuten, lanetik eta familiaratik harago: esate baterako, hiria edo eguneroko bizitza. Politiken helburu nagusia da "emakumeei hobeto lagunduko dieten gizarteak antolatzea lortzea, horrela mundu guztiari ere hobeto lagunduko dietelako gizarteok"¹¹. Legezko proposamenak hiru kapitulu hartzen zituen barne: lehenengoaren asmoa zen bizitzaren zikloa erregulatu zedila lortzea, eta horretarako auzitan jartzen zen eredu maskulinoa, nagusiki lan produktiboaren denboraren mende baitago eta, horrenbestez, bai emakumeak bai arduraldi osoa ekoizpen-lanari eskaini ezin dizkietenak (adinduak, gazteak) bazter uz-

ten baititu. Legeak ekoizpeneko eta ugalketako denbora borondatez txandakatzeko aukera proposatzen zuen, lane-ko bizitzaren zikloan zehar, lane-ko baimenen eta baliabide egokien bitartez.

Bigarren kapituluak lanaldiko ordutegian jartzen zuen arreta. Hala, guztientzat ordainpeko lanorduak murriztea proposatzen zuen, eta lanaldiko ordutegi malguagoak finkatzea, ekoizpeneko eta ugalketako lana bateratzeari begira. Lanaldi horiek hala gizonak nola emakumeak hartzen zituzten barne. Hirugarren kapituluak denboraren eta hiriaren arteko harremana jorratzen zuen. Hori soilik bihurtu zen lege, eta zabal garatu zen bai Italian eta bai Europako beste herrialde batzuetan.

Alkateei eskumen jakin batzuk esleitu zitzaizkien ordutegien koordinazioaren arloan, eta denboraren Batzorde Publikoak, ordutegi-planak eta denbora-bulegoak sortu ziren. Horiek tokiko eragileak biltzen dituzte, ordutegien koordinazioa hobetzeko asmoz.

Denboraren politikak zeharkako esku-hartze publiko batzuk dira, eta auzitan jartzen dituzte ordaindutako lanak gizartean duen nagusitasuna, genero-rolen esleipena eta sexuaren araberako lan-banaketa. Denborazkoaren definizio zabal eta multidimentsionala dute abiaburuan. Ordu-tegiak kudeatzetik harago, sentikortzeko, eztabaidatzeko, negoziatzeko eta norberaren premien eta taldearen eskakizunen artean adosteko prozesuak aktibatzen dituzte¹¹.

10 TORNOS, Teresa, BORRÁS, Vicent eta Sara MORENO (2007): "Las políticas de tiempo en Europa". *Papers* 49. zk

11 EMAKUMEAREN ANDALUZIAKO INSTITUTUA: Tiempo y desigualdades de género. [<http://bit.ly/2d1LsP0>]

Denboraren politikek sortutako eztabaiden ondorioz, alde batera utzi dira laneko ordutegiak buruzko gatazkak, eta denboraren erabilerari eta ongizateari eta bizitzaren duintzari ulertzen dugunari buruzko gatazka orokorrago batekin ordezkatu dira.

Hala ere, politika horiei jarraikiz abian jarri diren neurri guztiek ez dute benetan auzitan jarri ordainpeko lanaren nagusitasuna, eta ez dute jorratu nola bermatu sozialki eta ekitatiboki guztien ongizatea. Ildo horretan, honako hau datza auziaren mamian: nola banatu laneko karga guztia emakumeen eta gizonen artean, planeta mugatu baten esparruan, aintzat harturik bizitzari (bere adiera zabalenean) eusten dioten prozesu dinamikoak. Horretarako, ezinbestean ulertu behar da bizitzaren ziklo osoan elkarrekin uztartzen diren edo ondoz ondo datozen askotariko denboren eta zereginen gain finkatzen dela bizitza: ordainpeko lana, autoenplegua, beste pertsonen eta norberaren zaintza, nor bere burua hornitzeko eta aisialdi produktiboko nahiz auzolaneko moduak¹².

Tokiko mailan, espazio sozioekonomiko alternatiboen eraikuntzaren esparruan, badaude zenbait ekimen, bereziki adierazgarriak direnak mikrogizarte-mailan egunerokoaren denborak hobetzeko, eta dibertsitate ekonomikoa ikusgai egiten dutenak, logika gailenekin guztiz hautsiz. Horixe da, adibidez, Denboraren Bankuen kasu zehatza. Halakoek balio bera ematen diete lan guztiei eta aldeanitzeko trukeak eta zeharkako elkarrekotasuna indartzen dituzte. Horrez gain, gertutasuneko kontsumoaren eta objektuak berrerabiltzearen aldeko apustua egiten dutenez, planetaren mugak aintzat hartzen dituen ingurumen-iraunkortasunarekiko konpromisoa dakarte. Tokiko erakundeek asko egin dezakete ekimen horiek eta

gako berberei jarraikiz diharduten beste ekimen batzuk sustatzeko.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Bremen 2030, denboraren jabe den hiri bat (Alemania)**

Bremen duela 24 urtetik existitzen da "Hiriko denborak proiektua", eta 1997an hezurramitu zen, Alemaniako lehenengo "denboraren bulegoa" irekita.

[\[http://bit.ly/2dfQmWK\]](http://bit.ly/2dfQmWK)

Hiru helburu multzo handi ezarri ziren denboraren politikan esku hartzeko. Adierazpide hauen bitartez laburbildu ziren:

- Hirigintza. "espazioaren trinkotasunak eta denboraren aniztasunak ezaugarritu behar dituzte hiriak, horrek bihurtzen baititu errealitate bizi eta erakargarri".
- Laneko ordutegiak, gizartearen denborak eta hirien denborazko osaerak eguneroko bizimodura moldatu behar dira, kasuan, kasuan.
- Zerbitzu publiko eta pribatuen modernizazioa. "Zerbitzu publiko eta pribatuek erabiltzaileen denborazko betebeharrak eta premiak hartu behar dituzte erreferentzia puntutzat, eta bizitza-kalitatea sortzen eta sustatzen lagundu behar dute"

12 DEL MORAL, Lucía (2012): "Sobre la necesaria reorganización social de los tiempos: políticas de tiempo, espacios económicos alternativos y bienestar". *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global* 119 zenb. [\[http://bit.ly/2cVcFiu\]](http://bit.ly/2cVcFiu)

.....• **Bartzelona, pertsonen denboraren hiria**

Eguneroko bizitzaren denbora desberdinak bateragarri bihurtuko dituzten politikak sustatzeko, Bartzelonako Udalak Zaintzen denboraren eta ekonomiaren programa bat jarri du martxan, gune publikoetako, mugikortasuneko eta ekonomia-garapeneko eskuragarritasuna hobetzeko lan egiteko asmoz. [<http://bit.ly/2db7vUU>]

Horretarako, honela egituratu dute beren laneko plangintza:

- Errealitatea etengabe behatzea, hiriko denboraren antolamendu soziala ezagutzeko.
- Esku hartzea, hiriaren antolamendua herritarren denboren erabilerara egokitzeko aukera emango duten eta gertuko eragile guztiak (auzoa, eskola, lana...) barne hartuko dituzten proiektuen bitartez.
- Ahalik eta eragile gehien parte-hartzea eta konpromisoa –udal-arduradunak, herritarrak eta erakundeak, enpresak, laneko erakundeak eta hiri-sareak– eskatzen duten politika mota horietan zeharkako alderdia txertatzea.

[gehiago jakiteko]

EMAKUMEAREN ANDALUZIAKO INSTITUTUA. Denborari eta genero-desberdinkeriei buruz sentikortzeko modulua: denboraren banaketa soziala eta politikak. [<http://bit.ly/2d1LsP0>]

W.AA. (2008): Tiempo y Territorio. Las políticas de tiempo de las ciudades. *Papers* 49. [<http://bit.ly/2dfQmWK>]

TORNS MARTÍN, Teresa (2014): "Las políticas del tiempo y el bienestar cotidiano". [<http://bit.ly/2dbamgV>]

- (2010): "Las políticas de tiempo: un reto para las políticas del estado del bienestar". *Trabajo, Revista Iberoamericana de Relaciones Laborales*, 13. Libk. [<http://bit.ly/2cQSypa>]

3.5.

Elikadura-burujabetza

[zertarako]

Bitza erdigunean jarriko duten beste antolamolde batzuk eraikitzeke, elikadura eskubide gisa bermatuz, pertsonen ongizatea sustatuz eta natura eta izaki biziak errespetatu eta zainduz • Demokrazian sakontzeko, eta gizakien elkarmendekotasuna, bai eta gizakiek planetarekiko duten mendekotasuna ere (beharrezkoak bi-biak), oinarri izango duten harreman sozial ekitatibo eta solidarioak eratzeko • Aberastasuna eta lurra birbanatu eta banatzeko, eta etorkizuneko belaunaldientzat bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko.

[nola]

Nekazarien Bideak honako hau esaten du Nyeleniko Adierazpenean (2007): "elikadura-burujabetza da herriek duten eskubidea, elikagai nutritibo eta kulturalki egoiak izateko, baita eskuragarriak eta modu jasangarri eta ekologikoan ekoizitakoak ere; herriek bere elikadura eta ekoizpen sistema erabakitzeko eskubidea. Hala, elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituztenak jartzen dira sistemen eta elikadura-politiken bihotzean, merkatu eta enpresen eskakizunen gainetik. Etorkizuneko belaunaldien interesak defendatzen ditu, eta haiek ere barruan hartzen ditu. Merkataritza aske eta korporatiboari eta gaur egungo elikadura-erregimenari aurka egiteko eta hura desegiteko estrategia bat eskaintzen digute, baita elikadurako, nekazaritzako, artzaintzako eta arrantzako sistemak bideratzeko, tokiko ekoizleek beraiek kudeatu ditzaten. Elikadura-burujabetzak tokiko ekonomiak eta tokiko eta nazioko merkatuak lehenesten ditu eta nekazariari ematen die boterea, baita familia-nekazaritzari, artisau erako arrantzari eta artzaintza tradizionalari ere; orobat, elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa jartzen ditu ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren iraunkortasunaren ardatzgunean. Elikadura-burujabetzak merkataritza gardena bultzatzen du, herri guztientzat diru-sarrera duinak bermatuko dituen merkataritza, eta kontsumitzaileek beren elikadura eta nutrizioa kontrolatzeko duten eskubidea sustatzen du. Gure lurra, gure lurraldeak, gure ura, gure haziak, gure abereak eta biodibertsitatea erabiltzeko eta kudeatzeko eskubideak elikagaiak ekoizten ditugunon eskura egongo direla bermatzen du. Elikadura-burujabetzak harreman sozial berriak eragiten ditu,

zapalkuntzarik eta desberdinkeriarik gabeak: emakumeen eta gizonen artean, herrien artean, arraza-taldeen artean, gizarte-klaseen artean eta belaunaldien artean¹³.

Bizilurrek –Lankidetzarako eta herrien garapenerako erakundea–, Etxalde–baserriarrez osatutako mugimendua, nekazaritzarekin lotura duten pertsonei irekia– eta EHNE Bizkaiak –nekazarien elkartasuna– 2016an argitaratutako gidaliburuak (*Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten*), zenbait gako eskaintzen dizkigu tokiko politiken esparruan elikadura-burujabetza sustatu nahi duten udalerrien gaitasunak sendotzeko.

Hala, adierazten dute tokiko eremua estrategikoa dela elikadura-burujabetzarako, besteak beste, autonomia handiagoko eremu bat delako, estrategikoa delako nekazaritzako elikagaien beste sistema batzuk birkokatze eta garatzeko, eta aukera ematen dutelako, bai tokian tokiko errealitateetatik sortutako proiektu jakin batzuetara egokitzeko, eta baita ordeztu hautabideak guztien artean parte hartuz eraikitze prozesuak abian jartzeko ere. Era berean, eremu horretan igar daiteke zein garrantzitsuak diren harremanak eta erkidegoa proposamen horiek eratzeko eta, akaso, eremu horretan uler daiteke hobeto ongizateak ez duela zerikusi zuzenik adierazle makroekonomikoekin, baizik eta *ongi bizitzearen* ideiarekin, adiera zabalean (autonomia, askatasuna, denbora...).

Tokiko eremuen (udalerririk) defentsa harturik abiapuntu, elikadura-burujabetzaranzko bideak sustatzeko gune

13 BIZILUR, ETXALDE eta EHNE Bizkaia (2015): *Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten. Elikadura-burujabetzatik tokiko politika publikoak eraikitze zenbait proposamen*. [<http://bit.ly/2dB59JU>]

eraldatzaile gisa, elikadura-burujabetzaren eremuan eskarmentu handia duten zenbait erakunde, sare eta eragile politiko eta sozialek "Elikadura-burujabetzaren aldeko Guntuna, gure udalerrietatik" Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko I. Nazioarteko Batzarrean. Batzarra Zaragozan egin zen, 2014ko azaroaren 27, 28 eta 29an, Ekonomia Sozial eta Solidarioko Estatuko Sareak deituta. Dokumentu honetan, tokiko erakundeek hainbat eremutan proposatu ditzaketen neurri batzuk proposatzen dira:

1. **Elikadura-gobernamendua:** geure nekazaritzako elikagaien sistemak herritarrengandik eta herritarrentzat pentsatzeko beharra defendatuz; udaleko elikadura-estrategiei dagokienez parte-hartzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeke kanalak (gardenki eta demokratikoki funtzionatuko dutenak) egokitzea proposatuz.
2. **Purraldearen babesa eta kudeaketa:** lurraldean integratutako hiri-nukleoak eskatuz, paisaiaren eta harekin lotutako elementuen ezaugarriak eta balioa aintzat hartuta. Horregatik, lurraldearen erabilera soziala egokiro kudeatzeko garrantzia nabarmentzen dute, elikadura-ekoizpeneko guneen eta ingurune naturalen arteko oreka bilatuz.
3. **Nekazaritzako elikagaien sektorea:** Pertsona gehiago –egun oso hustuta dagoen– landa-ingurunean bizitzea bultzatuko duten udal-politikak lehenestea proposatuz, horretarako lehen sektoreko (nekazaritza, basoa, artzaintza eta arrantza) eta irizpide agroekologikoak eta ESSkoak dituzten industriaren ehun ekonomikoa dinamizatuz.
4. **Ekoizpen-baliabideen kudeaketa:** Erabilera sozialaren eta ondare naturalaren kontserbazioaren artean

oreka bat egotea, eta ekoizpen-baliabideetara (lurra, ura, haziak) irizpide bidezkoa eta iraunkorra izatea bermatuz, kudeaketa kolektiboa eta komunala lehenetsiz.

5. **Hurbileko merkaturatzea eta kontsumoa:** Gure udalerririk elikagai agroekologiez hornitzeko nekazaritza-ehun bat izatea, merkaturatze-zirkuitu eta kanaletan oinarritua. Zirkuitu eta kanal horiek ekonomia kapitalistakoetaz bestelakoak izan behar dute, eta eragin onuragarria izan behar dute tokiko ekonomian. Zirkuitu horiek Merkatu Sozialean integra daitezela eta hura finkatzen lagun dezatela proposatzen da¹⁴.
6. **Kultura-aldaketa:** izan ere, proposatutako jardunbide-aldaketak iraunarazteko, elkarren osagarri izateko eta aberasteko, balio-aldaketekin batera joan behar dute. Hemen aipatutako balioak gizarte heteropatriarkalaren, kontsumistaren eta indibidualistaren balioak dira. Sektore honetan, honelakoetan islatzen da: landatarra gutxi baloratzen da, elikadura kontsumo-ondasun huts eta natura-tresna soil bihurtzen dira, eta, gainera, parte hartzeko eta lankidetzarako gaitasun eskasa eskaintzen delarik, egin beharreko oinarri-zko ekintzak mugatzen dira.

14 Merkatu Soziala REASen –Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea– proiektu bat da. Ondasunen eta zerbitzuen produkzio-, banaketa- eta kontsumo-sare bat da, ekonomia sozial eta solidarioko enpresek eta erakundeek eta kontsumitzaileek eratua, eta irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioei jarraitzen die.

[saiakuntza-bankua]

.....• Elikadura-Kontseilua São Paulo (Brasil)

São Pauloko udalak, Elikadura eta Nutrizio Segurtasunerako Sailaren bidez, martxan jarri du udal-eskoletan pixkanaka elikagai organikoak sartzen ari den programa bat, non gutxienez elikagaien % 30ak etorri behar baitu familiako nekazaritzatik. Horrek inguruko nekazaritza-ehunerako merkatu bat egotea bermatzen du eta, aldi berean, ikasleek elikagai osasungarriak eskuratzea ahalbidetzen du. Neurri horren bidez, bermatu egin nahi da gizarte maila apaleko familietatik datozen ikasleek gutxienez otordu bat izatea egunean, eta, horrekin batera, lurraldeko nekazaritza-sektorea dinamizatzea.

.....• Barberá del Valléseko herri-azokarako txartelak (Bartzelona)

Ekimen hau 2008an sortu zen, Bartzelonako Barberà del Vallés herrian, zertarako eta baliabide ekonomiko urriko pertsonen elikadura egokia eskuratu ahal izateko. Gizarte Ongizaterako eta Osasunerako Sailak, laguntza-lana egiteaz gain, erosketa-txartelak ematen dizkie, herriko azokako zenbait dendatan barazkiak, fruta, arraina, haragia eta produktu izoztuak erosteko. Proiektuaren mekanismoek ez dute barne hartzen sasoiko eta tokiko produktu ekologikoen sustapena; hala ere, bideratzen dira baliabide publikoak gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden herritarren elikadura-beharrak asetzerako, hurbileko merkataritza bultzatuz. [<http://bit.ly/1VJ3D8V>]

.....• Nekazalgunea, Tokiko Landa-Garapenerako Plan Integrala, Zeberio (Bizkaia)

Hau da haien helburua: lehenengo sektorea dinamizatzea eta gazteak hartan sartzera bultzatzea. Horretarako, lursail jakin batzuk eskuratzeko modua ematen zaie proiektu agroekologiko bat dutenei. Lurra eskuratzeko ez ezik, proiektuaren lehen fasean etxebizitza bat eskuratzeko aukera ematen zaie, bai eta eraldaketarako eta trukerako gune bat eskaintzen ere. Testuinguru horretan Maskilu ekimena sortu zen: kontserba-enpresa kolektibo bat, eraldaketa-areto bat, non eskuz prestatzen baitira sasoiko fruta, barazki eta perretxikoak.

Errealitate sozioekonomikoaren alor hauetan eragin nahi duen prozesu integral bat da: gizarteratzea eta laneratzea, garapen ekonomikoa, gazteak bizitza aktibo autonomora sartzeko, finkatze demografikoa eta landa-ingurunea zainetzea eta hobetzea. [<http://bit.ly/2dcMuct>]

.....• Garapen agroekologikoko proiektua, Urduñako Udala (Bizkaia)

Elikadura-burujabetza eta eredu agroekologikoa hartzen dute esparru eta ikuspegi teorikotzat, eta ikuspegi horretatik planteatzen dituzte udalerrian egin beharreko ekintzak. 2003an lehenengo sektorearen diagnostiko bat eta hura dinamizatzeko plan bat egin zituzten. 2006an, Ekoizpen Orduña aholkularitza-zerbitzua sortu zen, agroekologiarako trantsizio-prozesuetan prestakuntza emateko eta laguntzeko tresna gisa; orobat, agroekologia-foroa jaio zen, elikadurarekin, ekoizpen iraunkorarekin eta merkaturatze-zirkuitu laburrekin lotutako gaien inguruan prestatzeko eta sentikortzeko tresna bat. Halaber, merkaturatzean eragiteko ekintzak egin dituzte: kontsumo taldeak, hileroko azoka berreskuratzea eta abar. [<http://bit.ly/2d20LFC>]

[gehiago jakiteko]

BIZILUR, ETXALDE eta EHNE Bizkaia (2015): *Euskal Herriako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza eraiten. Elikadura-burujabetzatik tokiko politika publikoak eraikitzeke zenbait proposamen.*

[<http://bit.ly/2dB59JU>]

REAS Red de Redes (2014): *Gure udalerrietan elikadura-burujabetza izateko karta.* (Ekonomia Soziala eta Solidarioko I. Biltzarraren esparruan idatzitako dokumentua).

[<http://bit.ly/1AroHcc>]

[www.eurovia.org] **Nekaza!** Bidearen Europako Koordinadora, haren helburu nagusia zilegitasunean, justizian, solidaritatean eta iraunkortasunean oinarritutako elikadura- eta nekazaritza-politikak lortzeko borroka da.

[<https://vsf.org.es>] VSF (Mundu Mailako Elikadura-Justizia) elikadura-burujabetzaren aldeko landa-garapeneke eredu zuzen bat sustatzen duen elkarte.

[www.ecologistasenaccion.es] Espainiar Estatuko herri eta hirietako hirurehundik gora talde ekologistak osatutako konfederazioa.

3.6.

Nekazaritzako elikagaien estrategiak iraunkortasun- eta justizia-irizpideetatik

[zertarako]

Gizarte osoko eta geure hirietako krisi ekologiko, sozial eta ekonomiko-finanzatarioari aurre egitea ahalbidetuko diguten estrategiak elkarrekin eta parte hartzeko moduan diseinatzeko • Enpleguak sortzea, ohitura osasungarriak sustatzea, geure lurraldeek klima-aldaketaren, energia-krisiaren, pobrezia-aren aurkako borrokaren eta gizarte-desberdinkerien erronken aurrean duten erresilientzia handitzea • Alor honetan dauden ekimenekin sinergiak sortzea eta alternatibak geure lurraldeak eraldatuko dituzten estrategiekin lotzea • Tokiko elikagai osasungarri eta iraunkorren ekoizpenaren, merkaturatzearen eta kontsumoaren garapenerako lagungarriak diren egoerak sortzea.

[nola]

Nekazaritzako elikagaien sistemak elikagaien ekoizpenarekin, banaketarekin, merkaturatzearekin eta kontsumoarekin lotutako guztiari buruz ari dira eta, ondorioz, giza elikaduraren funtzioa betetzeari buruz. Kasu honetan, hirietako (gizartearen gehiengoa haietan bizi da) elikadura-sistemei buruz ari gara, eta haiek iraunkortasun- eta justizia-irizpideetara egokitze beharrari buruz.

Nekazaritzako elikagaien sistemak hiri-iraunkortasunaren ikuspegitik planifikatzearen ardurak hainbat arrazoi ditu: batetik, "elikadura-krisia" deitzen zaiona, hau da, energia-krisiari eta klima-aldaketak eragindako baliabide galerari aurre egiteko beharra. Egungo nekazaritza eredia ez da gai munduko herritar guztien elikadura-segurtasunari aurre egiteko, eta elikagai-ekoizpeneko eredu horrek ez du ekiditen lurzorua narriatzea eta biodibertsitatea galtzea.

Bestalde, lehenengo sektoreko eta landa-alorreko arazo endemikoei heltzea beharrezkoa da, izan ere, oso paper garrantzitsua jokatzen du gizarte-antolaketa guztien mantentzean. Ez baditugu kontuan hartzen arazo horiek, egiten dugun plangintzak porrot egingo du ziur. Horiek horrela, proposatzen du gainerako hiri- eta lurralde-iraunkortasuneko estrategiekin batera heltzea hiriko nekazaritzako elikagaien sistemaren plangintzari. Estrategia horien artean, funtsezko lekua utzi behar zaio lehen sektorearen iraunkortasunari.

Halaber, beharrezkoa da nekazaritzako elikagaien sisteman genero analisia txertatzea; izan ere, emakumeek ekoizpen arloan eta landako lan-merkatuan duten parte-hartzea agerian jartzeko datu eta modu berriak sortzen laguntzen du.

Hiriko logikak menderatutako gizarte batean eta alderdi anitzeko sistema-krisi batean aurkitzen gara; krisi horretan euren artean oso lotutako hainbat sektorekako krisi elkar-tzen dira: krisi ekonomikoa, politikoa, eta energia-, inguru-giro- eta hiri-krisiak. Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak prestatutako Gasteizko Nekazaritzako Elikagai Estrategiarantz dokumentuan aipatzen den moduan, "Adierazi behar da nekazaritzako elikagaien sistemak transbertsalitateko gaitasun handia duela krisiaren alderdi sektorial horiekin guztiekin loturan, eta, horrenbestez, esku-hartze eraldatzailerako eremu pribilegiatu gisa agertzen dela. Ulertu ere, lehen-mailako sektoreak landa-lurretan sortzen dituen produktuak, beren funtzio metabolikoa betetzeko, banaketa- eta kontsumo-guneetara bideratzeko prozesuen saretzat ulertzen badugu nekazaritzako elikagaien sistema."

Aurrean dugun erronka handia da, eta esku-hartzearen maila guztiak kontuan hartzea eskatzen du, globaltasuna ulertuta tokikoari helduz, eta alderantziz. Hala ere, esan behar da ez garela hutsetik hasten, geure herrietan hainbat ekimen praktiko bultzatu baitituzte kontzientziatutako eta inplikaturako agenteek: esaterako, hiri-baratzeak, menu ekologikoak gizarteko eta komunitateko baliabideetan, garapen agroekologikoko proiektuak, elikadura-burujabetzako ekimenak, landa alorrari balioa emateko esperientziak eta emakumeek landa-garapenari egindako ekarpen historikoak agerian jartzekoak eta abar. Ekimen horiek hainbat alternatiba sortzen dituzte, eta lurralde gehiago eraldatuko dituen estrategia orokor batean elkartu behar dira.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Bristoleko nekazaritzako elikagaien plana (Inglatera)**

Bristol hiria auditoretza batean ateratako ondorioetan oinarritu da nekazaritzako elikagaien estrategia garatzeko. Auditoretza hartan antzeman zuten, lur emankor mugakide asko galduta zeuden eta elikagai freskoak saltzen zituen hurbileko merkatu-ehuna ahul zegoen. Hiriko politikak 2015 eta 2018 arteko iraupeneko plan batean antolatu dira, eta kalitateko elikagaiak (bertakoentzat eskuragarriak eta ingurumenaren aldetik iraunkorrak) egin eta erosteko prestakuntza eta aholkularitza ematera daude bideratuta. [<http://bit.ly/1GkrbcM>] [<http://bit.ly/1xBgS1H>]

.....• **Beste hiri eredu bat elikatuz, Madrid**

2015eko urrian, Madrilgo Udalariak Milango Elikadura Politikarako Itunarekin bat egin zuen. Konpromiso hori ez ezik, beste hainbat neurri hartzen hasi da, "beste hiri eredu bat elikatuz" goiburupean, nekazaritzako elikagaien sistema iraunkor eta udalerriko herritar guztientzat eskuragarria errealitate bihurtu dadin. Horretarako, hainbat zinegotzigok parte hartzen dute –Parekidetasuna, Gizarte Eskubideak eta Enplegua, Segurtasuna eta Larrialdiak, eta Ingurumena eta Mugikortasuna–, jarraipen-mahai baten gidaritzapean, non gizarte zibilak osatutako zenbait plataformek ere parte hartzen baitute. [<http://bit.ly/2d1Zo9V>]

.....• **Vitoria-Gasteiz, Nekazaritzako Elikagaien Sistema Iraunkorren alde**

2012 eta 2014 artean, Gasteizko zenbait elkartek eta herritarrek osatutako talde batek hiriaren etorkizun iraunkorari buruzko hausnarketa prozesu bat gauzatu zuten, bertako nekazaritzako elikagaien sistema hobetzeko. Prozesu hori "Vitoria-Gasteiz, nekazaritzako elikagaien sistema iraunkorren alde" manifestuarekin amaitu zen. Hain zuzen, zenbait lerro estrategiko posible proposatzen ditu adierazpen horrek. 2014ko udalbatzan Nekazaritzako elikagaien Udal Plan batez hornitzea erabaki, eta 2015ean egoeraren diagnostiko bat egin zuten. 2016an, testuinguruari gehien egokitzen zitzaion nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorra definitzeko partaidetza prozesua abiarazi zuten, herritar guztiekin batera. [<http://bit.ly/2cEUf5O>]

[gehiago jakiteko]

BIERMAYR JENZANO, Patricia, (2016): *Género y Sistemas agroalimentarios sostenibles. Estudios de caso: Yuca, quinua, maíz y algodón*. Elikadura eta Nekazaritza Erakundea (FAO). [<http://bit.ly/28LkVRb>]

CENTRO DE ESTUDIOS AMBIENTALES (2015): *Hacia una estrategia agroalimentaria sostenible para Vitoria-Gasteiz. Materiales básicos para un diagnóstico participativo*. Gasteizko Udala. [<http://bit.ly/2djE1Dd>]

3.7.

Energiaren etika: energia-eredu berri baten alde

[zertarako]

Energia eredu iraunezin batek (baliabide fosilen menpekhoa eta gizarte- eta ingurumen-eragin oso gogorrekoa) sortutako krisiari aurre egiteko; horretarako, gure energia-menpekotasuna gutxituz eta energia-baliabideen banaketa bidezkoa bultzatuz • Energia-burujabetzarantz joateko, gure eta gure ondorengoen bizitzaren iraunkortasuna, zentzu zabalean, bermatuz.

[nola]

Energia oso garrantzitsua da gure gizartean, eta energia ereduak lotura estua du sortu nahi dugun gizarte ereduarekin. Energia-eredua esaten dugunean, lurralde batean energia ekoizteko, eraldatzeko eta kontsumitzeko duten moduaz ari gara. Modu horretan, gizarte baten ehun ekonomikoaren ezaugarriak energia-ereduaren araberakoak dira. Energia-ereduak, aldi berean, ingurumen-inpaktu handia du eta, horregatik, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren orekan oso faktore garrantzitsua da.

Agerikoa da egungo energia ereduak eutsiezina dela eta, beraz, eredu horri lotutako bizitzeko era ere bai. Gure egungo energia ereduak energia-kontsumoaren etengabeko hazkundera du ezaugarri; energia-kontsumo hori jatorri fosileko baliabide mugatuetan, pribatizazioan eta oligopolioan oinarritzen da eta ingurumen-inpaktu kaltegarriak eta atzeraezinak ditu, hain zuzen, gure planetako bizi-baldintzetan ondorio larriak dakartzaten eta gure eta ondorengo belaunaldien bizitzaren iraunkortasuna arriskuan jartzen duten inpaktuak. Horrez gain, energia-eredu hau oso mendekoa da, beraz, beste arazo larri bat ekartzen du: segurtasun falta hornikuntzan, lurraldeek beren buruak hornitzeko gaitasun urriak dituzte eta.

Gainera, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeak energia-baliabideetara modu desberdinean iristeak Energia Pobretasuna deiturikoa sortu du; alegia, beren beharrak asetzeko behar adina energia-zerbitzu eskuratu ezin dituzten familiek eta/edo beren diru-sarreraren zati handiegia

euren etxeetako energia-fakturak ordaintzeko erabili behar dituztenek pairatzen duten egoera¹⁵.

Beste eredu energetiko baterantz egiteko planteatu diren neurrietako zenbait energiaren eraginkortasunarekin eta aurrezpenarekin zerikusia dute, energia berriztagarrien garapenaren batera. Hala ere, neurri horiek ez dute berez bermatzen eredu-aldaketa bat eta, gure ustez, paradigma-aldaketa bat planteatu behar da horri konponbidea eman eta kontsumo txikiagoko eredu batean oinarritutako eredu batera jotzeko; ingurumenaren gain gutxiago eragingo duen eredu bat, ekitatiboagoa, baliabide energetikoekiko mendekotasuna murriztera eta horien banaketa ekitatiboagoa eta bidezkoagoa eramango gaituena.

Iraunkortasunak, gertutasunak eta tokikotasunak, baliabideen kontrolak eta horien kudeaketa publikoak izan behar-lukete eredu energetiko berri horren oinarria, eta herrien jabetze eta parte-hartzean bermatu behar-lukete haren eraikuntza. Hau da, burujabetza energetikoranzko bidea egin behar da.

Ilido horretan, Euskal Herriaren burujabetza energetikorantz joateko gidak (ZUBIALDE, 2014) tokiko mailan egiteko 13 urrats proposatzen ditu burujabetza energetikorantz joateko.

1. Eraikin, herri, eskualde edo lurralde jakin bateko egoera energetikoa diagnostikatzea.

15 SIIS, FUNDACIÓN EGUÍA-CAREAGA (2013): *La pobreza energética en Gipuzkoa*. Diputación Foral de Gipuzkoa. [<http://bit.ly/2djCEVg>]

2. Bero-energiaren eskaria murriztea.
3. Energia aurrezteko neurriak txertatzea.
4. Eraginkortasun energetikoko neurriak txertatzea.
5. Herritarrak informatu, prestatu eta heztea, gizartea sentikortzeko proiektuen bitartez.
6. Herritarrak mobilizatuko dituzten partaidetza bidezko prozesuak bultzatzea .
7. Tokiko kontsumoa sustatzea, tokiko ekonomiak energia aurrezten duenez.
8. Sortutako hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea.
9. Ura kudeatzeko eta haren kontsumoa murrizteko neurriak sartzera.
10. Neurri horiek guztiak udal-plangintza baten bitartez ordenatzea.
11. Energia-sare publiko baterantz jotzea.
12. Energia berriztagarrien garapena babestea.
13. Kontsumo txikiko eraikinak sustatzea

Energiaren sektorean, hiru urratsetan laburbildu daitezke energia eredia eraldatzeko gakoak: Energia-kontsumoa murriztea, energia berrantolatzea edo eraginkortasun energetikoa, eta energia berriztagarriak. Energiaren 3E horiek zehazten dute zer urrats eman behar diren eta zer ordenatan.

Gure ingurune hurbilean irabazi-asmorik gabeko bi kooperatiba ditugu energia berriztagarriak sortzeko eta merkaturatzeko ESSaren barruan, burujabetza energetikoaren printzipioei jarraikiz dihardutenak. Energia ereduaren aldaketa sustatzen duten ekimenak dira; horretarako, jatorri erabat berriztagarriko elektrizitatearen eskaria handitzen

dute, eta kontsumo arduratsua sustatzen, sentikortzeko eta informatzeko ekintzen bitartez: GoiEner eta SOM Energia/Energia Gara.

Gaur egun, gorabidean doa argindarraren hornidura energia-iturri berriztagarrietatik datorrela bermatuz kontratatzen duten euskal udalen kopurua.

[saiakuntza-bankua]

.....• **Klima eta energiako alkateen ituna**

Europako ekimen bat da, eta tokiko gobernuek klima aldaketaren aurkako borrokan engaiatzeko tresna giltzarri moduan jaio zen. Alkateen borondatez hartutako konpromiso bat da, beren lurraldeetan EBren helburu klimatiko eta energetikoak aplikatzeko. Sinatzaileek beren gain hartzen dute hemendik 2030ra bitartean CO₂ isuriak gutxienez % 40 murrizteko konpromisoa, baita osoko ikusmolde bat hartzekoa ere, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko-lanei ekiteko. www.pactodelosalcaldes.eu

.....• **Energiética, Martorelleseko Udala (Bartzelona)**

Martorelleseko Udala Energiética proiektuko kide sortzaileetako bat da. Proiektu horrek Bartzelonako Diputazioa du bere lankideen artean. Udal-administrazioek energiaren erabileran aurrezteko eta eraginkortasuna handitzeko asmoa duten hainbat ekintza txikik osatzen dute. Proiektuak, horrez gain, biztanleen jardunbide egokiak sustatu eta

erraztu nahi ditu, etxean energia aurrezteko eta udaleko energia-kudeatzaile bat partikularren eskura jartzeko, herritarrek energia aurrezteari buruz dituzten zalantzak argitu eta haiei aholku emateko. [<http://www.energetica.com/>]

.....• **Klima-aldaketaren aurkako udal-plangintza eta programak**

Noaingo Udala - Elortzibar (Nafarroa). Plana hau 2007an onartu zen, udalerrria karbono gutxiko garapen eredu baterantz bideratzeko asmoz. Tokiko eskumenetatik lau ildo estrategiko proposatu ziren: eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarrien sustapena, CO₂ isurbideak sortzea, eta herritarrekin komunikazioa eta haien parte-hartzea. [<http://bit.ly/2d66MnA>]

Areatzako Udala (Bizkaia). 2009an Udal Ordenantza bat onartu zuten klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta Klima Aldaketaren aurkako 2010-2015eko Udal Programa prestatu zuten. Hona hemen gauzatutako zenbait jarduketa: eraikinen eta argiteria publikoen auditoretza energetikoak egitea eta eraginkortasun energetikoko neurriak abiaraztea; Mugikortasun Iraunkorreko II. Plana; gune berdeen zabal-kundea eta udalaren jabetzako eremuen basoberritzea. [<http://bit.ly/2d909gm>]

.....• **Gipuzkoako pobrezia energetikoari buruzko azterketa, Gipuzkoako Foru Aldundia**

Azterketa honen helburua da pobrezia energetikoaren kontzeptua txertatu eta ikusgai bihurtzea, eta Gipuzkoan duen intzidentzia eta eragina aztertzea. Horrez gain, beste herrialdeetan haren inpaktua murrizteko garatu dituzten neurri nagusien nazioarteko ikuspegia eskaini nahi du. Azterketaren ondorioek aditzera ematen dutenez, ez da arazo

isolatua eta, beraz, osoko erantzunak eman behar zaizkio. [<http://bit.ly/2djCEVg>]

Nazioarteko esperientziak aztertuta, pobrezia energetikoko plan batean nahitaez sartu beharreko bi elementu ondorioztatu daitezke:

1. Eraginkortasun energetikoa etxebizitza guztietan sustatzeko neurri unibertsalak, baina, aldi berean, diru-sarrerara urriko pertsonen premia eta ezaugarri bereziak aintzat hartuko dituztenak.
2. Modu osagarrian, bigarren maila batean, gehien kaltetutako pertsonen premia larrienei erantzuteko aukera emango duten prestazio ekonomikoak edo hobari-sistemak.

[gehiago jakiteko]

[www.goiener.com] Energia berriztagarriaren sorrera eta kontsumoko kooperatiba .

[www.somenergia.coop] Energia berdeko kooperatiba.

ZUBIALDE LEGARRETA, Xabier (2014): *Euskal Herriko burujabetza energetikorantz joateko gida. Maila globalean defendatu beharreko 13 pauso. Maila lokalean egin beharreko 13 pauso.* Donostia. [<http://bit.ly/2cQSGF1>]